




Dona dona

IBON LARRAZABAL

 BOOKTEGI



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu

IBON LARRAZABAL

Dona dona

I

Egungentzia iritsi beharreko orduetan, gau osoan zehar etengabe eroritako euri jasak ez du gelditzeko asmorik erakusten. Eguzkiak, bere aldetik, esnatzeko gogo eskasa daukala eta irteteko ordua ahalik gehien atzeratzen ari dela ematen du, hiri izan nahi duen herri gris hau beste egun gris batez argitzeak merezi ez diola uste balu bezala.

Euritik –eta ilunpetik- babestuta, auto barruan dago Lara, hiriko –herriko- polizia-etxe aurrean aparkatuta. Norbaiten edo zerbaiten zain, antza. Okinen eta kale garbitzaileen goizaldeko orduak diren arren, ondo jantzita doa Lara, ondo orraztua eta makillatua, tamaina ertaineko hiri bateko adin ertaineko andre burges baten irizpideen arabera. Gehiegikeriarik gabe, ez festa batera joateko moduan, baina bai mediku pribatu baten kontsultara joateko eran. Edo polizia-etxera norbaiten bila joateko eran.

Autoa ere berri-berri dauka Larak, itxuraz behintzat, nahiz eta matrikularen zeinu alfanumerikoek batere berria ez dela aditzera ematen duten. Herriko garraio publikoaren gabeziei eta urbanismo modernoaren eskaerei aurre egiteko, etxeoandreek –etxeoandreek batez ere- erabili ohi dituzten auto mota horietako bat da, etxetik lanera eta bueltan joateko, hipermerkatura, haurrak eskolara eramateko. Larak ere horretarako erabili du urtetan, haurrak eskolara eramateko edo bertan hartzeko ere, baina sekula ez bereak, berak ez baitauka seme-alabarik. Beste norbaiten semea edo alaba polizia-etxean jasotzeko ere balio du autoak, gaurko kasuan bezala.

Kopilotuaren eserlekuaren gainean sakelakoak bibratu du. Larak pantailan atzamarra irristatu eta erantzun du, ahots leunaz, erdi lo dagoen norbaitekin erabil daitekeen ahotsaz edo beldurrez dagoen ume batekin, edo negarrez ari den norbaitekin.

-Bai, ordaindu dinat fidantza. Laster irtengo dun, lasai. Ez arduratu. Ni arduratuko naun guztiaz. Lasai egon. Hartu al dun lexatina? Ederto. Lasai. Gero deituko dinat. Muxu.

Deia moztu eta berriz kopilotuaren eserlekura jaurti du telefonoa.

Autoko irradian, albiste gutxi, ezer berririk ez, eguneko eguraldia, bezperako kirolak. Larak ez dio jaramon handirik egiten, beste nonbait dago haren gogo, baina ez du itzaltzen. Bakarrago sentituko litzateke. Zeinen bakarrik dagoen ohartuko litzateke. Eta ez da hura hain bakarrik sentitzeko unea. Laguntza behar du egungentzi hartan, nahiz eta bere ekimen eta borondatez

dagoen bertan, nahiz eta ohitua egon, soberan, edonoiz eta edonon bakarrik egotera. Aspaldidanik. Hainbeste urtean. Bizitza osoan.

Polizia-etxeke sarrerara begira dago Lara, handik norbait noiz irtengo zain. Indiano estiloko eraikin birgaitu bat da herriko polizia-etxea. Ameriketan noizbait dirutza eginiko herriko semeren batek iraganean eraikia izan behar du, ziurrenik, eta haren ondorengoak ez dira gai izan etxea sendian mantentzeko edo ez dute gogorik izan. Ustezko indiano hura eta haren familia nortzuk izan ziren ez dakiela ohartu da Lara, bera herrira iritsi zenean etxea jada hutsik eta nahiko hondatuta baitzegoen. Herria hazi zenean bertan polizia-etxea antolatu zuten eta ordurako Lara bazen herriko bizilaguna.

Norbait atera da polizia-etxetik. Egunsenti ilun hartako argi eskasek eta euriak ez dute gehiegirik ikusten uzten, baina bera da, Larak itxaroten zuen pertsona. Ahuspez, lurrera begira atera da. Anorak beltz handi bat darama aldean eta txanoa jarri du euriaz babesteko, baina bera da.

Lara euritako bat hartu eta autotik atera da haren bila.

-Adele! Erdu! Zure bila etorri naiz.

Adelek begirada zorutik altxa eta ezagutu du. Hurbildu zaio.

-Zer egiten duzu hemen? –galdetu dio, nahiko zabar.

-Zure zain nengoen. Igo autora, etxera eramango zaitut. Mela-mela eginda bukatuko duzu kaletik oinez jarraituz gero.

-Etxera? Zein etxera? Nik ez daukat etxerik, enteratuko zinen dagoeneko.

-Zuk badaukazu etxe bat, baina hori ez da orain eztabaidatuko dugun ezer. Nire etxera eramango zaitudala esan nahi nuen. Sartu, bustitzen ari gara eta.

Adelek ez du eragozpen gehiagorik jartzen, Lararen aterkipean autoraino doaz biak. Auto barruan anorakaren txanoa kendu du Adelek. Neska gaztea da, hogeitau urte ingurukoa, altua, indartsua, aurpegi ederduna. Azal zuria, begi zuriak, ile horia mutilen erara moztua. Ez dirudi bertokoa, baina kanpoko azenturik gabe hitz egiten du.

-Amak agindu zaitu? Bera ez zen ausartzen ala? Lotsa handiegia izan behar zuen berarentzat.

Ez dio Larari begiratzen, aurrera so dago, kristaleko euri tantoei so, eskuak anorakaren poltsikoetan.

-Ez nau inork agindu, nik nire burua eskaini dut etortzeko. Larriegi zegoen zure ama, ez zegoen inora joateko moduan. Negarrez deitu nau gauaren erdian, atxilotuta zeundela esateko. Norbait etorri behar zen zure bila eta fidantza ordaintzen, eta ama ez zegoen egoera egokian.

-Eta aita? –beti aurrera begira, serio, ironia izpi batekin-. Zu etorri behar izan zara fidantza ordaintzen? Gurasoak ez ziren ausartzen ala? Zeregin hobeagorik edukiko zuten ziur aski. Hau harridura.

-Adele, laztana, ez izan injustua, mesedez. Amak zure atxiloketaren berri izan duenean hartu duen atsekabea irudika dezakezu. Nerbioak jota dago etxean. Aitak ez dio etortzen utzi eta niri eskatu dit faborea. Ama ezin zen bakarrik geratu eta aita ahrekin geratzea hobe zela erabaki dugu. Nirekin etortzeko aitarekin joateko baino eragozpen gutxiago jarriko zenituzkeela pentsatu dugu. Dena dela, nahi baduzu, haiengana joan gaitezke orain, zure etxera.

-Ez. Ondo pentsatu duzue. Ez dut gurasoak ikusteko inolako gogorik, are gutxiago haien etxera joateko. Nire etxera joan nahi dut, nirera.

-Adele, bihotza, ez daukazu beste etxerik gurasoena ez bada. Ondo dakizu hori, orain dela minutu bat esan didazu. Zure etxea deitzen diozuna, karabana zahar hari etxe deitu ahal baldin bazaio, erre da, kiskali. Zuk eman zenion su. Horrexegatik gaude hemen. Su eman zenion bizi zinen karabanari eta hori dela eta atxilotu zintuzten.

...

Adelek ez du berehala erantzuten, baina serio jarraitzen du, ez du lotsarik edo atsekaberik adierazten. Azkenean:

-Ez nintzen ni izan. Norbaitek eman zion su, ni barruan nengoelako ustean. Hil nahi ninduten eta alde egin behar izan nuen.

-Ikusi zintuzten, Adele... Lekukoak daude.

-Lekuko horiek ere konplize dira! Ziur! Nirekin akabatu nahi dute.

-Nahikoa da, Adele! –haur txikiekin erabiltzen den tonuarekin-. Amarru horiek guztiek epaiketara erabil ditzakezu nahiez gero, baina nirekin ez dutela balio badakizu, jaiotzatik ezagutzen zaitut eta. Gurasoenera joan nahi ez baduzu nirera joan gaitezke.

Gidatzeko jarreran eseri eta segurtasun uhala lotzen du Larak.

-Ados. Hobe horrela guztiontzat. Nik ez ditut ikusi nahi eta ziur haiek ere ez dutela ni ikusteko gogo handirik. Deseroso izango litzateke guztiontzat. Zer esango genioke elkarri?

Adeleren erantzunari itxaron gabe, Larak auto txiki txukuna martxan jartzen du eta bidean doaz, egunsentiaren lehenbiziko eguzki izpi ahul alperren aurkako noranzkoan.

-Zergatik egiten diezu beti kasu? –Adelek eztabaida sortzeko edo jarraitzeko asmoa omen dauka-. Ama nerbioak jota dagoela? Nire erruz izango ote! Beti, edozein kasutan, gertatzen dena gertatzen dela ere, bera ez bada protagonista gaixotzen da.

-Injustua eta gezurtia izaten ari zara, Adele. Beste edonorekin balioko dizute kontu horiek, baina ez nirekin. Soberan dakit nik gurasoak beti, jaiotzatik, ondoan izan dituzula.

Larak aurrera begira hitz egiten du, gidatzen baitoa, baina Adelek ere aurrera begira hitz egiten du eta ez dio Larari begiratzen. Begiradak paraleloan doaz, pelikula japoniar batean bezala.

-Zuk ere erabiltzen dituzu amarruak eta gezurrak, bide batez. Ez naiz bakarra. Ongi dakizu ez nauzula jaiotzatik ezagutzen. Ni jaio nintzenean zuk ez zenuen ikusi, zuetariko batek ere ez zuen ikusi, gurasoek ezta ere. Gu biok ezagutzen dugun inor ez zen bertan egon. Eta hori bai badakizula soberan, Lara.

-Etxera heldutakoan lo apur bat egin beharko duzu –entzungor eginez, Lara-. Bai badakit adoptatua zarela, baina xehetasun hori gogora ekartzea zuk maizegi erabiltzen duzun beste amarru bat baino besterik ez da. Nirekin ez zaizu balioko. Soberan ulertu didazu zuk ere. Ez hasi nirekin manipulazio jokoetan gero! Gurasoek beti babestu, lagundu eta maitatu zaituztela esan nahi nuen, eta ni horren lekuko izan naizela, inork ezin didala kontrakorik esan, zuk ezta ere.

-Errieta egingo didazu orain? Horretara etorri zara?

-Ez zen nire asmoa, baina beste aukerarik ematen ez badidazu, ez naiz isilduko. Eta eztabaida batean arrazoirik ez daukazula ohartzen zarenean errieta egiten ari zaizkizula esatea, ume txikien amarru bat da, bide batez.

-Hala bada, hasi baino lehen hobe duzu autoa gelditzea. Errieta entzuten ez naiz geratuko eta ziur ez duzula nahiko autotik martxan jaistea. Kapaza naizela badakizu.

Bai, Larak bazekien Adele kapaza zela, horretaz eta askoz gehiagoz.

-Lasai, ez egin txorakeriarik. Etxera eramatera etorri naiz, beste barik. Fidantza ordaindu eta etxera eramatera. Atertzen duenean, lo egin, dutxatu eta arropaz aldatu ondoren, zuk erabaki zer egiten duzun. Aitak ez zuen etorri nahi berarekin joan nahiko ez zenuelako. Nahiago zuen nirekin etor zintezela, kaleetatik eta bideetatik alderrai ibil zintezela baino. Holako goiz batean batez ere.

-Zergatik egiten diezu beti lan zikina? Zer zor diezu?

-Ez gara zorrez ari. Jakin beharko zenuke dagoeneko, eta badakizula susmatzen dut, baina zirikatzen ari zarela. Sakonki, bihotzez maite ditudan pertsonak dira zuen gurasoak, biak. Inork gutxi tratatu nau bizitzan haiek bezala. Eskatuko lidaketen edozer egingo nuke.

-Amak ez zuen etorri nahi inork ez zezan ikusi polizia-etxean sartzen edo polizia-etxearen aurrean zain. Lotsaz hilko litzateke. Ez lituzke esamesak eta zurrumurruak jasango. Jendearen iritzia arabera jokutzen du beti, itxurari garrantzi gehiegi ematen dio.

-Adele, zure amarekiko erakusten duzun gorroto ganorabako hori nerabeen gauza da, oso, eta zu ez zara jada inolako neraberik. Gaingitu beharko zenuke.

Adelek ez du erantzuten baina eztabaida –eztabaida ote?- bukatutzat ematen duenaren zirkinik ere ez du egiten. Serio jarraitzen du, aurrera begira, zer erantzun, zer aurpegiratu bururatuko zaion zain.

Bitartean, isilik, irratiko esatarien solasak lagun dauzkatela, Lararen etxera iritsi dira. Laurogeiko hamarkadan eraikitako lau solairuko etxebizitza eraikin bateko hirugarren pisuan bizi da Lara

-Nik lanera joan behar dut –diotso Larak Adeleri behin etxe barruan-. Hozkailuan janaria daukazu. Bainugela eta zure logela non dauden badakizu ere. Behar bezain beste denbora gera zaitzke, baina alde egitea erabakitzen baduzu, horretarako erabat libre baitzara, gurasoei edo niri non egongo zaren jakinaraztea eskertuko nizuke. Kasu horretarako, sarrerako tiraderan dirua ere badaukazu. Dagoen guztia har dezakezu, baina ez ibili alferrik gehiagoren bila, etxean ez baitago gehiagorik. Eta ez ahaztu epaiketaren zain zaudela, ezin duzula urrunegi joan. Berriz atxilotuko zintuzten eta ez zizuten fidantzarik ezarriko orduan.

2

Zentral termikoarekin batera iritsi nintzen ni herrira, laurogeiko hamarkadaren bigarren urtean. Zentrola eraiki eta martxan jarri aurretik –eta hortaz ni heldu aurretik- nekazarien herri bat zen hau. Penintsularen erdialdeko lautada erraldoiaren iparraldeko mugan kokatutako beste herri txiki bat baino ez zen. Haren bizkarrean, iparraldera, gailur elurtuez jositako mendikatea hasten zen, lautada itsasotik banantzen eta urruntzen duen muga naturala; eta oraindik hasten da, jakina, azken hogeita hamar urteotan hainbat gauza aldatu badira ere, mendikateak hortxe jarraitzen baitu, aldagaitz, behin betikoa, bere oinetan dagoen herri honi eta bertatik gabiltzan gizon-emakumeoi bere begirada aldi berean axolagabea eta epailea aginduz, etengabe.

Inolako sonarik gabeko herria zen, ezezaguna, batez ere ni bezalako madrildar batentzat, hogeita bat urteko neska madrildar batentzat. Hona etorri behar nuela erabaki nuenean, mapan bilatu behar izan nuen herria, sekula ez bainuen lehenago haren izena entzun, eta aurkitzeko zailtasunak izan nituen, eskolan erabilitako mapamundian ez baitzen agertzen –Espainari buruzko orrialdeetan esan nahi dut, noski-, eta gasolindegian erositako errepide mapa batean topatu nuen azkenean. Aran nire lagunari galdetu nion herriaz inoiz zerbait entzuna zuen, izena bederen, hari bakarrik eman niolako hona etortzeko nire erabakiaren berri, eta honek baietz, ezagutzen zuela esan zidan, baina herri bat zenik ez zekiela. Aranentzat trenbideen bidegurutzek –nahiko famatu- bat baino ez zen eman nion izena. Iparraldeko kostaldeko hirietatik zetozen trenak eta lautadako hirietatik iparraldera zihoazenak bertan gurutzatzen omen ziren. Ondo zekien Aranek, berak iparraldeko herriren batean igarotzen baitzituen udak, baina ez zekien tren geltoki hartan jendea bizi zenik.

Baietz, tren geltoki haren alboan edo inguruan, antza, herri bat egon behar zuela esan nion, bertan lan egiteko kontratu bat sinatu berri nuelako, eta beraz bertara bizitzera nindoala. Arani kontatu nion bakarrik, berak bakarrik zekielako halako erabaki bat hartzera zerk bultzatu ninduen eta, harrituarena apur bat egin zuen arren -holako albiste bat jasotzean egin beharrekoa baita harritzea- ez zen saiatu iritziz aldatzeko konbentzitzen. Niri gertatu zitzaidana Arani gertatu balitzaio, hark ere antzeko erabaki ero bat hartuko zukeen, beste askoz ere eroago bat ez bazen, indarkeria, odola eta polizia barne hartuko lituzkeen bat. Hortaz, iparraldeko tren geltoki galdu batera bizitzen joateko erabakiari ahuntzaren gauerdiko eztula zeritzon Aranek, berak, antzeko atakan, egingo zukeenarekin alderatuta.

Zer gertatu zitzaidan horren larri? Ez dio axola, ez naiz horretaz ari orain. Herrira heldu nintzen uneaz ari naiz, ez herrira etortzera bultzatu ninduen arrazoiaz. Ez da kasua gaiaz hitz egiteko kapaza ez naizela edo ausartzen ez naizela, orain unea ez dela baizik. Kontakizunetik gehiegi desbideratuko ginatke. Egia da hogeita hamar urteotan inori ez diodala gai horretaz hitz egin, Alex edo Inmari ezta ere, eta horrek asuntxo isilarazi, estali, ezkutatu, ahaztu nahi nuela esan nahi du, baina, joandako hogeita hamar urteek ematen duten ikuspegiarekin, agian, gertatutakoa ez zen orduan bizi nuen bezain garrantzitsu. Hogeita bat urteko nire Larak bizi zuen dramari, egungo Larak lotsa, ironia eta gupida apur batzuekin begiratzen dio. “Kaioa” antzezlanaren gogoratzen, Txekjovena? Azkenean, Nina agertzen denean, eta bere bakarriketan bere bizitza zenbat aldatu den, zenbat drama gertatu zaizkion kontatzen duenean, irtenbiderik ez balu bezala, bere patua eta bere bizitza osoa jada idatziak baleude bezala... bi urte besterik ez dira igaro!! Nina, laztana, neskatila gazte bat izaten jarraitzen duzu, bizitza osoa daukazu aurretik eta ehunka erabaki ezberdin eta kontraesankor hartzeko aukera izango duzu oraindik! Bada, antzeko modu batean ikusten dut egun, orain dela hogeita hamar urteko Lararen jarrera. Bai, orain ez nuke hartaz hitz egiteko inolako arazorik, baina gaiaz desbideratzen ari gara. Aurrerago, norbaitek oraindik interesa balu, horretara itzuliko gara, baina herrira nola iritsi nintzen kontatzen ari nintzen.

Ingeniari tekniko ikasketak bukatu berri nituen “dena” gertatu zenean. Ikasketen hautua ere dezepzio bat izan zen gurasoentzat eta nire erabakia aldatzen saiatu ziren biek, nola ez. Ez zen “niretzat” espero zutena –“nigandik” esan behar zuten, baina ez-. “Niretzat” –“nigandik”- espero zutena, erraza da irudikatzen: pianoa, frantsesa, Filosofia eta Letrak gehienbat. Errespetu osoz, baina ni ez nintzen neska hori. Ingeniari tekniko ikasi nuen eta, behin ikasketak amaituta, lan bila hasi nintzen. Hori ezta ere ez zen “niretzat” espero zutena, jakina. Lan egitekotan, aitaren enpresetako batean izan beharko luke gehienez. Baina ezkontzea zen egin behar nuena, “niretzat” hoberena zena. Horrelako zerbait izan behar zen “niretzat” espero zutena, baina ez zen eztabaidarik sortu horren inguruan: nik ez nien aukera eman eta haiek – amak batez ere- ez zeukan eztabaidarako indarrik une hartan. Garai ezberdinak zirela esanez erraz justifika daiteke hau guztia. Errazegi. Ez zen soilik beste garai bat, beste giza espezie bat zen haiena. Baina ez gara gurasoek hitz egitera etorri. Zertan agertu dira hemen gurasoak? Haien mundua, unibertso urrun hura gogoratzen eta deskribatzen ez dugu denbora eta indarrik galdu behar. Ez gaitezen sinplekerietan erori. Azken finean, nerabezaroan eta gaztaroan gurasoekin haserretzeko eta eztabaidatzeko genetikoki programatuta gaude. Ez da batere interesgarri gurasoekin –edo gurasoetako batekin- iskanbila daukan gaztetxo baten anekdota. Beste istorio bat da hemen kontatzen ari garena.

Elektra indarreko konpainian sartzeko oposaketa probak egin nituen, erdi ezkutuan, eta gainditu ere. Ez zen zaila izan, jakina. Elektra indarreko konpainia hura nazioaren Garapen Planaren ardatzetako bat zen hirurogeiko hamarkadatik, Frankismoaren garaitik, eta bere hedapen eta garapen planak Madrilgo gobernu frankistak diseinatutakoekin estuki uztartuta egon ziren beti. Konpainia pribatua zen, teoriarik, baina diktaduraren gobernuaren beso bat bezala jokatzeko zuten –edo agian alderantziz gertatzen zen, alegia, hura bezalako konpainia pribatu erraldoien beso bat baino besterik ez zela gobernu-. Francok urte gutxi batzuk baino ez zeramatzen hilik eta, gobernu demokratiko berriekin, elektra indar konpainia honen jokaerak eta ekarpenak berberak izaten jarraitzen zuten. Hortaz, gobernuarekin batera diseinatutako, edo gobernuari isilean inposatutako, garapen plan anbiziotsu haiek aurrera eramateko, urtero jendetza piloa kontratatzen zuten elektra indar konpainiak garai hartan. Eta haietako bat suertatu nintzen ni. Ongi pentsatuta, hainbeste urte eta mota guztietako krisialdi igaro ondoren, horretan soilik aldatu da konpainia erraldoi honen portaera: jada ez du ia jenderik kontratatzen, kaleratu eta aurrez erretiratu bai, baina langile berriak tantaka bakarrik sartzen dira. Gainerakoan, gobernuarekin –gubernuekin, hobe esanda, bai Madrilgo eta bai autonomietako gobernuarekin, diren kolorekoak direla ere- dauzkan uztardura eta interes gatazkak frankismoaren garaikoak bezala izaten jarraitzen dute. Administrazio Kontseiluak ministro ohien dream team bat ematen du orain ere. Tradizioaren indarra ote.

Baina tira, zer esan behar dut nik holakoez, ideiarik ere ez badaukat. Kasua da, oposaketa probak behin gaindituta, elektra indar konpainiak Madrilen zeukan zentralera deitu nindutela pertsonal saileko arduradunarekin hitz egiteko, lanpostu bat eskainiko zidaten eta. Bertan agertu nintzen agindutako data eta orduan –oraindik gogoratzen ditut aldean neramatzan gona eta brusa, baina ez ditut aipatuko- eta ez nuen gehiegi itxaron behar izan. Ingeniari eskolatik ezaguna nuen gizonezko aurpegi bat atera zenean bulegotik, idazkariak sar nintekeela esan zidan. Pertsonaleko arduradunak –orduan ez zegoen Giza Baliabideak bezalako izen lotsagarri bat-, bere eserlekutik zutitu, idazmahaiaren beste aldetik eskua luzatu eta mesedez jesartzeko esan zidan. Benetan dotore dekoratua zegoen bulegoa, zurez eta larruz, baina nire begiak hondoko horman itsatsia zegoen Espainiako mapa handi batean iltzatu ziren. Bertan, txintxeta gorritz nabarmenduta, bete beharreko lanpostuen kokapenak agertzen ziren. Maparen erdigunetik, Madrildik, urrunen zegoen txintxeta identifikatu nuen, iparraldera.

-Ingeniari tekniko bat behar dugu hemen, Madrilen, bulego honetan. Bertan hasiko zara lanean, beraz, datorren astean.

Pertsonaleko arduradunak eskaintza hau guztien onerakoa zela sinesten zuen, albiste on bat ematen ari zitzaidala. Ingeniari tekniko gazteak agindu behar zituen konpainia eraikitzen ari zen zentral guztietara, baina, haien jatorritik urrun agindu behar bazituen, gizonezkoak aukeratzen zituen. Emakumezko bakarrari, emakume gazte –eder- bati ez zion erbeste zigor hura ezarriko. Ez zen horren gupidagabea, ez horrenbeste bederen. Dena dela, langileburuaren bihotz onaz eta ni hautagaien artean emakume bakarra izateaz gain, beste arrazoi bat ere antzeman nuen orduan eskaintza hain eskuzabala beste barik jasotzeko: tipo hari nire abizena ezagunegia gertatzen zitzaion eta, ez goitik, ez gobernutik ezta inondik ere telefono deirik jaso ez zuen arren, ez zuen nirea bezalako abizen bat zeukan norbaitekin hanka sartu nahi.

Haren paternalismoak espero ezin zezakeen eskaintza are eskuzabalago batekin erantzun nion nik.

-Iparraldeko zentral termiko berrira joan nahi dut –atzamarrarekin maparen goialdeko txintxeta gorria seinalatzen ari nintzen-. Ni baino gaituago dagoen beste hautagairik ez badago behintzat.

Izen ezezaguneko –Madrilen ezezaguna- herri galdu hartara joateko prest zegoen beste inor ez zegoen, ez, ez bere borondatez edo bestelako aukerarik izatekotan behintzat. Halakorik susmatzen nuen. Ez nuen kompetentziarik izango. Langileburua konbentzitu baino besterik ez nuen egin behar.

Arduradunak ez zuen sekula zerua hain oskarbi ikusi. Inoiz ez zitzaion suertatu antzeko atakarik: nire eskakizunak –edo eskaintza bat zen?- lana errazten zion. Fabore bat ez ezik, bi zor zizkiotela sinetsaraziko zigun langile berrioi, nire ezusteko eskaerari esker. Alde batetik, niri: nire eskaera zoroari men egitearren soldata murriztazo bat onartu beharko nuela azaldu zidan, inolako lotsarik gabe.

-Badakizu, Madrilgo soldatak Madrilgo bizitza maila altuagora egokitzen zaizkio. Probintzietan ez ditugu soldata berdinak ordaintzen, baina ez dituzu gastu berdinak edukiko ezta ere.

-Suposatzen nuen. Ez dio axola. Ados nago.

Sekula ez zioten horren erraz jarri pertsonaleko arduradunari. Fabore bat egin nion, beste inork nahiko ez zukeen eta zigor bat bezala onartuko zukeen lanpostu baterako nire burua eskaini nuen, eta egoera atzekoz aurrera aurkezteko gai izan zen esker txarreko sugedorri hura. Langileren bat hasierako momentutik berarekin eta lortutako lanpostuarekin deseroso eta haserre egotetik salbatu nuen ni, eta ni nintzen eskerrak eman behar zizkiona. Giza Baliabideen

kudeaketa langileei etengabe ziriak sartzearekin identifikatzea, ikus daitekeenez, ez da gauza berririk.

Baina, geroago jakingo nuenez, ez ziren horretan amaitu pertsonaleko arduradunak nire eskaintzatik lortu zituen abantailak. Behin kontratua sinatu eta bulego hartatik alde egin nuenean, lanpostu hartarako pentsatuta zeukan hautagaiari deitu zion pertsonalekoak, eta niri esan zidan gauza bera –aurkakoa berez- esan zion.

-Asko kostatu zait baina azkenean, zu izateagatik, Madrilen geratzea lortu dut. Ez ahaztu fabore bat zor didazula. Hori bai, ulertu beharko duzu, Madrilen geratzea onartzearen ordainean, soldata ez dela hasieran hitz egindakoa izango.

-Ulertzen dut. Mila esker zure adeitasunagatik, bihotzez.

III

-Zergatik egiten diozu beti lan zikina amari?

Adele eta Lara sukaldeko mahaiaren aurrean eserita zeuden. Saldaz beteriko plater bat zeukan Adelek aurrean. Larak ez zeukan janaririk aurrean baina Adeleri laguntzen zion. Laurogeiko hamarkadako zen eraikina, baina Lararen sukaldea ez zen pisuaren jatorriko sukaldea; agerikoa zen Larak goitik behera berriztatu zuela urte gutxi batzuk lehenago, azken aldian hain zabaldua eta orokorki onartua zegoen ikea-friendly estiloa deitu daitekeenera.

Bost orduz lo egin zuen Adelek eta eguerdi inguruan jaiki zen ohetik. Hitz egiteko gogorik ez zeukan altxatutakoan, ez zuen inori azalpenak ematen hasi nahi, Larari ezta ere, baina handik, Lararen etxetik, alde egiteko ez indarririk ezta kemenik ere ez zitzaizkion gelditzen. Lara lanetik itzuli zenean sukaldean eserita topatu zuen Adele, irratia piztuta, eta hozkailuan gordeta zeukan salda berotu zion zerbait jan zezan. Isilik eta gogo handirik gabe jaten ari zen Adele, galdera hotz, lehor hura oldarraldi bat bezala bota zuen arte. Ustekabean harrapatu zuen Lara eta erantzunik gabe geratu zen hau une batez. Une labur batez soilik.

-Lan zikina? Zu polizia etxetik ateratzeari lan zikina deritzozu? Beste edonork fabore bat deituko zion, baina faborerik ere ez da izatez. Ama nire laguna da, lagun mina, herri honetan izan dudan lagunik onena, eta hori, nire kasuan, bizitzan izan dudan lagunik onena esatearen parekoa da. Ondo dakizu. Eta aita laguna dut ere. Amaren senarra izan baino lehen laguna nuen aita. Salda ez baduzu laster hartzen, hoztuko zaizu eta grazia guztia galduko du.

-Eskertzen dizut baina, errespetu osoz, salda ez da nire janaririk gogokoena. Mafaldaren antzekoa naiz horretan. Ados nago, lagunek elkarri laguntzen diote, baina noiz egin dizute faboreren bat haiek? Zertan lagundu dizute inoiz?

-Kontatu al dizugu noizbait, haiek edo nik neuk, bakar bakarrik heldu nintzela herri honetara? Arrotza nintzen. Eta zuen gurasoek, Inmaculadak eta Alexanderek, Inmak eta Alexek, bakarrik senti ez nendila lortu zuten. Herri hau nire bizilekua bihurtzen lagundu zidaten. Ez al deritzozu nahikoa?

-Horregatik ez diezu faborerik zor. Ni ere kanpotarra naiz. Ni ere arrotza nintzen iritsi nintzenean.

-Bi urte ere ez zenezkan iritsi zinenean, Adele, ez zara sekula arrotza izan herri honetan.

-Inoiz ez naute bertokoa banintz bezala tratatu! Herriko bizilagun guztiek, gazteek ere, gazteenek ere, nire adinekoek eta ni baino gazteago direnek ere, badakite Siberian jaio nintzela. Guztiek dakite adoptatua naizela. Eta esaten ez didaten arren, portaeran nabaritzen zaie. Astiro hitz egiten didate, atzerritarrei eta umei egiten zaien eran. Euren intentzioa hori ez bada ere, euren portaerarekin, nahigabe, herriko jendeak beti arrotz sentiaraziko nau.

-Tira ez gara horretaz eztabaidatzen arituko orain. Gaur ez. Gaur berriro ez. Gehiegitan entzun dizut koplara bera eta dagoeneko badakizu nire iritzia. Gurasoei txantaje emozionala egiteko balioko dizu, baina ni ez nauzu konbentzitu. Nekatuta gaude biok, zu bereziki nekatuta egon behar duzu, bost ordu eskas baino besterik ez duzu lorik egin eta. Hobe duzu salda amaitzea eta, amaituko ez baduzu, hobe duzu ohean edo sofan etzatea. Deskantsatuta, argiago ikusiko dugu guztia. Baina zerbait argi izan behar duzu (ziur nago badakizula eta aitortu nahi ez duzula), zugarik egin dut, ez gurasoengatik. Hain zaila gertatzen zaizu zugarik arduratzen naizela ulertzea?, zuri gertatzen zaizunak kezkatzen nauela?, logura kentzen didala non zauden eta ondo zauden jakiteak? Badakit zuk ondo dakizula, eta baita badakizula axolagabe agertzeak min egiten didala. Haurra zinenean, neskatila bat zinenean, grazia egin zezakeen, baina orain min egiten du. Emakume helduak gara. Zu eta biok. Pertsona garrantzitsua izan zara nire bizitzan eta oraindik ere bazara. Eta ni zurean. Ez egin senide urrunak edo ezezagunak bagina bezala. Ez daukazu eskubiderik. Ez jada.

-Zu eta biok ez gara senideak.

-Adele, mesedez, nahikoa da! Siberian ezagutu zintudan, bertan ezagutu genuen elkar. Izeko Lara naiz, nahiz eta gurasoen arreba ez izan. Zure benetako izekoek, odolekoek, ez zaituzte ni bezain ondo ezagutzen. Ez etorri niri hortaz horrelako txotxolokeriekin. Zure gelan egin duzu lo! Ikusten? Zurea den gela bat daukazu etxe honetan... Senideak ez garela aurpegira botatzeko bezain odol hotza eduki dezakezu? Noiz eta gaur? Tira, gau gatazkatsua izan dugu biok, ez genuke eztabaida ganoragabe honekin jarraitu beharko. Ez dakit jarrera absurdu horrekin zer espero duzun lortzea, baina inora ez garamatzala uste dut nik. Hobe hemen gelditzea eta lo kuluxkatxo bat hartzen badugu.

4

Hala da, zentral termikoarekin batera iritsi nintzen ni herrira. Ez nintzen horretan oso orijinala izan, beste ehunka, milaka pertsona ere garai berean eta arrazoi berberetatik heldu baitziren. Baina bakarrik, laguntzarik gabe iritsi zen emakumezko bakarra bai izan nintzela. Zentralean edo haren inguruan edo haren ondorioz sortutako negozioetan lan egitera gizonezko asko etorri zen, bakarrik haietako batzuk eta sendiarekin beste asko, bikotearekin edota seme-alabekin ere. Garai hartan heldutako emakumezko guztiak, ostera, lagunduta etorri ziren, ezkontuta hain zuzen ere, egia osoa esate aldera. Ni neuk ez ezik, beste andre etorkin guztiek, gazteenek ere, nire adinekoek ere, ezkontza eratzun bat zekarten eta senarraren besotik helduta zetozen, senarra baitzen zentralean –edo inguruan- lan egingo zuena eta garai hartan oraindik ez baitzen begi onez onartzen bikote bat ezkondu gabe elkarrekin bizitzera joatea. Urteen joanean, baina handik gutxira hasita, haietako askok orduan onartu berria zen dibortzioaren legeaz baliatuko ziren, behar bezala hausnartu ez zituzten ezkontzeko erabaki okerre konponbide bat bilatzeko, baina hori beste istorio bat da eta ez gara horretaz ari orain. Hortaz, hainbeste etorkinen artean nahastuta ere, kasu bakana zen nirea eta gauza jakina da kasu bakanek, ezberdinek, bereziek, zenbateraino kitzikatzen duten jakin mina eta irudimena.

Frankismoko desarrollismoaren garaian hartutako erabakien seme -edo alaba- zen zentral haren eraikuntzak eta martxan jartzeak izugarritzko susperraldia ekarri zien herri txiki honen ekonomia eta demografiari. Esan bezala, hona etorri aurretik deus ere ez nekien nik herri honi buruz, izena ezta ere, baina behin hona iritsita, bertan jaiotakoak ezagutu nituenean, nekazarien herri bat zela hau kontatu zidaten –Inmak eta Alexek batez ere-, Madrilén norbaitek hemen zentral termiko bat eraikitzeko erabakia hartu baino lehen. Aurretik, herriko jendeak nekazaritzan lan egiten zuen; zekaleak ekoizten zituzten bertokoek, garia, garagarra. Nahikoak ziren bertan jaiotakoen besoak uzta erein, zaindu eta biltzeko. Nahikoak eta soberakoak ere. Gari landen ortzi mugatik harago zerbait ote zegoen deskubritzeko, gazteek herritik kanpora joan behar zuten bestelako lanen baten bila, Madrilera, Suitzara. Migrazio fluxuei emigranteak ekartzen zizkien herriak, betidanik, azken hogeita hamar edo berrogei urteetan behintzat. Alexek, gai honen inguruan hitz egin zidanean, berak ere txikitandik, lurra erein eta landatzeaz ezberdina zen etorkizun bat bilatu nahi bazuen, herria utzi beharrean aurkituko zela uste zuela esan zidan; eta zentralagatik izan ez balitz, hori gertatuko zatekeela.

Korrontea aldatuko zen. Herriak ez zeukan presak eraikitzeko moduko ibairik ezta gainerako orografiarik, lautadan zegoen herria, lautadaren mugan baina lautadan azken finean. Eskualde

honetan, beraz, ezin ziren frankismoak hain gogoko izan zituen zentral hidroelektrikoak eraiki. Franco maiz agertzen zen NODOan urtegiak inauguratzen, baina behin ere ez inguru hauetan. Hala ere, frankismoaren azken urteetan lehen aldiz, Sustapen Ministerioan landutako Garapen Planetako batean herriaren izena agertu zen azkenik. Probintzia bakoitzak burujabe izateko adina energia ekoitzi beharko zuela erabaki bide zuen teknokrataren batek, eta probintzia hartan zentral hidroelektrikorik eraikitzeke modurik ez zegoenez, erregai fosilez elikatutako azken belaunaldiko zentral termiko bat eraikitzeke erabakia hartu zen. Elektra indarra sortzeko erregai fosilak xahutzea orduan ez zen egun ezaguna dugun hondamendia bezala ikusten. Zentral haren kokapenerako herriaren izena proposatu bide zuen norbaitek; iparraldeko hondartzetarako bidean, geltoki hartan trenez aldatu behar izan zuen norbaitek ziurrenik.

Horrela aldatu zen korrontearen norabidea eta herria migratzaileak igortzetik migratzaileak onartzera igaro zen. Beste nekazal herri batzuetako gazteentzako ortzi mugaren beste aldea bihurtu zen herri hau. Inmak eta Alexek –haiek batez ere- kontatu zidatenagatik, ortzi mugaz harago gauza handiegirik ez zegoela aurkitu zuten horrela bertokoez. Herritik emigratu zutenek herrira itzulitakoan kontatzen zituzten istorioak handituak, puztuak, zeudela aurkitu zuten. Luzaroan, urte askotan, holakorik susmatua zeukaten. Ortz mugaren beste aldean ez dago beirazko hiririk, ez dago neurritz kanpoko oparotasun edo jakituririk. Herrixka hantuste bat baino besterik ez da ortzi mugaren bestaldean ezkututzen dena. Zergatik asmatzen zituzten halako gezurrak herritik joandakoek? Burua zuritzeko, porrota ezkutatzeko? Edo herrian gelditu zirenen kezkek lasaitzeko baino besterik ez? Edonola, aurkikuntza honek herrikoen harrotasuna hauspotu zuen eta denbora asko joango zen horrek suposatzen zuenaz jabetu baino lehen: harrokeria hura emigrante gezurtiena bezain hutsala zela. Ezin bestela izan, sentimendu bat bera baitzen. Urteak joan dira, bai, hainbeste urte ezen egun ere bertoko asko ez dela jabetu oraindik bere harrokeria lotsagarriaz.

Ez nago oso ziur zergatik ari naizen guzti hau orain kontatzen, baina orain dela hogeita bost edo hogeita hamar urteko mundua beste mundu oso ezberdin bat zela argi utzi beharra dagoela ematen dit, jende guztiak ez dakielako. Gazteenek ez, jakina, bizi ez zutelako eta fikzioa balitz bezala begiratzen diotelako iragan horri, kondaira edo elezaharra balitz bezala, baina ez haiek bakarrik, bizi zuten gazteek ere ez dute gogoratzen, eta nire adineko jendeak eta ni baino are zaharrago diren askok ere ahaztu dutela ematen du –ahaztea komeniko zitzaizen agian-. Ni ere ez naiz horren zahar, gazteegi naiz holako burutazio eta iruzkinetan ibiltzeko. Tira.

Zentrala eraikitzen ari zen bitartean, jada, etorkinen lehen isuria iritsi zen herrira, eta behin zentrala amaituta egon ondoren bigarren oldea heldu zen, herriak ezin baitzuen, jakina, nahikoa ingeniari eta bestelako teknikariez zentrala hornitu.

Bigarren olatu hark ekarri ninduen. Madriletik nentorren eta nabarituko zitzaidala uste nuen. Ez nintzen desarrollismoak puztutako nekazal herri batean jaioa. Edo bai? Ez al zen horixe bera Madril, Mantxako herri hipertrofiatu bat? Garai hartan Madril gobernua zegoen lekua zen, telebista eta hedabideak, ministerioak eta unibertsitateak, idazleak eta kabaretak zeuden lekua. Gauzak, gauza guztiak, edozer egiten zen lekua zen Madril. Zentrala bera ere bertan jaioa zen. Eta bertatik nentorren ni, Lara, zentraleko emakumezko ingeniari tekniko bakarra.

Jende berri ugari zegoen herrian, azentu anitzez bete ziren dendak eta plazak, neska gazte bat pertsona ezezagun heldu berri haien guztien artean oharkabean ibiltzeko moduan. Baina ez, dirudienez bereziegia zen nire kasua gainerako beste ehunka edo milaka etorkinen artean ez nabarmentzeko. Jendearen begiradetan orduan igartzen nuenagatik, eta geroago Inmak baieztatuko zidanez, susmoak, susmo txarrak, eragiten zituzten nire nondik norakoek: Zer galdu zitzaion neska gazte –eder- madrildar bati garatu gabeko herri hartan? Eta peritua gainera!

Lehenengo asteetan pentsio batean gela bat hartu nuen, Madrildik telefono bidez erreserbatu nuena. Pentsioko beste apopilo guztiak zentrolean lan egitera etorritako gazteak ziren ere, baina mutilak. Ostalariak, andre alargun zahar batek –ez zen horren zahar izango, ziurrenik nik orain dudan adina izango zuen, baina nik orduan atso bat bezala ikusten nuen-, ama edo amama banu bezala zaindu ninduen. Nire bertutea, edo horrelakoren bat, inguruko harrapari haien guztien atzaparretatik babestu behar zuela sentitzen zuen, nik holakorik ezta antzekorik ere eskatu ez nion arren. Esango nuke nik ez niola iradoki bertutetsua izateko intentziorik ote neukan edo ez, baina berak ziurtzat jo zuen nire jatorri eta itxurako neska batek babesia behar zuela zuriz jantzita aldarera heldu ahal izateko.

Barregarriena ez da hori gainera, nire ostatu kide gaixoak ez zitzaizkidala inoiz intentzio lizunekin hurbildu baizik. Imintziorik ere ez. Haietako batek ere ez. Emaztegaia herrira ekartzeko eta harekin ezkontzeko diru nahikoa aurrezteak zen haien ardura bakarra, itxuraz bederen. Agian erakartzen ez nituela esan beharko nuke, baina ziur nago ez zela hori gertatzen zitzaiena: aipatu dudan nire berezitasunak, nire bakantasunak, haiek ere nolabait kikilduko zituen. Neska gazte xalo bat nintzen –eta ederra nintzen, bai, zergatik ez dut onartuko-, bakarrik nengoen, aita baten edo nobio baten babesik gabe; itxuraz donjuan baten biktima aproposa nintzen, baina nire lankide izango ziren gazte haiek ez ziren nigana hurbiltzen ere ausartzen. Madrildarra

izateagatik, peritua izateagatik? Nire abizenagatik ote? Edo idunetik zintzilik neraman Almudenako Ama Birjinaren urrezko domina lodi harengatik –nonbait gordeta daukat oraindik-? Horiek guztiek eragingo zuten, suposatzen dut, baina pentsioan matxismorik ez nuela pairatu esan beharra daukat. Nik, orduan, giro hartan, matxismorik sufritu ez nuenez garai eta gizarte hartan matxismorik ez zegoela ez dut inondik inora aditzera eman nahi, erabat, guztiz, alderantzizkoa baizik: gizonezkoen inguratuta bizi arren, egun eraso matxista deitzen duguna eta orduan portaera normalizat hartzen zena nik jasan ez izana, orduan bizi nuen egoeraren bakantasunaren beste adibide bat dela esan nahi dut. Ez zen kasu arrunta nirea.

Handik aste gutxi batzuetara, eta pentsioko andre ostalariaren bitartekaritzarekin, pisu bat alokatu nuen herrian. Bizilagun berrien olde hari sabai bat eman ahal izateko, etxebizitzaren eraikuntza borborrean zegoen herrian, garabiak nonahi altxatzen ziren; baina ez zen pisu berri horietako bat alokatu nuena, hogeita piku urte lehenago eraikitako bat baizik, hiru solairu eta solairu bakoitzeko bi eskuko eraikin batean, igogailurik gabekoa. Aurrerago, oraindik arrotz nuen herri hartan eta jende ezezagun haien artean sustraiak botatzen banituen, agian pisu berri haietako bat erostera ausartuko nintzen. Orduan, momentuz, alokairuaren behin-behinekotasuna nahiago nuen.

Herrian eta zentrolean jaso nuen harreraz ari nintzen, edo horixe zein behintzat azaldu nahi nuena, baina oroimenak, lanean jartzen dugunean, irudi eta egoera xeble ahaztuak berpizten ditu eta ezusteko bihurtzetatik desbideratzen da. Beste garaiak zirela nioen edo esan nahi nuen, halako esapide herdoildu eta higatu bat erabiltzeak lotsa ematen badit ere. Bizi izan ez zituenak gogoan izan behar du beste garai batzuk zirela, egungoetatik arras ezberdinak. Parisko Maiatza igarota zen, aspaldian. Igarota zen ere Sexu Iraultza izenarekin ezagutu zena –laburbilduz, emakumeentzako pilula antikonzeptiboen normalizazioa-. María José Cantudok alua erakutsia zuen pelikula batean eta dibortzioa legezatu berri zen. Baina Francok urte eskasak zeramatzen hilik, abortua oraindik delitua zen eta gerra osteko ohitura askok –gehiegik- oraindik ongi errotuta zirauen. Emakume peritu bat, ezkongabea gainera, animalia mitologiko bat zen, bitxikeria bat, ahizpa siamdar bikote baten antzeko zerbait. Hamarkada batzuk geroago iritsiko ziren migratzaileekin gertatuko zen bezala –larruazal kolore ezberdineko migratzaileez ari naiz-, ezberdintasun horrek, ezohikotasun horrek jendearengan beldurra eta amorrua eragingo zituela espero behar izan nuen; baina ez, gazteegia edota inozoegia nintzen holako sentimendu itsusiak eragiteko gauza nintzela susmatzeko ere. Baina, berehala ohartu ez nintzen arren, horixe zen gertatu zena: jendeak migratzaile ezberdina, ni alegia, gorrotatu zuen, nahiz eta hari buruz –niri buruz- deus ez jakin.

Momentuan, esan dudanez, herritarrengan eta gainerako etorkinengan –emakumeengan ere, edo haiengan batez ere- eragiten nuen tukuaz ez nintzen jabetu. Bai igartzen nuela nolabaiteko lehortasuna eguneroko tratuan, dendetan, lanean, edo kaletik lankideren batekin gurutzatzen nintzenean. Inork ez zuen irribarrerik egiten ni agurtzean edo nire galderaren bati erantzutean, eta nekez begiratzen zidaten begietara ezinbesteko bi esaldi gurutzatzen genituenean; baina herriko edo eskualdeko usadioa izango zela suposatzen nuen, eta nor nintzen ni ezagutzen ez nuena epaitzeko. Aranek ohartu ninduen iparraldeko jendea ez zela Madrilekoa bezain irekia, eta beste norbaiti ere antzeko zerbait entzun nion. Hori izan behar zen guztia, ohitura ezberdinak baino besterik ez.

Baina Inmarekin konfiantza hartu nuenean, hau da, Inma ezagutu nuen egunean bertan, nire inguruan zabaltzen ziren esamesa eta zurrumurruez hitz egin zidan. Barre egiten zuen Inmak astakeria haiek kontatzen zituen bitartean, bere bizilagunen irudimen aldrebesa barregarria balitz bezala. Nik une hartan ezin nuen barrerik egin, zurrumurru zentzugabe haien protagonista nintzela jakiteak zeharo harritu eta tristatu ninduelako, baina Inmak lasai egoteko eta jaramonik ez egiteko errepikatzen zidan. Burmuin izpi bat zeukan inork ezin zituela esamesa xeble haiek seriotan sinetsi esan zidan Inmak barrez, nahiz eta berak ere orduan, gainerakoek bezala, nitaz ezer ez zekien.

-Entzungo zenituen zutaz esaten dituztenak –esan zidan elkarrekin zinera joateko geratu ginen lehenengo aldian-. Horiexek bai direla gidoilari baten lana!

Herriko jendeaz hitz egiten ari zitzaidan, ezagutu nuen jendeari buruzko xehetasunak kontatzen zizkidan, nahitaez ezagutuko nituenei buruzkoak ere, eta herriaren beraren izaerari buruzkoak. Herria txikia izanik, ezer gertatzen ez zen leku bat, jendeak gertaerak asmatu behar zituela kontatzen zidan Inmak, euren egunerokotasun aspergarriari perrexil apur bat gaineratze arren. Eta asmakizun txoroenak kontatzen ari zitzaidanean, bioi barre algara eragin zigun bat bukatutakoan, bota zidan nire inguruko zurrumurruei buruzkoa. Ez nituen ezagutzen, jakina. Nola ezagutuko nituen, ez banuen herriko inorekin hitzik gurutzatzen! Herriko bizilagunek nekez “egun on” baino besterik esaten ez bazidaten!

-Bada, susmoak sortu dituzu. Bazterrak nahasten dabilta herriko nonzeberri guztiak ea zu nor zaren asmatu nahian eta zer dela eta etorri behar izan zaren inork ezagutzen ez zaituen herri honetaraino. Zerk (edo nork) bultzatu zaituen honaino; zeren (edo noren) ihesean zabiltzan; zeren bila etorri zaren... Horiexek dira, antza, gauez loa lapurtzen dieten galderak. Eta niri gehien gustatzen zaidana: Zergatik "kentzen" diozun lanpostua aita bati. Badakizu, zuk, zure

emakume ezkongaberen amarruekin eskuratu duzun peritu lanpostu hori, berez, hamaika seme-alaba gosez hilik dauzkan aita gaixo batentzat izan beharko luke. Emakumeok ez bagina etxeko sukaldetik irtengo, ez legoke langabeziarik. Ez dakit nola ez zaren lotsatzen, inork ezagutzen ez dituen, inork ikusi ez dituen haur gaixo horiei ogia lapurtzen...

Barreka kontatzen zidan Inmak hau, baina niri barrea moztu zitzaidan. Beharko lukeena baino gehiago kezkatzen ninduen orduan jendearen iritziak, dirudienez. Inmak, berriz, barre egin nezan ahalegintzen zen:

-Zerbait ezkututzen duzula sinesten du mundu guztiak inguru hauetan, kafea jarri digun zerbitzari horrek ere. Aitorrezineko sekretu lotsagarriren bat eduki behar duzu. Emakume ezkongabe ezezagun batek ezin du ezer onik ekarri hau bezalako herri batera. Orain arte herrian ezagutu dugun emakume ezkongabe bakarra, urtetan, apaizaren maitalea izan da, herrian jaiotakoa eta dagoeneko soberan onartua daukaguna, inora ihes egiteko beharrik izan ez duena. Hortaz, zu bezalako beste emakume gazte ezkongabe eta ezezagun batek, honaino ihesean etorri behar izateko, apaiz maitale bat baino zerbait askoz gogorragoa ezkutatu behar du.

Ez nituen Inmaren aldarte eta umore onak zapuztu nahi, zurrumurru ganoragabe haiek barregarriak zirela aditzera eman nahi nuen, baina ezin.

-Lasai –jarraitu zuen Inmak-, ez zaitetz kezkatu. Beldurgarriak garela eman dezake, baina ez gara inori kalterik egiteko kapazak. Herri honetan urtetan gertatu den gauzarik interesgarriena izan da zure etorrera eta hortik jakin mina. Hemen ez da ezer gertatzen sekula eta jendea asko aspertzen da. Eta istorioak asmatzen ditu ez aspertzeko. Herri txikiotako gauzak, badakizu.

-Herri txikiotakoak, bai zera! Madril, ustezko hiri handia, hiriburua, horrelakoetan berdina da. Ez naute harritzen horrelako esamesa memeloek, nire auzoan antzekoak mila bider entzun ditut eta. Ezustean harrapatu naute, beharbada, baina ez naute kezkatuko, lasai.

Inma nola ezagutu nuen ez badut oraindik kontatu, ez dakit zertan ari naizen hark azaldutako zurrumurruren kontuaz ari. Nahasten ari naiz. Ea gauzak hurrenez hurren eta behar bezala kontatzea lortzen dudan.

Nire gaineko susmoena ezustean harrapatu ninduela esan nion Inmari, baina ez zen egia, holako zerbait usnatzen nuen. Nola ez nuen usnatuko ba? Jendeak ez ninduen agurtzen, ez zidaten begietara begiratzen, inork ez zuen nirekin hitz egiten... arazoren bat zeukaten nirekin. Begietara ez, baina herriko begi guztiak, bai bertokoenak eta baita etorkinenak ere, nire gainean igartzen nituen nire mugimendu guztiak zelatatzen. Inork ez ninduen begi onez ikusten,

agerikoa zen, lanean, herriko dendan, mezatan. Beste inon ez, besterik ez bainuen egiten: etxetik lanera eta lanetik etxera, eta igandeetan mezatarara. Jendea ezagutzen nindoan, halabeharrez, lanean, dendan, mezatan, eta ezagun haiek kaletik ikusi eta agurtzen nituenean haien erantzunaren lehortasuna nabarmena zen, esanguratsua, batez ere lankideren bat zenean, emaztea besotik helduta zeramana.

Giro pozoitu hura jasangaitz gertatuko zitzaion beste norbaiti, ia beste edonori. Beste norbaiti, nire orduko egoeran, arnas egitea ere zaila suertatuko zitzaion. Niri, ordea, atsegina zela esango ez dudan arren, ez zitzaidan gehiegi axola. Tokiko usadioak zirela uste nuen, beste barik, eta ohituko nintzela, ohitu beharko nintzela. Bizitza berri bat –nire bizitza- eraikitzeke hautatu nuen lekua zen hura, eta bertako jendeen portaeretara ohitu arte denbora beharko nuela uste nuen. Ez nion garrantzi gehiagorik ematen.

Nire jarrera honek, orain pentsatuta, herriko jendearen susmo txarrak hauspotuko zituen, ziur. Tratu hotz eta susmo txarreko haien erdian, ez zuen ematen ni gustura ez nengoenik. Bizilagunek ez ninduten lotsatuta, ezkutatuta, kezkatuta edo negarrez ikusten, beti lasai eta seguru baizik, eta horrek zerbait esan nahi behar zuen. Giro oldarkor, desatsegin haren erdian ere, herrian jarraitzea nahiago nuen, zirudienez. Nola izan zitekeen horrelakorik? Zer utzi ote nuen atzean herri txiki hartako infernu handia gogokoa izateko? Infernuan gustura zaudenean, nondik zatoz? Zertatik, norengandik ari nintzen ihesean?

Nire portaerak, edonola, ez zion inori nire aurkako gorrotoa eta arbuioa justifikatzeko aitzakiarik ematen. Ez nuen inoren susmo txarrak baieztatuko zituen jokaera itsusirik erakutsi, ez nuen inor harritu edo asaldatuko zuen ezer egin, ez nuen hankarik sartu. Ez nintzen herriko tabernetan mozkortzen –nola mozkortuko nintzen, kafe hartzen baino besterik ez banintzen tabernetan sartzen!- eta lanean ez nituen ezkonduetako gizonak limurtzen. Horrelako zerbait izan behar zen guztiek –edo behintzat esamesak sortzen dituzten horiek, inkontziente kolektiboa deritzon horrek- espero zutena, ni ileetatik arrastaka eramateko, edo nire izena behintzat.

Etxetik lanera eta lanetik etxera baino beste biderik ez nuen egiten, eta igandetan mezatarara. Ez nintzen tabernetatik azaltzen, ez lanaren ostean ezta asteburuetan ere. Herriko zine bakarrera joaten nintzen, hori bai, igande arratsaldeetan. Merkatura. Besterik ez. Baina hau guztia ez nuen irudi aratz bat eraikitzeke egiten. Ez nintzen tentuz edo arretaz aritzen hitzontzien jomugan ez egoteko, berez irteten zitzaidan jokabidea zen hura nire bizitzako une hartan. Bizimodu berri bat hastea erabaki nuen, lanean hasi, herri ezezagun txiki batean, bizilagun ezezagunez inguratuta, eta ingurumen berri hartara girotu behar nuen. Ez neukan bestelako interesik garai hartan.

Lanera joan, lanetik itzuli, nire alokatutako pisu berria nire etxebizitza bihurtu eta lasai egon. Nahikoa zen.

Ez zuen betirako iraungo errutina aspergarri hark eta, herrian gutxi gorabehera finkatuta nengoela sentitu nuenean, zeregin berriak bilatu behar nituela erabaki nuen. Parrokiara hurbildu nintzen astelehen arratsalde batez, herriko neska-mutilei katekesia eman eta parrokiaren bestelako ekimenetan parte hartu nahi nuela jakinarazteko. Mojen ikastetxe batean ikasitakoa nintzela azaldu nion parrokoari, katekista izateko prestatuta nengoela eta eskarmentua ere baneukala nire Madrilgo parrokian. Parrokiako Kontseiluan nire eskaintza onartu zuten. Apaizak, parrokoak, onartu zuen, eta enparauek ez zuten inolako eragozpenik jarri. Garai hartan apaizarenaren aurkako iritzi bat gaizki ikusia egongo zen.

Eta parrokiarekin lanean hasi nintzen.

Orduan ezagutu nituen herriko lehen emakumeak. Ikusiak nituen haietako asko lehenago, noski, mezatan, merkatuan, lankideetako baten besotik helduta -inoiz aurkeztu ez zizkidaten arren-. Orduan egin nituen lehen lagunak herriko emakumeen artean. Egia esan, lagun laguna bakarra egin nuen: Inma. Eta egundaino.

Katekesia ematen hasi nintzen egunean –sei urteko taldea esleitu zidaten-, katekesi saioa amaitzean eta umeek alde egin ondoren, kalerako atean nengoela hurbildu zitzaidan eta kafe bat hartzeko esan zidan. Nola esango nion ezetz! Nire adineko neska batekin solas egiteko irrikan nengoen! Gizonezkoekin hitz egiteaz, lanean edo ostatuan lehenago, ahituta nengoen. Lanean neska gazte gutxi batzuk zeuden, bai, baina ez genuen elkarrekin tratatu handirik. Egun, gogoratzen dudanean, ez dut ulertzen zergatik laneko neskaren batekin ere ez ginen lagunak egin, Inma katekesian ezagutu baino lehen. Beldurtzen nituen ala, neska peritu bakarra nintzelako? Edo agian haien gurasoek niregana ez hurbiltzeko ohartarazten zituzten, ohitura gaiztoren bat ez ote nien erakutsiko, edo kutsatuko. Ez dakit zer gertatu zen baina, Inma ezagutu arte, Aranekin telefonoz neuzkan solasak izan ziren nire adineko neska batekin izan nituen bakarrak.

Herrian jaiotakoa zen Inma, erizaina zen eta herriko anbulatorioan lan egiten zuen. Nire adinaren ingurukoa zen, esan dudanez, hogeita gutxi orduan. Eta katekesia ematen zuen parrokian. Halaxe kontatu zidan lehenbiziko kafe hartan. Bere buruaz hitz egin zuen Inmak, bere nondik norakoez, gurasoekin bizi zela, herriko neska lagunek, guztiek, nobio zeukatela eta geroz eta gutxiago irteten zirela taldean, bakoitza bere nobioarekin, eta bera apur bat zokoratuta sentitzen zela. Nobioa bilatzeko presarik ez zeukala esan zidan Inmak, bere lagunak lasterketa

batean ari balira bezala bilatu zituztela nobioak eta, kopetaraino maiteminduta zeudela ziurtatzen zuten arren, nobioak ehizaki bat bezala erakusten zituztela eta maitasunik gabeko matrimonio batean amaituko zutela denek. Horrelakoa izan zen gure lehen solasaren tenorea. Eta beti eskertuko niona: Inmak ez zidan niri buruzko galderarik egin, ez zidan nire jatorri, zio edo xedeen inguruan itaundu, ez zen informaziorik erauzten saiatu. Entzuteko prest zegoela aditzera eman zidan, hitz egiteko gogoia nuen unerako. Eta une hori sekula iristen ez bazen, bost axola, bera bertan zegoela modu berean, eta nahikoa zeukala berak biengatik mintzatzeko. Ez zuen horrela esan, jakina, baina hori sentiarazi zidan, elkar ezagutu genuen egunetik.

-Larunbatean zer egin behar duzu? –galdetu zidan.- Dantzaleku pare bat dauzkagu herrian, ez dira beste munduko gauzarik, baina txolartetxo atsegin bat pasatzeko oso ondo daude. Berriagoa eta modernoagoa da bata eta urte batzuk badauzka besteak, eta ez du zabaldu zuten egunetik musika aldatu. Gu bietara joaten gara larunbatetan, gehienetan. Beste zereginik ez badaukazu etor beharko zenuke.

Ez nion gonbidapena onartu. Ez dut gogoratzen aitzakiaren bat jarri ote nuen edo zuzenean garai hartan etxetik irteteko inolako gogorik ez neukala esan ote nion. Orain, gogoratzen dudanean, nire orduko Larari plastada bat emango nion, hain heziketa txarreko mespretxuagatik. Hiriburuko dantzaleku moderno eta dotoreak ezagutzen dituen eta herri bateko dantza-zuloetara sartzeko prest ez dagoen neska madrildar harro, hantuste, bat bezala jokatu nuen, nire kasua horrelako ezer ez izan arren. Orduan ez nintzen ohartzen baina irudi hori izan behar zen zabaltzen ari nintzena. Nire arreta falta, burua beste nonbait edukitzea, erdeinu edo gutxiespen bezala ikus zitezkeen. Begiratzen ninduten kopetilunak eta jasotzen nituen agur lehorrak merezi nituen, agian. Baina Inmak ez zuen destainarik sumatu, edo ez zuen horren imintziorik egin, eta beste noizbait izango zela esan zidan beste barik.

Mezatan ikusi genuen elkar aste bereko igandean eta, irteeran, arratsaldean zinera joango zela esan zidan, ea berarekin joango ote nintzen. Baietz esan nion, nola ez, nik ere joateko asmoa banuen-eta, berak proposatu baino lehen ere.

Gogora dakartzadan oroimen hauek guztiek Carmen Martín Gaiteren “Entre visillos”-etik ateratakoak dirudite, orain jabetzen naiz, baina hura ez zen berrogeiko hamarkada, laurogeikoaren hasiera baizik. Jendearen bizitza eta bizimodua, hiriburuetan zein herri txikietan, ez zen orduko nirearen antzekoa, are gutxiago jende gaztearena, neska zein mutilena. Nik garai hartan neraman moja bizimodua ez zen ezeren edo inoren adierazgarri, bitxikeria bat zen orduan jada. Elizak egun baino beteagoak bazeuden ere, jende guztia ez zen mezatara joaten,

ezta urrundik ere. Neska gazte guztiak ez ziren katekista, Inma eta biok bezala; freakyen gauza zen katekista izatea orduan jada, freaky hitza orduan erabili bagenu. Sexu iraultza aspaldian gertatua zen, esan dudanez; emakumeek, ni bezalako emakume gazteek, pilula antikontzeptiboak hartzen zituzten eta jendeak ezkontza aurreko eta ezkontzatik kanpoko sexu harremanak zeuzkan. Eta drogak ere bazeuden. Barra-barra. Hiriburuetan zein herri txikietan. Orduko drogen arazoa zein neurrikoa zen azaldu beharra daukat? Benetan?

Mojekin ikasitako, Madrilgo auzo “aberats” bateko, frankismo garaian entzutetsua izandako abizendun neska baten bizimodua, batez ere bizi bat hutsetik hasten saiatzen ari den unean, Martetik etorritako bitxikeria bat zen, laurogeiko hamarkadako lehen urte haietan ere. Inork ez dezala garaiko giro edota usadio orokorren eredu bat bezala interpretatu, arren.

“El lago azul” izan zen egun hartan ikusi genuen filma, halaxe, ordutik eta gaurdaino, diren jatorrikoak direla ere, herriko zinean pelikulak beti gaztelaniaz eman baitira. Oroimen izugarria daukadala eman dezake, baina inola ere ez. Hurrengo hilabete eta urtetan beste hamaika, ehunka, pelikula ikusiko genituen herriko zinean eta, noski, ezingo nuke esan noiz ikusi genuen bakoitza edo zein ikusi genuen lehenago eta zein beranduago. Lehenbizikoa, ordea, erraza da gogoratzen. Badakizue, “El lago azul”, bi haur txiki, neskatila bat eta mutiltxo bat, irla batean naufragoa daude eta, nerabegarora iristen direnean, inoren irakaskuntzarik gabe, elkarrekin sexu harremanak izaten ikasten dute, giza instintu bat delako sexua edo holako zerbait. Egun iritzi kontrajarriak eragiten ditu –edo eragingo lituzke, norbaitek hari buruz hitz egingo balu-, alde batetik gaur inozoak diruditelako sexua pelikula batean edonola sartzeko orduan bilatzen ziren aitzakiek, baina bestetik ez da jada begi onez ikusten filmean agertzen den adingabeen gehiegizko sexualizazioa. Orduan eskandaluzkoa izan zela nolabait esan genezake. Nola demontre konpontzen zen hamabost urteko Brooke Shields bularrak uneoro matzarekin estalita izateko, da nik gehien gogoratzen dudana.

Inmaren adiskideak ere joan ziren zinera egun hartan, Marisa eta Elena, eta orduan aurkeztu zizkidan Inmak, baina bakoitza bere nobioarekin. Hortaz, zinetik irtendakoan, euren kasa joan ziren haiek eta geurera Inma eta biok. Herriko kafetegi batean sartu ginen eta orduan izan zen, barreka, herrikideek nire inguruan esaten ari zirenak kontatu zizkidan unea.

Inmarekin kafeak, paseoak, solasak, ohitura bihurtu ziren, egunerokotasuna, lanera edo merkatura joatea bezala. Adin horretako neskek hitz egiten dituzten gauzez mintzatzen ginen, edo gu bezalako erdi moja eta erdi neskazahar itxurako neska gazte aspergarriek hitz egiten

dituzten gauzez: lanaz, lagunez, familiaz... Familiaz berak, Inmak, hitz egiten zuen, nirea gai interesgarria ez zela sinesten bainuen.

Eta nire inguruko zurrumurruen eguneraketez ere informatzen ninduen Inmak. Zeren, zurrumurru eta esamesek jarraitu zuten, nahiz eta denboraren joanarekin, bizilagunek ezagutuko ninduten heinean, desagertuz joango zirela sinesten nuen nik. Nire bizimodua, nire jokabidea, esan dudanez, ez zen makulurik gabekoa ikuspegi burges eta kontserbadore batentzat soilik: monje kartusiar bat asperkeriaz hiltzeko modukoa ere bazen! Bada, ez. Esamesak lodituz joan ziren, antza. Ni plaza erdian erretzeko motiboren baten bila zebiltzan eta nik ez nien horrelako ezer eskaintzen. Eta horrek, izpirituak baretu orde, amorrua areagotzen zuen. Inkontziente kolektiboaren irudimen oparoa ez nuen gutxietsi behar. Elur pilota bat bezala gizenduz zihoazen zurrumurruak. Eta haietako bat ere ez zen onerako!

-Zurea ez dela andre gazte batentzako bizimodua diote –kontatzen zidan Inmak, galdetzen nionean, eta orduan jada ez zion barregarrik eragiten-. Zu bezalako emakume gazte batek bere gizarte mailako senar bat aurkitu behar duela. Zerbait ezkututzen duzunaren susmoak hor dirau. Ezer ezkutatuko ez bazenu, ez zeneukala zure herrian senar bat aurkitzeko arazorik. Agidanez, Madril herri bat da, eta nobiorik gabeko emakumeok susmagarriak gara.

Pazifiko ozeanoan bada irla berezi bat, lurbirako gainerako irla guztietatik ezberdina, zeharo ezberdina, egunero etenik gabe handituz doana, noizbait Australiaren tamaina izatera irits daitekeena. Zaborrez eraikitako irla bat da, gizakiok zaborrontzira botatzen ditugun hondakinez elikatzen eta gizentzen dena. Gure ohiturek, gure zibilizazioak, elikatzen du irla bizi hau, zaborrez loditutako munstro erraldoi hau.

Ozeano Barearen iparraldean, bertako itsas korronteek bilduta.

Jendeak zaborra jaurtitzen du eta itsasoko urak munstroa loditzen du.

Antzeko prozesu beldurgarri bat jarraituz, hasierako esamesa ganoragabe haiek munstro ikaragarri bat bihurtu ziren. Jendeak zabor puska nazkagarriak jaurtitzen zituen, bakoitzak bere irudimen eta saminaren neurrian, baina guztiek egiten zuten euren ekarpena, batzuek gehiago, beste batzuek emeki, ausardiaz beste batzuek.

-Poliziarengandik ihesi zabiltzala heldu zait, gaizkile bat izan behar duzula, eta batek dakiela zure krimena zein ote den –Inmaren beste eguneraketa bat.

...

-Gizon ezkondu batekin maitemindu zinela, haurdun geratu eta abortatu behar izan zenuela.

...

-Zentralean ideologia iraultzailea zabaltzeko alderdi komunistak agindutako sator bat zarela da azkenekoa.

...

-Terrorista ezkutu bat.

...

-Politikari boteretsu baten eta aristokrata baten alaba sekretua.

Jendarteko harremanek esamesa hauek guztiak bildu eta sendotzen zituzten, zurruntzen, egituratzen, Moloch bat eraikiz. Baina beste edonoren pazientzia eta indarrez beste egingo zukeen hidra ikaragarri hark ez zuen nire aldartea zapuztea lortu.

Ene ama! Zabor irla, Moloch, hidra... Hau lotsa. Neurri honetan ahoa edo luma berotzen zaizkidanean norbaitek isilarazi edo geldiarazi beharko ninduke, hain irudi itsusi eta arranditsuak botatzen hasi baino lehen. Dena dela, egina dago bekatua dagoeneko eta ez dut ezabatzeko asmorik. Horrelako esapide hanpatuak asmatzeko gai den lumak ere nire burua nola dabilen islatzen du –lar ondo ez- eta, hortaz, zintzotasun eta gardentasun ariketa bat da haiek ez ezabatzea.

Zera adierazi nahi nuen: esamesa haiek guztiek ilusio egiten ez bazidaten eta haiek ezagutzean algaraka hasten ez banintzen ere, ez ninduten lur jota uzten ezta ere. Ez daukat nire burua pertsona bereziki indartsu edo gogortzat, baina garai hartan, Madrildik herrira iritsi eta hemen bizi nituen lehenbiziko urteetan, nahi nuena egiten ari nintzen –lehen aldiz agian-, nik, nik bakarrik, hartutako erabakien ondorio zen bizi nuen egoera, eta horrek nahiko asetzen eta indartzen ninduen. Une hartan, ezagutzen ez nituen pertsona batzuen iritziek ez ziren zoriontasunaren antzeko egoera hura hondatzeko gai izango.

Herriko bizilagun gehienek, edo gutxi batzuek soilik beharbada, giro jasanezin hark –beste edonorentzat jasanezina zatekeena, ez niretzat- menderatua ikusi nahiko ninduten, maletak egiten eta herritik ihesi. Baina ez zen horrelakorik gertatu, esan bezala ez pertsona bereziki indartsu nintzelako eta esfortzu berezi bat egin behar izan nuelako, alderantziz, herrian benetan gustura nengoelako baizik. Ez nuen ezertan nire errutina aldatu, etxetik lanera, lanetik etxera,

katekesira, zinera, merkatura. Eta denborarekin... Luma hanpatu eta gustu eskasekoari utz diezaiogun denborarekin zer gertatu zen konta dezala.

Denborarekin Moloch beldurgarriaren oinak ahulduz joan ziren, munstroak indarra galdu zuen. Deseginez joan zen, marea gora datorrenean hondarrezko gazteluak bezala. Haizeak jotzen duenean errauts pilo bat bezala.

Nik, Larak, bakarrik, Goliat izugarria menderatu nuen.

V

-Zergatik eman zenion su autokarabanari? –galdetu zion Larak Adeleri.

Lararen etxeko egongelan zeuden, sofan eserita. Telebista piztuta zegoen, baina batek ere ez zion aditzen. Elkarrekin bizitzeaz nekatuta edo aspertuta dagoen bikote bat bezala. Elkarri zer esanik ez daukan bikote baten antzera. Bikotekideak esan dezakeena bost axola zaion bikote bat bezala. Arratsaldeko ordutegia betetzeko erabiltzen dituzten saio merke horietako bat zegoen telebistan, baina Larak eta Adelek ez zioten inolako jaramonik egiten. Ez zioten telebistari jaramonik egiten, baina hari so zeuden bitartean ez zioten elkarri ezer esan behar.

Larak eman zuen isilaldia eteteko aurrera pausua.

-Zergatik eman zenion su autokarabanari?

Norbaitek atera behar zuen gaia, mahai gainean jarri.

-Zerbait aldatuko luke horrek? Benetako arrazoiak esan nahi dut. Atzeman naute eta kito.

-Adele, egin duzuna delitu bat da. Zu bizi zinen karabana kiskalita agertu da. Ezbehar bat izan zela uste genuen, mundu guztiak uste zuen. Zu haren barruan hilik aurkituko zintuztenaren beldurrez itzali zuten sua. Gertatutakoa gehiegi ikertu gabe ere, zuk zerorrek eman zeniola su aurkitu dute. Arrazoi bat egon behar da, jendeak ez dio bere etxebizitzari su ematen.

-Zoro nagoela esateak arrazoi bezala balio al du? Mundu guztiak sinetsiko luke. Ez al duzue hori beti sinetsi ala? Badakizu, Siberiatik etorritako neskatila, zoro edo mozkor baten alaba ziurrenik. Handik etorritakook akatsen bat edo beste omen daukagu beti.

-Adele, berriz diotsut, halako manipulazioek nirekin ez dizute balioko. Epaietan erabil ditzakezu nahi izanez gero, baina nirekin ez ibili txantxetan gero. Seriotan galdetu dizut nik: zergatik eman zenion su autokarabanari. Asegurua kobratu nahi al zenuen? Aseguru etxeari iruzur egin nahi zenion?

-Erantzun horrek balioko luke? Hori erantzungo banu, kargurik gabe aske utziko nindukete? Eta zuk? Nahikoa izango zenuke horrelako erantzun batekin?

-Epailearen aburuan hori beste delitu bat litzateke. Epaietan erabiltzea ez dizut gomendatzen, baldin egia ez bada. Eta niri ez zait ezertarako balio gezurra bada.

Batak besteari zuzenki hitz egiten zioten arren, ez zioten elkarri begietara begiratzen. Aurrera, telebistara, begiratzen zuten biek.

-Atentzinoa deitzeko egin nuen. Mundu guztiaren begiradak nire gainean nahi nituen. Nahi ditut. Mundu guztia nitaz ardura dadila nahi nuen. Nahi dut. Eta ez zitzaidan modu hobeagorik bururatu.

-Ironia sumatu dut, lasai. Baina holako zerbait badagoela ezin didazu ukatu. Gurasoak beldurtuta dauzkazu. Hilda zeundela, kiskalita, susmatu zuten, eta mundua behera erori zitzaien. Ikara ez zaie oraindik aldendu. Eta ziur nago holako zerbait espero zenuela. Baina hori ez da arrazoi nagusia. Beste arrazoiren bat zeneukan karabana erretzeko, eta bide batez gurasoei oroigarri bat bidaltzeko baliatu zenuen. Zuen gurasoek zure oroigarri behar balute bezala!

Isilik geratu ziren biak.

Denbora luzez.

Sofatik jaiki gabe.

-Heriotza simulatu behar nuen. Hil egin nintzela sinetsi behar zuen jendeak. Desagertu behar nuen.

6

Inmarekin irteten nintzen beti hasierako urte haietan, mutilen partetik elkarrekin irteteko gonbidapen gehiegirik ez bainuen jaso.

Ezkonduta zeuden nire lankide gehienak. Jakina, ezkondutako haiek ez ninduten irtetera gonbidatuko, edo egin balute ez zuketen ezezko erantzun bat soilik jasoko, itzelezko astindua botako nien ere. Ez naiz moralista, orduan ere ez nintzen, katekista eta horrelakoak izan arren, baina tamaina horretako azpijoko baten partaide izatera gonbidatua izatea ez nuen inondik inora onartu izango, eta ez nintzen isilduko. Baina zorionez ez zitzaidan horrelako proposamenik edo iradokizunik heldu. Horraino ulergarria zen ezkonduen jokaera, emazteenganako leialtasuna ohoragarria baita. Baina ez zer horretan gelditzen: zentraleko kafetegian elkarrekin kafe bat hartzera ezta ez ninduen gonbidatu haietako batek ere, edo lan ostean taldean zerbait hartzeko ere ez. Zentraleko korridoretan ezkondutako batekin gurutzatzen banintzen ez ninduen begietara begiratzen. Barregarria ematen du orain gogoratzean, baina orduan ez zen oso eroso. Beldurra zen halako portaera txoraa azal zezakeen arrazoi bakarra. Baina beldurra nori edo zeri? Niri? Edo haien emazteei? Esatera noana matxista kutsua izan dezake orain, baina orduan uste nuena zera zen: emazteek mehatxu bat bezala ikusten nindutela -nor eta ni!- eta nire aurka ohartarazi zituztela senarrak, eta lankideen emazteek ere euren artean elkarri ohartarazi ziotela. “Kontuz Lara horrekin, nobiorik ez daukan neska gazte, ezkongabe, iragan ezezaguneko horrekin”, edo antzeko zerbait.

Berriro diot laurogeiko hamarkadaren hasiera zela hura, ez berrogeikoa. Emakumeak lan munduan sartuta zeuden aspaldian, bai, baina ez mota guztietako lanpostuetan, ez sektore guztietan, eta asko ere asko ziren etxetik kanpo lan egiten ez zuten emakumeak. Mundua, herri txiki hau mundu osoaren adierazgarritzat har badaiteke, ez zegoen oraindik horrelako zerbaiterako prestatuta, antza; hots, gizonezko lantokitzat hartzen zen zentral termiko batean, gizonezkotzat hartzen zen peritu lanpostu batean emakume bat aurkitzeko. Inork ez zituen mutil eta gizon haiek prestatu, lanera joan eta bertan emakume bat aurkitzeko. Zer egin behar zuten, nola jokatu behar zuten holako egoera batean? Etxean geratzen ziren emazteak ezta ere ez zituen inork prestatu, eta ezin zuten susmo txarra aldendu. Zer egin zezaketen hainbeste ordutan batera euren senarrek eta emakume hark?

Laburbilduz, inor ez zegoen egia susmatzeko prestatuta: Nik ez nuen sekula, inolako baldintzetan ere, ezkondu eraztun bat zeraman gizonezko bat ukituko. Eraztuna ez zeramana

ukitzeko gogorik ezta ere ez neukan orduan, baina inor ez zen horren inguruan galdetzera ausartu.

Gizon ezkongabeak ere bazeuden zentrolean lanean, noski, baina haiengandik ezta adeitasun handirik ez nuen jasotzen. Uste dut lehenago ere aipatu dudala hau. Itsusia izango nintzen haien aburuan. Hori izan zitekeen, ziurrenik, arrazoi nagusia edo bakarra: nire lankideen gusturako ez nintzen neska erakargarria. Baina orduan bestelako arrazoiak bilatzen nituen, holako arrazoi iraingarri bat ez onartzearren. Nire harrotasunak ez zidan permititzen. Madrildarra nintzelako ez ziren nirekin ligatzera ausartzen. Hori zen nire buruari saldu nahi nion azalpen txoriburua. Zaplazteko baten falta neukan, argi dago. Baina bai, hiriburukoa nintzen, eta nolabait, nonbait, igartzen zitzaidan, eta horrek agian laneko eta herriko gizon ezkongabeak ikaritzen zituela sinetsi nahi nuen orduan. Zer zuten gustuko Madrilgo neskek? Nora “eraman” zitekeen neska madrildar bat? Zertaz hitz egin zezaketen nirekin? Zalantza gehiegi ziren, herriko mutil gazte ezkongabeen segurtasuna kolokan jartzen zituztenak, eta, gainbehera lotsagarri bat nozitzeko arriskuaren beldurrez, haietako batek ere ez zuen elkarrekin irtetera ni gonbidatzeko adorerik izan. Halakoak esaten nizkion nire buruari: bai, trenetik jaitsi nintzen unean baten batek zaplazteko bat eman balit, ez nuen hainbeste tentelkeriarik izango. Urteen joanean kendu zaidala sinistu nahiko nuke.

Ez zen berehala izan, hilabete batzuk pasa ziren zentrolean lanean hasi nintzenetik eta Inmarekin bakarrik irteten nintzela, baina haietako batek azkenean ausardia izan zuen-elkarrekin irteteko eskatzeari ausardia deitu ahal bazaio-. Alex zuen izena. Ingeniaria zen baina, zentrolean lan egiten zuten gainerako ingeniariak ez bezala, ez zen kanpotik etorritakoa, bertokoa, herrikoa baizik. Bakarra zen Alexen kasua ere, bakana, nirearen antzera.

Hasiera batetik, lehenengo lan egunetik, nirekin hitz egiteko eta elkarrekin lankideen arteko harreman bat izateko arazorik izan ez zuen bakarra izan zen Alex. Begietara begira hitz egiten zidan Alexek, gainerako lankideekin egiten zuen bezala. Hori bai, gainerako lankideekin, gizonezkoekin, erabiltzen zituen hitz eta esapide batzuk ez zituen ni aurrean nengoenean erabiltzen. Begirune berezi hura bazeukan. Garai hartan heziketa deitzen zitzaien. Baten batek galde lezake Alexek nik baino lan maila nagusiago bat izateak urreratze hartan lagundu ez ote zuen, eta ea Alex ingeniari teknikoa izan balitz, ni bezala, segurtasun berarekin urreratuko ote zitzaidan.

Lan mailak nolabaiteko segurtasuna emango zion Alexi nirekin hitz egiterakoan, begirunez aditu eta erantzun behar niola bazekielako, ados, baina modu berean jokatu zuen Alexek nik bere

mailako lanpostu bat izan banu, eta, hortaz, bere prestakuntza eta soldata berberak neuzkala jakin balu? Zalantzan jartzen zuen lankide askok hau –Alexen lan maila ez zeukatenek, jakina-, askoz beranduago jakingo nuenagatik, unean ez baitzidaten deus komentatzen. Baina justuak izatekotan, Alexen lan maila bera zeukaten beste ingeniari guztietatik batek ere ez zidala ez hitzik ezta begiradarik ere luzatzen, onartu beharko zuten.

Eta guztiok izan behar bagara zintzo, ni neu nire buruarekin ere –eta garai hartan inorekin zintzoa izateko aukerarik ez neukan, nire buruarekin ez bazen-, Alexen normaltasun hura, segurtasun hura, erronka bat bezala hartzen nuela onartu beharko nuke. Beste lankideen urduritasunak, herabetasunak, botere antzeko egoera batean jartzen ninduen. Ea behar bezala azaltzen dudan hau, gaizki ulerturik egon ez dadin. Garai hartan, laurogeiko hamarkadaren hasieran, gizonen ia erabat osatutako lantalde bateko emakume bakarrak taldean boterea eduki zezakeela iradokitzea izugarritzko txorakeria bat da, noski. Ez dago horrelakorik eztabaidatzerik ere. Gaur egun oraindik horrelako zerbait posible izatea utopia bat bada, pentsa nolako izango zen egoera orduan. Ospakizunetan, jantokiko zoko batean, nagusiak –gizonezkoak- eragotzi gabe euren kasa diberti daitezten, umeentzat antolatzen den mahaia banintz bezala sentitzen nintzen, nire tituluarekin, nire izendapenarekin eta guzti. Oraindik ere, joan zaizkigun urteekin, ezagutzen ditudan emakume langile gehienak horrela sentitzen dira lantokietan. Ez, ez nintzen boteredun irudia zentralerako gizonen begietara. Ez da hori esan nahi nuena. Baina, Alex ez ziren gainerako lankideekin, nirea baino maila nagusikoekin ere, elkarriketa bat izan behar banuen, egoeraren jabea nintzela sentitzen nuen. Haien nik baino askoz gehiago hausnartzen eta neurtzen zituztela haien hitzak sumatzen nuen; haien ni baino deserosoago sentitzen zirela egoerarekin. Eta horrek boteretsu sentiarazten ninduen, unetxo batez bederen. Ez dakit zein neurrian gizonen lankideen deserosotasun hura ni emakume izateak eragiten zuen, edo bestelako arrazoiren batek baldintzatzen zuen, hala nola, madrildarra izateak edo nire abizenak frankismo garaiko oihartzunak zekartzala. Lehenago ere zalantza hauek aipatu ditudala uste dut.

Alexekin, osteraz, ez zen halakorik gertatzen. Alexek ez zuen herabe edo urduri jokatzeko nirekin hitz egiten zuenean. Alexen gainean ez neukan boterarik. Eta izan nahiko nukeen. Neskatila nerabe baten jokaera heldugabea eman dezake orain kontatzen ari naizen honek, baina zintzoa izango nintzela esan dut, eta hori zen sentitzen nuena. Ez dakit hobeto azaltzen. Behar bezala uler dadila espero dut.

Antzeko egoerarik ez zitzaidan sekula suertatu -jakina, lehenago ez banuen inoiz lanik egin- eta antzeko sententziarik ez zitzaidan burutik edo sabeletik pasa inoiz. Barnean halakorik gordetzeak harrizten ninduen eta pixka bat lotsatu ere, horrela sentitzea egoki edo onargarri ezin zitekeela

izan susmatzen nuelako. Susmo horrek eta lotsa horrek inorekin ez komentatzera bultzatzen ninduten. Inori ez nion esan, ezta txantxa moduan ere, lankideekin zeinen “boteretsu” sentitzen nintzen eta nola Alexekin ere botere sentsazio hura sentitu nahi nuela, hark jartzen zizkidan segurtasun oztopen gainetik. Arani ere ez nion ezer esan, telefonoz ez nuelako jakingo nola adierazi, nola azaldu. Zorutzen ari nintzela pentsatuko zuen Aranek, larrituko zatekeen eta agian gurasoei nire bila etortzeko eskatuko zien. Auskalo. Baina Inmari, orduan herriko nire adiskide bakarrari, ezta ere ez nion txintik esan, hiriburuko neskato txolin bat besterik ez nintzela pentsatuko ez ote zuen beldurrez. Izan ere, orain arte ez diot inori halakorik komentatu. Eta oraindik ere, ez bururik ez hankarik ez daukan ganoragabekeria batez ari ez ote naizen zalantzak ditut.

Inmarekin hain zuzen nengoela –norekin bestela- herriko kafetegi batean, larunbat arratsaldez, Alexekin topo egin genuen. Herriko bere lagun taldearekin sartu zen, herrikoa baitzen Alex –uste dut hau aipatu dudala-, eta gu eserita geunden mahaira urreratu zen. Izenez agurtu gintuen, biak.

Elkar ezagutzen duzue ala? –galdetu zuen Inmak harrituta.

-Noski! –erantzun zion Alexek.- Lankideak gara, ez al zenekien?

Bada, zure harridurarako, emakumeok badaukagu bestelako mintzagairik zutaz aparte –zirudienez, Inmak bazekien zerbait Alexen segurtasunaz eta haren inguruan txantxak egiten ere bazekien-. Ez, Larak ez dit inoiz zurekin lan egiten duenik aipatu.

-Limbo joango al zarete gero? –galdetu zuen Alexek, Inmaren txantxei jaramonik egin gabe. “Limbo” herriko diskoteketako bat zen.

-Nik ez nuen... -Inmak belaunean txalo eman eta ez ninduen erantzuna amaitzen utzi.

-Erantzuna asmatzeko zu joan beharko zara: bertan ikusten bagaituzu, joan gara, eta ez bagaituzu ikusten, joan ez garelako izango da.

Bai, hori izan zen Inmaren erantzuna. Berak orduan zentzurik zeukala edo argia eta zorrotza ere bazela sinetsiko zuen. Hogeita bi urte geneuzkan, ikasketak eta gure lana eta guzti ere, baina nerabe txoriburuen irteerak ere bageneuzkan. Orain, oroitzean, lotsatu egiten naiz, gorritu eta guzti, baina orduan ez, orduan Inmak Alexen aurrean erakusten zuen segurtasuna miretsi nuen.

Alex bera ere ez zen lotsatu erantzun zentzugabe harekin.

-Ni bai joango naizela. Talde osoa joango gara. Horrexegatik galdetu dizuet. Tira, bertan egongo gara.

-Ez dugu esan joango garenik! –Inma berearekin tematuta, baina Alex jada buelta eman eta lagun talderantz zihoan.

Larunbat hartan Inmarekin kafe bat hartzeko geratu nintzenean, ez zegoen nire planen artean Limbo diskotekara joatea. Kafea hartu eta telebistan gaueko pelikula ikusteko sasoiz etxera itzultzea espero nuen. Ez neukan zorioneko Limbo hura ezagutzeko inolako gogorik, baina Inmak dantza egin nahi zuela eta laguntzeko erregutu zidan. Amore eman nuen, erraz, azken finean etxean ez neukan inor nire zain eta pelikularena ez zen aukera erakargarriena ezta ere.

Limbo haren itxura erraza da irudikatzen: hesi txiki batez inguratutako dantzalekua, sofaz eta mahaitxo baxuez inguratuta, argi eskasa eta koloreetako... betikoa, nonahikoa. Gin-tonic bana eskatu genuen Inmak eta biok. Orduko gin-tonic bana, gin-tonic ximple bana, egungo tentelkeriarik gabekoak. Dantzalekuaren inguruko sofa batean eseri ginen. Alexen taldea ere mahaitxo horietako baten inguruan eserita zegoen, edaten, erretzen. Serio zeuden, ez zirudien ondo pasatzen ari zirenik, ez zirudien diskoteka batean zeudenik. Baina ilun zegoen eta ez zen ondo ikusten. Inmaren lagunak ere, euren nobioekin, beste mahaitxo batean zeuden. Eskuarekin agurtu zituen Inmak eta gugana hurbildu ziren, nobioak lekuan utzita. Laurak dantzatzera irten gaitzela nahi zuten eta halaxe egin genuen. Ezingo nuen ziurtatu zer dantzatu genuen justu larunbat hartan, baina apustu egingo nuke hauetako bat baino gehiago izan zirela: Boney M, ABBA, Bette Davis' Eyes, Don't You Want Me Baby... holakoak. Eta "mantsoak" jarri zituztenean –"mantsoak" bikoteka eta besarkatuta dantzatzeko kantuak ziren- lekura itzuli ginen. Eta hara, sofarako bidean Alexek gelditu ninduen eta ea berarekin dantza egin nahi nuen galdetu zidan. Ez nuen ezetz esateko arrazoirik.

Bai, kontatzen ari naizena bezain arrunta izan zen guztia. Orduko errituala urratsez urrats bete genuela konturatzen naiz gogoratzean. Lotsa eta barregura apur bat ematen dizkit ere, nahiz eta berez ezer lotsagarriarik ez izan. Esperientzia berezi, bakanak, izan ditugula sinetsi nahiko genuke guztiok, beste pertsonengandik bereizten eta ezberdintzen gaituztenak, baina ez, guztiok txantilo bat bera betetzen ematen dugu bizitza, dirudienez. Zein urrun dagoen orduko Lara hori egungoarengandik. Ez naiz gehiegi Lara hartan errekonozitzen, baina hala izan behar dela zinez sinesten dut: bizitzak –bizitzeak- aldatu behar gaitu, goitik behera aldatu ere, bestela erdipurdiko bizitza –bizitze- bat bailitzateke. Eta gogoan izan behar dut, orain hain barregarri ikusten dudan orduko Lara, oso gustura zegoela jokoera arrunt eta ohiko haiekin. Ez zebilen –ez

nenbilen- esperientzia txundigarri, ahaztezin eta eraldatzaileen bila. Horrelakoak, arren, nahi dituenarentzat. Nahikoa asaldura bizi izan zuen –nuen- ordurako eta lasaitasuna zen bilatzen zuena –nuena-.

Erritual osoa behar bezala bete ondoren, Alexek berarekin irteteko eskatu zidan. Ez zuen esapide hori erabili, hogeita bost urte zeuzkan-eta. Igandean berarekin zinera joan nahi ote nuen galdetu zidan. Baietz esan nion. Elkarrekin irten ginen lehen aldia izan zen. Askotariko lehen aldia. Zinera eta afaltzera joan ginen. Alexek gonbidatu zuen, ongi gogoratzen dut. Ez nago ziur horrek nola sentiarazi ninduen, agian erdibana ordaintzea espero nuen eta gonbidapena ordainsari bat bezala ulertu nuen eta deseroso sentitu nintzen; edo agian ez nuen gutxiagorik itxaroten. Ez dakit. Gaur egun, antzeko egoera batean, pozik utziko nion den-dena ordaintzen, postre eta guzti eskatu ondoren ere.

Lehenbiziko irteera hari antzeko beste batzuek jarraitu zioten. Ohikoak bihurtu ziren irteerok. Eta gu biok nobioak izan ginen.

Alex atsegin nuen? Bai, zalantzarik gabe, ez nenbilen jolasean. Guztiz zintzoa izan nintzen harekin? Eta nire buruarekin? Baietz esan beharra daukat. Ez nion gezurrik inori kontatu, ezta nire buruari ere. Egia osoa ez nuela kontatu? Baliteke, baina edozein pertsonaren iragana ezagutzeak, edozein pertsona ezagutzeak, denbora behar du, ez da ezagutu eta berehala, segidan, kontatzeko gauzarik. Astunek eta zoroek bakarrik egin dezakete holakorik. Ez neukan Alexi ezer ezkutatzeko asmorik, zeharo gardena izateko asmoa nuen hasiera hasieratik, baina behar bezalako erritmoan, urratsez urrats. Eta Alexek benetan maite baninduen eta nirekin egon nahi bazuen, nire bitxikeriak, nire berezitasunak onartuko zituen, beste munduko gauzarik ez baitziren. Nik ere harenak onartu beharko nituen eran, bide batez.

Inma alde batera uzten ez ote nenbilen, kezkatzen ninduen. Inmaren adiskide guztiek nobioa zeukatelako eta bakarrik uzten zutelako lagun egin ginela gogoratzen nuen, eta nik ere modu berean Inma ahazten eta baztertzen ari nintzela sentitzen nuen, Alexekin irteten hastean. Inmak ostera ni baino pozago zirudien Alex eta bion arteko bikotearekin. Elkarrekin geratzen jarraitzen genuen Inma eta biok, kafe hartzeko edo paseoan joateko, baina maiztasun gutxiagorekin, eta katekesian ere ikusten ginen. Holako batean nire kezka azaldu nion, ni bakar-bakarrik nengoenean nire lagun bakarra izan zela bera eta nire orduko portaera nolabaiteko traizioa ematen zuela. Tentelkeriarik ez esateko erantzun zidan, erdi haserre erdi barrezka, eta halakorik errepikatzen banion zaplazteko bat emango zidala, azkartzeko.

Alexi buruzko xehetasun gehiago ezagutuz joan nintzen, normala denez. Alexi zentrala zerutik erorita bezala etorri zitzaiola jakin nuen, adibidez. Bertakoa ez zirudien arren, herrian jaiotakoa zela aipatu dut. Zergatik ez zirudien herrikoa? Nire buruari behin baino gehiagotan egin nion galdera hori. Arrazoi jakin bat egon behar zuen, ezin zitekeen nire aurreiritzi klasista eta zentralisten gauza izan. Zera esan nahi dut: kontzienteki ez bazen ere, ezin nuen onartu herri hartako, herri txiki galdu hartako, mutil batek erakartzen ninduela. Hori al zen gertatzen zitzaidana eta horregatik uste nuen Alex ez zirudiela herrikoa? Horren azaleko eta hutsala nintzen? Madrilgo auzo aberatseko heziketa uste nuena baino errotuagoa ote neukan? Ezin zen hori izan –ez hori soilik, behintzat-, beste zerbait edo zerbait gehiago egon behar zen. Zer zen Alex herrian jaiotako gainerako lankideetatik bereizten zuena? Ezin ziren ikasketak izan, hau da, Alex herriko ingeniari bakarra izatea. Horrek klasista zikin bat nintzela suposatuko zuen. Itxura fisikoa, hazpegiren bat ere ezin zitekeen izan, esaterako, Alexek bi bekain eta herrikoek bat bakarra edukitzea. Alexek bi anaia zeuzkan, itxura oso antzekodunak, eta haiei bai sumatzen zitzairela herrikoak zirela. Baina zerbait bazegoen Alex herriko beste lankide eta gizonetatik bereizten zuena, eta kanpotik etorritakoekin lotzen zuena.

Azentua zen. Azkenean asmatu nuen, buruko min askoren ondoren. Alexek ikasketak egiten herritik atera behar izan zuen, eta, ikasketa urteetan, azentua aldatu zitzaion, nonbait.

Ingeniari ikasketak amaitu zituenean, bere titulua besapean zeukala, herrira itzuli nahi zuen Alexek, ez zuen bere erbestaldia luzatu nahi. Baina zer egin behar zuen ingeniari batek herrixka hartan? Horrexegatik zioen zentrala zerutik eroritako opari bat suertatu zitzaiola, berarentzat egokitutako opari bat.

Halaxe aitortzen zuen, lotsarik gabe. Bere ordura arteko bizitzaz hitz egiten zuen bakoitzean – eta elkar ezagutzen ari ginenez, bere bizitzaz etengabe mintzatzen zen-, beti ondorio bera ateratzen nuen: bizitza, bizitza osoa, berak aurreikusi bezala, berak planifikatutakoaren arabera joan zitzaion beti Alexi. Ordura arte behintzat ez zuen inolako ezustekorik edo frustraziorik jasan. Inbidia ematen zidan honek, egia esan beharra badago, baina ez nion halakorik aitortuko, ez Alexi, horretarako beharrik ez baitzegoen, ezta nire buruari ere, inbidia sentimendu itsusi eta gaitzesgarri bat delako. Gainera, ongi pentsatuta, jarraitu beharreko eredu bat izan zitekeen Alexena, helburuak, xedeak aurreikusi bezala burutzen dituen, eta ez salbuespen bitxi eta txundigarri bat. Zergatik uste dugu beti beste modu batean izan behar dela? Zergatik bizitzaren ezusteko bihurtune eta atsekabeak ezinbestekotzat ematen ditugu? Zergatik sinesten dugu ezin gaitzkeela izan gure patuaren jabe? Alexen ereduak galdera hauek egiteko balio zidan.

Ifrentzua zeukan, ordea, goitik behera planifikatutako bizitza haren parte izateak. Alexek bere bizitza eta bere ibilbidea horren aurreikusiak bazeuzkan, zein zen nire papera plan zehatz eta xehe haietan? Zentralaren antzeko beste opari bat ote nintzen ni ere –zerutik eroritakoa ez eta trenak ekarritakoa-? Madrildik iritsitako nobia bat, haren bila Madrileraino joan beharrik gabe Alexen bizitzan amaitzen zuena.

Garaikur bat nintzen hortaz? Deseroso sentiarazten ninduen ideia honek. Beste baten bat harro sentituko zen agian. Ni ez.

Edonola, bizitzan ordu laurden bateko baino eskarmentu gehiago daukan inork susma dezakeenez, Alexen inguruan nik eraiki nuen irudia eta hark haren buruaz zeukana zeharo ezberdinak ziren. Bikote harreman baten hasieran ez dira bakoitzaren ahuldade eta alde kamutsak azaleratzen. Nik sumatzen nuen Alex indartsu eta ziurra, benetako Alexen aurpegi bat baino besterik ez zen. Geroago –jada ezertarako balio ez zuenean- jakingo nuenagatik, Alex ez zen batere ziur sentitzen gu bion arteko harreman hartan, baina gizona zen eta ezin zuen halakorik aditzera eman. Erdi benetako eta erdi itxurazkoa zen ziurtasun hura, nik dohain bat bezala ikusten nuena, zama bat zen Alexentzat ere –gizon guztientzat ere ote da?-. Ingeniaria zen bera, herritik irtendakoa -eta ez soldaduska egiteko bere adineko beste herrikideak bezala, ikasteko baizik-, mundua ezagututakoa... Baina ni azken finean Madrilgo emakume bat nintzen, andereño madrildar bat. Zer ikus zezakeen –nezakeen- berarengan? Segurtasun gabezia edo zalantza hauek ez zeukaten oinarri handiegirik, nik ez bainuen Alexen adimena edo indarra neurtzen, ez nion ezer aldatzera behartzen, ez janzkera, ez elikadura edo garbiketa ohiturak ere, sekula ez nion horrelakorik agindu ezta iradoki ere; baina berak, Alexek, garai hartan etengabeko epaiketa baten pean balego bezala sentitzen zela aitortuko zidan urte asko geroago.

Aitortu zidanerako –aspaldiko garaiez mintzatzen ari ginen afari batean-, urteak joanak ziren, gu biok ez ginen jada ordukoak eta nik nire begiekin ikusia neukan Bizitza, bere ezinbesteko atsekabeekin, Alexek jorratutako ibilbidea mozten eta oztopatzen. Berandu iritsi zen aitormena, agian, baina antzekorik aitortu balit orduan, ziurgabetasuna eragiten niola esan balit, deus ere ez zen aldatu izango gu bion arteko harremanean. Hori argi daukat. Kontraesanean nabilela? Ez, inola ere ez: Alex indartsu eta ziurra, bekaizti eta miresmenez maite nuen, baina Alex ziur gabe eta zalantzatia ere berdin maite izango nuen.

Bere sendia aurkeztu zidan Alexek.

Gurasoenean bazkaltzera gonbidatu ninduten igande batez. Harremanari ofizialtasuna emateko modua zen. Lotsak hilik joan nintzen lehenbiziko aldi hartan, azterketa batera banindoa bezala.

Zer esan jakingo nuen? Inuzentekeriaren bat botako al nuen urduritasunagatik? Zer pentsatuko zuten nitaz pertsona haiek? Gorrotatuko ninduten? Azterketa gaindituko nuen? Tira, holako egoera desatseginetatik ezinbestez igaro beharra dago bizitzako une batzuetan. Listua irentsi, aitaren egin eta hara joan nintzen, Alexekin batera, hori bai, ate hartako txirrina nik bakarrik ez nuela joko argi utzi bainion hasieratik. Gainera, lotsak eta beldurrak atzera botatzen ninduten arren, Alexen benetako jatorria ezagutzeko irrikan nengoen aldi berean. Benetako Alex nor zen, etxe hartan, ingurumen hartan, ezagutuko nuen; bertan azaleratuko ziren Alexek bere nortasunetik ezkutatu edo leundu nahi zituen erpinak. Orduan ezagutu nituen aipatutako bi anaiak, Luis eta Teo, Elena, haien ama, eta Gabriel, aita. Erdiko anaia zen Alex, Luis baino bi urte gazteagoa eta Teo baino hiru urte zaharragoa, eta goi mailako ikasketak egin eta aitarekin lan egiten ez zuen bakarra zen. Gabriel, eta familia osoa hortaz, nekazaria zen, zekaleak batez ere ekoizten zituen, sendiarenak ziren lursail zabaletan, sendiko aurreko belaunaldiek egin zuten modu berean. Zehatza izateko, modu berean ez zuten egiten, erein, ureztatu eta uzta biltzeko azken belaunaldiko makinak erabiltzen baitzituzten. Elena etxeoandrea zen.

Hau guztia, Alexen haurtzaro eta nerabezaroko pasadizo umiliagarriez ziprztinduta, kontatu zidaten bazkarian zehar. Zer jan genuen ez dut gogoratzen, ez daukat horrainoko oroimenik, eta axolarik ez diola uste dut, baina bai gogoratzen dudala Elenari mahaia jasotzen laguntzeko zutitu nintzela. Zertan pentsatzen ote nengoen, ene ama! Berez irten zitzaidan. Mahai haren inguruan eserita zegoen beste emakumezko bakarra nintzen eta, hortaz, mahaia jasotzen eta agian harrikoa egiten ere lagundu beharko nuela irakatsi zidaten etxean –nahiz eta gure etxean lan horiek neskame batek egiten zituen-. Asmo horrekin zutitu nintzen eta lau gizonezkoetatik batek ere laguntzeko imintziorik ere ez egiteak ez ninduen batere atentzioa deitu. Beste pertsona bati, edo ipuin edo pelikula bateko pertsonaia bati gertatutako zerbait bezala gogoratzen dut orain. Horregatik daukat irudia hain argi. Mesedez esertzeko esan zidan Elenak eta, haren ondoren, mahai inguruko gizonezkoek; zutik eta besoak bete plater hark, eserita eta ukondoak mahai gainean beste laurek.

Oso gustura sentiarazi ninduten guztiek egun hartan, esan beharra daukat, aipatutako azken anekdota hori kontuan izanda ere, esan dudanez orduan ez zidalako atentziorik deitu. Ez ninduten zirikatatu, ez ninduten itaundu, ez nintzen aztertua, miatua, ikertua sentitu. Berriz itzultzeko gogoarekin irten nintzen etxe hartatik. Deseroso sentitu nintzen une bakarrak ez ziren Alexen senideen errua izan, nireak baizik. Familiari buruz ari ziren hitz egiten, euren buruen inguruan; espero zitekeenez, eta abegitsuak izate aldera, ni ere elkarrizketan sartzeko, niri ere hitz egiteko aukera emateko, nire sendiaz galdetu zidaten.

Ez nekien zer esan.

Atakatik nola irten ez nekien, hobe esanda. Nire ahizpaz hitz egingo nien ala? Gurasoez galdetu zidaten zehazki eta nik ez neukan gurasoez mintzatzeko gogorik. Ez neukan gezurrik esateko gogorik eta giro atsegin, alai, haren erdian ez nintzen egia esaten hasiko. Ez zen hura inguru egokiena lehenago inoiz inori esan ez nizkionak ateratzen hasteko. Larritasuna disimulatu behar nuen. Orokorkeriaren bat botako nuen, familia arras arrunta zela nirea, aita enpresari eta ama etxeakoandrea nituela, antzinako moldekoak biak ala biak, edo antzeko zerbait, edozein egoeratan balioko zuen erantzunen bat. Eta berehala galderaren batekin erantzungo nuen, haiek kontatutako zerbaitez xehetasun gehiago eskatuz, gaia nire familiarik desbideratuz.

Deserosotasuna ez zitzaidala sumatu esango nuke, baina Alexek bai nabaritu zuela gaia desbideratzeko nire ahalegina, berari ere lehenago antzekorik egin niolako. Gurasoen etxetik joan ginenean galdetu zidan.

-Horren lotsagarria da zure sendia? Zer ote dira, mafiosoak, terroristak?

-Zer diozu? Zertaz ari zara?

-Lara, ez nazazu inuzentetzat hartu. Ni baino azkarragoa izango zara, ez dut zalantzan jartzen, baina ni ez naiz mozoloa ezta. Zure familiarik galdetzen dizudan bakoitzean ez didazu sekula deus argitzen. Zure familiarik galdetzen badituzte, zu hobeto ezagutu nahi zaitudalako da, ez da polizia moduko itaunketak gustuko ditudalako edo pertsona ezezagun batzuen inguruan interes berezirik daukadalako. Bost axola niri haiek! Gorrotatzen badituzu eta haietaz ezer jakin nahi ez baduzu, lotsatzen bazaituzte eta urrun mantendu nahi badituzu, mesedez esadazu, ez dut berriz gaia aterako, baina ez zaituzte horrelako joko ilunetan aritu. Tukua eragiten didate, eta ez da sentimendu atsegin bat bikote harreman batean.

Arrazoi zeukan.

-Arrazoi duzu. Barkatu. Nire senideez kontatu dizkizudan apurrak egia dira, guztiak. Ez dizut gezurrik esan. Aita, ama eta ahizpa bakarra, Cristina, ni baino urte pare bat nagusia, Madrilen bizi dira. Beraiekin bizi nintzen ni ere hona etorri aurretik. Udak Marbellan igarotzen dituzte. Ni ere, jakina, haiekin joaten nintzen Marbellara. Legeak edo Justiziak ez ditu bilatzen, ez dira ezkututzen dabilzan gaizkileak. Gizartean izen onekotzat dauzkatela esango nuke, hitz horiek zentzuren bat badaukate, eta lagun talde zabala daukate. Uste dut hau guztia lehenago esan dizudala ere, baina ez dago zertan gehiago jakin beharrik. Sinetsiez esadazu, ez du merezi. Arrazoi duzu, ez dut haiei buruz mintzatu nahi, gaia berriz ez ateratzea eskertuko nizuke. Bai. Baina

gehiago esango dizut: ezagutuko bazenitu zuk ere haiengandik aldendu nahiko zenuke. Ziur. Ez zaituzte komeni. Bereziki ama ezagutzeak ez zaitu komeni.

-Ama? Zergatik ama?

Itaunketa hasten hasi zela iradoki nion begiradarekin, baina erantzun nion.

-Ez dakit zergatik irten zaidan hori, barkatu. Baina gaia ez duzula berriz aterako agindu didazu.

-Bai, barkatu. Nik ez dizut berriz galdetuko eta nire senideetako batek gaia ateratzen badu ni enkargatuko naiz gaiaz aldatzen. Lasai.

Eta agindutakoa bete zuen.

Inmak bai, lantzean behin nire familiaren gaia gure kafe solasetan sartzen zuen, baina inoiz ez informazioa erazteko asmoz. Nire gainean herrian zabaltzen ziren zurrumurruak biltzea eta haietaz barre egitea atsegin zuela esan dut, bada noizbehinka haien artean familiari buruzko zurrumurruak ere agertzen ziren.

-Norbait famatu, boteretsu eta aberats duzula aita, diote hemendik. Edo ama. Biak akaso. Zure janzkeragatik izango da, edo hizkeragatik, edo jatean mahai-tresnak erabiltzen dituzun moduagatik, baina jendeak "familia onekotzat" hartu zaitu eta ez du kontrako argudiorik onartzen. Agian Madrilen neska-andre guztiek, ez soilik familia onekoek, zu bezalakoak direla eta zu bezala jokatzeko dutela esaten diet nik, ez dakigula, beste madrildar neskarik ez dugulako ezagutzen. Ez didate kasurik egiten. Nik ere zerbait badakidala susmatzen dute eta ezkututzen ari naizela. Tira.

Eta barre egiten zuen. Sekula ez galderarik.

Alexekin izan nuen eztabaida antzeko elkarrizketa atezu hura, ordea, ez zen gure arteko harremanean lehenbiziko pitzadura bat izan. Kontatu dudan moduan -eta benetako hitzak ahalik eta fidelen errepikatzen saiatu naiz, oroimenak uzten didan neurrian- ontziaren hondoratzea aurreikusi zezakeen baten batek, baina oso bestela gertatu zen: harremana sendotzeko eta bultzatzeko balio zuela esango nuke. Nobioak bezala elkarrekin ibiltzen jarraitu genuen, geroz eta denbora gehiago elkarrekin egoten.

Harreman haren eboluzioa zein izan behar zuen, handik gutxira gertatu behar zena, jakin behar izan nuen. Berez banekien, ez nintzen hain inozoa, baina itsu nenbilen eta arduragabe jokatu nuela uste dut. Gustura nengoen Alexekin. Zoriontsu nintzen. Bai, zoriontsu nintzela zalantzarik

gabe adierazi dezaket orain, zoriona oroimenean errekonozitzen baita hoberen. Atzera begira bizitzan zoriontsuen izan naizen uneak gogora ditzaket orain, eta Alexekin egon nintzen garai hura zoriontsuenetakoa izan zela ez dut zertan ukatu behar. Eta Alex maite nuela ere. Bai. Eta maitasunak itsutu egiten zaitu eta arduragabe jokatzera bultzatzen.

Korapilo hau guztia laburbilduz: gure arteko harremanaren abiadurak nora generamatzen banekien eta ibilbide haren helmugan atsekabea aurreikusi behar izan nuen. Inor kaltetu baino lehen abiadura moteltzen edo geldiarazten saiatu behar izan nintzen, baina hogeita bi edo hogeita hiru urterekin inork ez dauka bizitza behar bezala maneiatzeko eskarmentu nahikorik eta hanka sartzeak –hanka sartzeek beste pertsonak eta norbera kaltetzen badituzte ere- baimendu eta barkatu behar zaizkio –neurri batean-. Behin helmugara iritsita, patuak guztientzako pozgarria izango zen irtenbide bat eskainiko zigula espero nuen. Hori edo antzeko eldarnioren bat nerabilen buruan. Zorionak eta maitasunak noraino urtu dezaketen gazte baten arrazoimena!

Elkarrekin eman genuen denbora hartan guztian behin bakarrik gogoratzen dut errealitatea gainera amildu zitzaidala. Igande arratsalde bat zen eta ziurrenik Alexen gurasoen etxean bazkaltzetik etorriko ginen. Herriko enparantzan geunden, banku batean eserita, izozki bana jaten. Enparantzan umeak jolasean zebiltzan. Zabuen alboan arez beteriko kaxoi bat zegoen, hondartzarik gabeko herri hartan jokaleku erakargarriena zena. Bertan haur batek pala batekin balde bat arez betetzen saiatzen zen. Pala arean hain gogor sartu zuen, indar handia egin behar izan zuela ateratzeko eta, ateratzean, indarraren indarrez, aurpegira jaurti zuen area. Zur eta lur geratu zen haurra. Palari begiratzen zion. Ez zekien negar egin behar ote zuen edo ez. Barre egin genuen.

-Zoriontsu zer dira gero haurrak.

Irria izoztu zitzaidan, bat-batean, ondo gogoratzen dut. Eta Alexek igarri zuen.

Izozkia miatzatu nuen. Eta erantzun.

-Baina inozotasun horrek iraungitze data dauka, badakizu, ezta?

-Zergatik diozu hori?

-Egia da, guztioi gertatu zaigu. Zu haurra zinenean bezain zoriontsu eta inozo zara orain, ala?

-Ez nuen zure alde ezkor hori ezagutzen. Zu ez zara horrelakoa.

-Ez naiz?

-Ez. Emakume alaia zara eta umeak atsegin dituzu, ezin duzu horrelakorik ukatu. Zertara zoaz katekesira bestela?

-Umeak maite ditut, bai, horrexegatik bada pena ematen dit haur gizajo horiek guztiek jaso beharko duten ezustekoa eta atsekabea. Une horretan haiekin egon nahiko nuke.

-Umeek maite zaituzte. Nire begiekin ikusi dut –Alexen tonuak gaiaz aldatu nahi zuela iradokitzen zuen, nire bat-bateko goibeltasun hura uxatzeko-edo.

Alexek aurrera, umeei, begiratzeari utzi eta niri begira jarri zen. Ez zuen deus ulertzen. Nik aurrera, umeei, begiratzeko jarraitzen nuen, ezin nion aurpegira begiratu.

Izozkiak, biak, urtzen hasita zeuden. Alexek lurrera jaurti zuen berea. Bortizkiegi bota zuela iruditu zitzaidan orduan. Nirea esku gainean urtzen ari zitzaidan.

Isilik geratu ginen. Ni ez nintzen azalpen gehiago ematen ausartu une hartan eta Alex harrituegi egon behar zuen nire irteera harekin argibideak eskatzeko.

Eskuturra miazkatzen ari nintzen, ume txiki bat bezala. Ohartu nintzenean, lurrera bota nuen izozki hondakina eta paper zapi bat atera nuen poltsatik eskua garbitzeko.

Txolarre talde bat urreratu zen izozki hondakinak jatera, bankutik jaiki eta alde egin genuenean.

Lurrera, errealtatera, berriz jaisteko eta Alexekin argitu behar nituenak argitzeko, parada egokia izan zitekeen hura pasatzen utzi nuen. Korrontearekin batera gustura nindoan eta ez nintzen ohartzen korrontearen abiada azkartuz zihoala eta norbait kaltetua irten zitekeela. Azkenean patuak guztia konponduko zuen, pelikuletan bezala. Baina nire itxaropenean soilik existitzen zen balizko konponbide miragarri haren ordeztu, edozeinek espero zukeena gertatu zen: elkarrekin ezkontzeko proposamena egin zidan Alexek, eraztun batekin eta guzti. Azkarregi joatea zen hura, ezkontzeko benetako asmoa izango zukeen norbaitentzat ere, eta halaxe esan nion.

-Apu bat gehiago itxaron beharko genuela ez al duzu uste?

Berez, denbora irabazteko aitzakia bat zen, otu zitzaidan onena. Egoerari benetan aurre egingo nion unean den-dena –gu bion arteko dena- zapuztuko nuela banekien eta ez nuen nire burua halabeharrezko hondamendi horretarako prestatuta ikusten. Baina ahulegia zen aitzakia Alexentzat.

-Tira, ez nituen su artifizialak espero, baina poztasun adierazpenen bat bai. Ogasunaren gutun bat eskuratu bazenu bezala erantzun didazu. Elkarrekin ezkontzeaz hitz egiten dudanean ez da bihar ezkon gaitezen. Gure harremana behar bezain sendoa ote den baieztatu nahi dut, norabide horretan doala eta noizbait, biok prest gaudenean, ezkonduko garela. Horixe da nik zurekin nahi dudana, elkarrekin betirako bizitzea, gu bion artean bizitza proiektu bat eraikitzea. Zuk ere asmo bera daukazula uste dut, baina zure ahotik entzun nahi nuen.

Arrazoi zuen, hori guztia susmatzeko motiboak eman nizkion. Hortaz, hobe nuen ahalik lasterren nik eragindako ataka estu hari aurre egitea, harrizko horma baten aurka aurpegiak jotzea bezalakoa izango bazen ere. Zenbat eta gehiago atzeratu, hainbat eta larriagoa izango zen hondamendia.

-Ezer ez dakizu nitaz –esan nion, herabe.

-Esadazu bada jakin beharko nukeen dena. Zerbait ezkutatu al didazu? Zerbait garrantzitsu al dago jakin beharko nukeena? Zerbait lotsagarri? Biluzik ikusi ez zaitudan arren, akats fisiko beldurgarririk ez daukazula esango nuke. Ahate oinik ez daukazu, ez zara lamia. Zer gehiago jakin beharko nuke?

-Ez nabil txantxetan, sentitzen dut itxura hori eman badut. Zurekin ezkonduko nintzateke, bai, pozik gainera, eta horixe dela garrantzitsuena uste dut. Edo sinetsi nahiko nuke. Baina bizitzan egin ditudan aukerak ezin dizkizut inposatu, eta aukera horiekin bat ez zarela etorriko ia ziur nago.

-Aukerak? Ze aukera eta ze demontre? Ez dut deus ulertzen.

Buruz behera.

-Ez dakit nola esan. Modu batean edo bestean esan arren arraroa irudituko zaizu, dena dela. Tira, ba. Zeraz ari naiz: bizitza honetan, daukadan bakarrean, seme-alabarik ez dudala izango erabaki dut. Jendearen artean ez da erabaki ohiko bat, badakit, ez gizonezkoen ezta emakumezkoen artean ere, eta horrexegatik niotsun arraro iritziko zeniola. Baina, ezkontzeko proposamena egin didazunez, argi uzten ez badizut, funtsezko zerbait ezkututzen ariko nintzaizun, eta argitzeko unea iritsi dela pentsatu dut. Jakin beharra daukazu, argi izan behar duzu, elkarrekin ezkonduko bagina ez genuke ondorengorik izango. Ez dakit prest egongo zarenetz. Jende gehiegirik ez legoke prest. Erabaki nirekoa izan daiteke agian, ados, ez dut kontrakorik esango, baina irmoa da. Jakin beharko zenuela uste nuen. Gure artekoak aurrera jarraitzen badu ezin nizun nire erabaki hau ezkutatu. Beranduegi, ezkonduka geundela, aitortuko

banizu, ez litzateke zilegi izango. Sasoiz, ezkondu aurretik ezagutu behar zenuela uste nuen, hori jakinik, hartu beharreko erabakia har dezazun.

Begi zabalik, harri eta zur, aditzen zidan Alexek, izpiritu arrotz ezezagun batek nire gorputza inbaditu balu bezala.

-Nolako txantxa da hau? Horrelako gauzak ez dira aurretik erabakitzen.

-Ez ala? Jendeak ez al du esaten zenbat seme-alaba izango dituen eta nola deituko dituen ere?

-Ez da gauza bera. Baina, dena dela, nola botatzen didazu horrela, horren bat-batean? Nola gera zaitezke horren lasai tamaina horretako bonba bat jaurti ondoren?

-Ez nago lasai, inolaz ere. Bihotzekoak eman beharrean nago oraintxe momentuan. Zu zara holako zerbait entzun duen lehena. Ez diot antzekorik inori esan lehenago.

-Eskerrik asko, ohore bat da.

-Ez izan ironikoa, orain ez, mesedez. Jakin beharko zenuela uste nuen. Holako zerbait ezkutatzea gaizki legoke.

-Ama ezin hobea, amarik onena, izango zara, Lara. Umeak zenbat maite dituzun eta nola maite zaituzten nire begiekin ikusi dut. Eta zuk esan zenidan haurren atsekabea sendatu ahal izatea nahiko zenukeela.

-Umeen zauriak sendatzea gustatuko litzaidake, bai, hala esan nizun: beste pertsonen seme-alabenak, baina ez naiz gauza nire seme-alabei bizitzak suposatzen duen dezepzioa eta oinazea inposatzeko.

-Zerbait gertatu zaizu, argi dago –hori atera zitzaion erreakzionatu zuenean-. Iraganean, herrira iritsi aurretik zerbait gertatu zaizu. Nirekin partekatu nahi ez duzun zerbait. Kalte handia egin dizute. Jakingo banu, esango bazenit, zauria sendatu ahal izango genuke elkarrekin. Lur jota zaude, ez dakit zergatik baina deprimetuta zaude. Gaixotasun bat da hori eta senda daiteke. Sendatuko zaitugu eta iritziz aldatuko duzu.

Paternalista izan zela Alexen erantzuna esango nuke orain, baina orduan ez zitzaidan hitz hori bururatu. Bide horretatik jarraitzen ez niola utziko, bai, behin kartak mahai gainean jarrita ez zen erdizka gelditzeko unerik.

-Barkatu zabarkeria badirudi, Alex, baina nire erabakiak, neurri honetako erabakiak, gaixotasun mental batekin ez lotzea eskertuko nizuke. Batez ere nire bizitzako erabaki nagusia izan daitekeena. Ez dut sendagilerik behar, ez nago gaixorik, ez naiz gaixo bat, ez dut laguntzarik behar seme-alabak izatera ausartzeko. Gutariko bakoitzak bere bizitzaren inguruan erabakiak hartzen ditu, posible zaion neurrian, eta nik seme-alabarik ez edukitzea erabaki dut. Ez dut seme-alabarik izango. Eta halako zerbait ezin dizut inposatu.

-Ziur zaude? Gazteegi zara halako zerbait erabakitzeko, aurrerago iritziz alda zenezake.

Ez zuen zabarkeriatzat hartu. Zipitzik ez zuen ulertu.

-Erabat ziur. Seme-alabak dauzkaten nire adineko emakumeei ez zaie erabaki hori hartzeko gazteegiak direla esaten, are gutxiago aurrerago iritziz alda dezaketela. Barkatu, Alex, ez dut zabar izan nahi zurekin, baina ez iezadazu neskabila bat banintz bezala hitz egin.

-Barkatu zuk, ez zen nire intentzioa. Zu ulertzen saiatzen ari naiz, besterik ez. Ez al dago iritziz alda dezazun posibilitateren bat? Erabakia hartu zenuenean ez ninduzun ezagutzen, aspaldiko zerbaitez ari zarela ematen du-eta. Elkarrekin biziko bagina eta seme-alabak zu eta biok elkarrekin zainduko bagenitu, agian modu ezberdin batean begira zenezake gaia.

-Erabakiak ez du zurekin inolako zerikusirik. Arrazoi duzu, herrira etorri eta zu ezagutu baino lehen hartua nuen. Zu gero heldu zinen. Agian lehenago kontatu behar nizun, honaino iritsi gabe, baina noiz? Ez da edozein moduan elkarrizketa batean irteten den gai bat. Barkatu.

-Hortaz, zer esan nahi du honek? Nirekin ezkonduko ez zarela aditzera ematen ari zara, ala?

-Ez da hori. Argi jokatu nahi nuen, kartak mahai gainean jarri. Badakit ezin zaitudala karta hauekin jolastera behartu. Agian, egia jakinda, zu izango zara ezkondu nahiko ez duena.

-Nik hartu behar dut erabakia orduan –hasperen ironikoa-. Ziur zaude ezin zaitudala iritziz aldatzeko konbentzitu? Jendeak asmoz aldatzen du. Zenbat seme-alaba izango dituen eta haien izenak ere badakizkien jendeak, asmoz aldatzen du. Kasuak ezagutuko dituzu. Zuk ere asmoz alda dezakezu. Seme-alaba zoriontsuak izango ditugula frogatuko dizut. Itxarongo zaitut. Krisi bat bizi duzu. Iritziz aldatuko duzu, zuk ezetz uste baduzu ere, nik badakit. Eta orduan zure zain egongo naiz.

Ez nuen sekula iritziz aldatu.

VII

-Desagertu? Alde egin? Ez nauzu hain erraz ikaratuko, Adele. Xehetasunen bat gehiago eman beharko didazu seriotan hartzea nahi baldin baduzu. Ezagunegiak zaizkit dagoeneko atentzioa deitzeko zure amarruak.

-Hilik nengoela sinetsi behar zuten. Horixe sinetsarazi behar nien. Edo zalantza eragin behintzat. Nire atzetik zebiltzan baina iskin egin behar nien. Aurkitu banindute, akabo, nireak egin zuen.

Adelen adierazpen hauek eta iradokitzen zutena ikaragarriak ematen bazuten ere, Lara ez zen gehiegi kezkatu entzun zituenean. Ohituegia zegoen Adeleren gezur eta asmakerietara. Arazo bat zeukan Adelek gezurrekin, edo bere gehiegizko irudimenarekin. Betidanik izan zituen arazoak Adelek. Haur eta nerabe zaila izan zen Adele, gainerako haur eta nerabeak baino zailagoa. Adituekin kontsultatu zutenean Alex eta Inmak, Adeleren arazoa -arazo hura hain zuzen- eskizofrenia dei zitekeela esan zieten -batek baino gehiagoak esan baitzien-. Baina inoiz ez zuten hitz hori erabili Alexek eta Inmak, halako etiketa izugarriak neskatilea adoptatu batek berez nozituko zuen bazterkeria erruz areagotu zezakeela sinesten baitzuten. Adelen portaera bitxiak atsekaberen bat eragiten zieten bakoitzean eskizofrenia hitza ez zuten sekula aipatzen eta, haien ereduari jarraituz, Larak ezta ere. Tabu bat zen, aipa ezin zitekeen hitz madarikatua.

Gurasoek –amak batez ere- edozer barkatzen zioten Adeleri, bihurrikeria edo gaiztakeria baten atzean haren eskizofrenia aipaezina zegoela susmatzen zutenean. Horrenbestez, Adelek, errepikatzearen errepikatzeaz, aitzakia bezala erabiltzen zuen bere izaera bitxia beti nahi zuena egin edo lortzeko. Edozer -ia edozer- egin edo esan zezakeen, errieta arin bat baino bestelako zigorrik jaso gabe. Pertsona berezia zen, bitxia, eta haren xelebrekeriak onartu behar ziren. Gizajoa.

Ohitua zegoen hortaz Lara halako irteeretara.

Orduan ere holako zerbaitean zebilela susmatu zuen Larak, eta ez zion Inmak bezain erraz sinetsiko.

-Nor zebilen zure bila, jakin baliteke? Norengandik egin behar zenuen ihes?

Berarekin ezingo zuela amarekin bezain erraz jolastu aditzera eman nahi zion Larak Adeleri. Ea nola irteten zen berak antolatutako gezurretik.

-Fardelaren jabeek. Fardela nork lapurtu zien asmatu nahian zebiltzan eta paketea nik neukala aurkitzen bazuten, akabo. Ez dira txantxetan ibiltzen direnetarikoak. Gogora ezazu Joni egin ziotena.

-Ze Jonez ari zara? Ze fardelez? Ez ibili niri adar joka, gero! Burua nahastu nahi badidazu, zure amarruak soberan ezagutzen ditudala gogoratzen dizut.

-Ez dut behar zuk sinestea, baina zurean nagoela aurkitzen badute, zu ere arriskuan egongo zarela jakin beharko zenuke. Skate dendako Joni ordaindu ez zienean ospitalean amaitu zuen, hilzorian, barne zauriz josita.

Larak bazekien azken hori egia zela, Jon haren ama parrokiako laguna baitzeukan. Kasua gainera, bere bortizkeriagatik, herritar guztien ahotan ibili zen hilabete batzuk lehenago.

-Hortaz, istorioa argitzen joate aldera, skate dendako Joni eraso egin zioten berberak zure atzetik omen dabilta, zuk haiena omen den fardel bat daukazulako. Hala da? Hori da esaten ari zarena?

-Bai. Horrela da.

-Eta hori guztia egia balitz, ez litzateke errazagoa izango fardela itzultzea eta kito?

-Ez dakizu zertaz ari zaren. Jende hori ez da jende arrunta, ez da barkamen eske arrunt batekin konformatzen. Lezio bat eman behar dizute, lezio eredugarri bat, nahikoa oihartzun eragingo duen bat, antzekorik egiten sekula berriz inor saia ez dadin.

-Baina nortzuk demontre dira "horiek"? Scarface? Eta zer demontre da fardel hori, kokaina ala?

Adelek ez zuen erantzun, baietz, horixe zela, aditzera emanaz.

-Adele, mesedez, ez egin txantxarik gai horiekin. Nagusi zara dagoeneko, nagusi gara biok. Ez duzu zertan asmakeriatan ibili beharrik. Egia esazu eta konpondu beharrekoa konponduko dugu, baina aurrera ihes egiten jarraitu nahi baduzu, holako istorio txoroak asmatuz, ezingo dizugu ezertan lagundu.

-Badiotsut ez dudala zuk sinestea beharrik. Ez dut deus ere asmatu. Eta holako egoeran nola lagun diezadakezun ezta ere ez dakit; ez zuk, ez gurasoek, ezta inork ere. Ezagutzen duzun, ezagutzen dugun inork ez daki nola irten halako egoera batetik. Nola jakingo du, bada! Baina lasai, intentzioa eskertzen dizut.

Horraingo helduta, Lara ikaritzen hasia zen.

-Serioegia da kontatzen ari zarena, Adele. Ospitalera hiltzorian bidali zaitzaketen gaizkile talde batengandik ihesean zabiltzala? Ez da txantxetan ibiltzeko gairik. Zin egidazu ez zarela txantxetan ari.

Ez zion erantzun Adelek. Sorbaldak jaikitzekeo keinu bat baino besterik ez zuen egin, bost axola ziola aditzera emanaz.

-Zure aldrebeskerietara ohitua nengoela uste nuen, baina honako honek aurreko errekor guztiak gainditzen ditu. Non ezagutu duzu horrelako jendea? Noiz? Ze harreman daukazu haiekin?

-Ez ditut ezagutzen. Haiena den zerbait daukat, beste barik. Zerbait baliotsu. Nik uste nuena baino baliotsuagoa.

-Ostu zenien? Hori da zuen gurasoek jakin nahi ez luketena. Ez da haiek eman dizuten heziketa. Itzuli behar zenien eta barkamena eskatu, holako erokeriatan erori gabe.

-Ez da hain erraza. Barkamena, barkamen eskea, ez zaie hauen gisakoei balio. Lezio bat eman nahi didate, esan dizut, beste batzuentzat ereduagarria izan dadin.

-Baina zergatik daukazu kokaina fardel bat? Non eskuratu duzu? Nola? Norengandik? Nola irits daiteke holako egoera batera zu bezalako neska bat?

Txundituta zegoen Lara, Adele kontatzen ari zitzaionagatik, baina ez Adele ezagutuko ez lukeen norbait egongo litzatekeen neurrian. Ohituegia zegoen Lara Adeleren ustekabeko irteeretara, Inma eta Alex hainbeste atsekabetzen –beti- eta zorutzen –maizegi- zituzten jokabide bitxi haietara. Adelerena ez zen gurasoen aurka matxinatzen den neska gazte baten portaera etsigarria baina arrunta, ohikoa, Adele ez baitzen neska arrunta. Sekula ez zen izan Adele herriko beste nesken antzekoa, ezta Inmak edo Larak ezagutzen zuten beste edozein neskaren antzekoa.

Errusiarra zen Adele, siberiarra zehazki, eta adoptatua. Seme-alabarik eduki ezin zutela jakin zutenean, adoptatzea erabaki zuten Inmak eta Alexek. Luzea izan zen ibilbidea, espero zutena baino askoz luzeagoa, eta luzatzen zen heinean geroz eta ilunagoa ematen zuten legezkotasunari zegokionez. Zergatik zein hain garestia prozesua? Ez zuten zeken itxura eman nahi, baina zertarako zen diru hura guztia? Norentzat? Noren poltsikoetan amaitzen zen? Iruzur baten erdian zeudela susmatzera heldu ziren Alex eta Inma. Baina amore eman beharko zutela pentsatzen hasi zirenean, Irkutsken euren alaba izan nahi zuen neskatila jaioberri bat zain

zeukatela jakinarazi zieten. Non eta Irkutsken! Berehala bertaratu ziren, nola ez, eta han, munduko beste puntan, euren aingerutxo ilehori begi zuria ezagutu zuten. Jakina ere, Irkusketik itzuli zirenean hirurak, Lara izan zela Adele lehenik ezagutu zuenatarikoa. Orduetik, izeko Lara izango zen Lara Adelerentzat, nahiz eta Alexen edo Inmaren senide ez izan.

Herrira heldu zen unetik arazoak izan zituen Adelek, Siberiatik berarekin zekartzan arazoak. Jaiotzatiko arazoak. Haietako batzuk –guztiak Alex eta Inmaren aburuz- amaren sabelean zegoenetik eragindakoak ziren: fetu-alkoholismoaren biktima zen Adele. Halaxe azaldu zien pediatriak. Adelen ama biologikoa, edozein zela ere, alkoholikoa omen zen eta ez omen zion alkohol edateari utzi haurdun zegoen bitartean –ezin zuen-. Izen beldurgarridun sindrome horrek hazpegi bereziak eragiten ditu, pediatriak berehala identifikatu zituenak Adele aurkeztu ziotenean. Hori balitz guztia –tolesturarik ez sudurraren eta goiko ezpainaren artean...-, gaitz erdi, Adelen jatorri siberiarrari egotziko baitzizkion hazpegiok mundu guztiak, aurpegi exotikodun haur bat izango zatekeen Adele beste barik. Baina sindrome bat, definizioz, arazo anitzen multzo bat da eta, pediatriak anestesiarik gabe Inma eta Alexi bota zien bezala, ama biologikoaren mendekotasunak bestelako ondorioak jarauntsiko zizkion Adeleri, hazpegi exotikoez gain: hazkunde atzeratua, nerbio sistema zentralean arazoak, ikasketa zailtasunak, memorian, atentzioan... Portaera eta gizarte arazoak ere.

Laster, oso txikitatik, pediatriaren madarikazio moduko diagnostiko hura berretsi zuen Adelek. Eskolan zaila gertatu zitzaion aurrera egitea, ikasteko zailtasuna zeukan eta adi egoteko ere. Adiskideak egitea ere zaila izan zitzaion, batez ere gainerako nesken artean. Herabea zen, beldurtia, eta aldi berean aldakorra. Erraz haserretzen zen eta itsutu egiten zen haserretutakoan. Jolastokian gainerako haurrekin jolasten ez zuen haurra zen Adele, jolasaldiak patiotik agertzen ziren uso eta txolarreen atzetik korrika ematen zituena. Urtebetetze jaietara gonbidatzen ez zuten haurra ere bazen Adele, beste haurrak jotzen zituelako.

Horien guztien lekuko izan zen Lara, zuzenean, ez soilik Inmaren aitormen atsekabetuen bitartez, izeko Lara baitzen bera eta Adele izeko Lararen aingerutxo.

Oinarrizko ikasketak burutu zituen, bai, atzerapenarekin, ikasturteren bat errepikatu behar izan zuelako, baina burutu zituen. Irakurtzen eta idazten bazekien, eta aritmetikaren eragiketa nagusiak ere bazekizkien, baina batxilergoa ez zuela egingo argi zeukaten gurasoek. Hori bai, prestakuntza profesionala ikasi beharko zuela argi utzi zioten ere. Elektrizitate modulu bat ikasten hasi zen, gurasoek erizain laguntzaile ikasi zezala gomendatu zioten arren.

Ez zuen modulua amaitu, zentrotik bota zuten.

Etxean ezer egin gabe ezin zela egon eta lan egiten hasi behar zuela esan zioten gurasoek, mehatxu moduan, ea horrek ikasketak berriz hartzera bultzatzen ote zuen, baina baietz esan zuen Adelek, ados zegoela eta lanean hasi nahi zuela. Lan egitea zer zen ez zekielako esan zuen hori Adelek, eta gurasoek, egia esateko, hark zertan lan egin zezakeen ez zekiten. Kezkatuta zeuden, urteak zeramatzen ordurako sakonki kezkatuta, pediatrik Adeleren berezitasunari izena jarri zion egunetik, eta kezka lodituz joan zen Adelek edozer ikasteko edo ulertzeko eta gizarte harreman sinpleak mantentzeko erakutsi zuen zailtasunarekin. Dena dela, alaba arrakastatsua eta popularra izango ez zela jakitea ez zen kezkatzen zituena, ezta gutxiago ere: Adele bere burua zaintzeko eta bere kabuz bizitzeko kapaza izango ote zen noizbait? Zalantza horrek inarosten zituen gurasoak. Zer gertatuko zitzaion Adele gizajoari noizbait beraiek ez bazeuden? Buruaski izaten irakatsi behar zioten, master bat sekula ikasiko ez bazuen ere. Baina nondik hasi, Adelek bere partetik hain gutxi jartzen bazuen?

Larak ere, inori zuzenki aitortu ez zion arren, larritasun bera izan zuen beti Adele hazten ikusten zuen bitartean: nork zainduko zuen Adele babesgabea, bere Adele txikia, hirurak falta baziren?

Taberna batean zerbitzari bezala hartu zuten, gurasoei fabore bat egitearren. Lan hori, guztien harridurarako, behar bezala betetzen ikasten bazuen, agian, gurasoek bere ostalaritza negozio propioa antolatzen lagundu ahalko zioten aurrerago. Bada, nahiz eta ikasten ari, ez zen munduko zerbitzaririk txarrena Adele. Ez zuen botila edo edalontzi gehiegirik puskatu, ez zuen sukaldea erre, ez zuen bandejan zeraman guztia bezero baten gainean bota, ez zuen inor iraindu, ez zion inori eraso egin. Baina, lehenengo hilabetea amaitu baino lehen, taberna kaka zahar hartara ez zela inoiz itzuliko esan zien gurasoei. Inor ez zen harritu.

Supermerkatu batean laguntzaile bezala har zezatela lortu zuen Inmak ere, produktuak apaletan jartzen, prezioen etiketak itsasten... horrelakoak. Antzekoa izan zen emaitza: Adelek ez zuen hondamendirik eragin, ez zuen produkturik edo dirurik lapurtu, ez zen bezero edo lankideekin liskarretan sartu –Alexek eta Inmak beldurrez itxaroten zituzten portaerak, hauek guztiak-, baina aste gutxiren buruan gehiago ez zela joango esan zien gurasoei.

Aitarekin eztabaida bortitz bat izan zuen garai berean. Etxean erretzea debekatuta zeukan Adelek –erretzea debekatuta zeukan, orokorrean, baina etxean egiten bazuen osasunari kalte egin ez ezik, sute bat eragingo ez ote zuen beldur ziren Inma eta Alex- baina, gurasoak lanean zeudela, telebista ikusten ari zen bitartean, egongelako sofan erredura deigarri bat egin zuen. Gainezka egin zuen Alexen pazientziak –edo pazientziak gainezka egin ziolako plantak egiteko aitzakia aurkitu zuen Alexek- eta liskar galanta hasi zuen –edo liskarra hastea bere eginbeharra

zela erabaki zuen-. Adeleren arduragabekeriak ez zituela gehiago jasango, etxea eta familia arriskuan jartzea gehiegizkoa zela, jada umemoko bat ez zela eta bizitza arduraz hartzeko adina bazeukala, eta antzekoak bota zizkion Alexek Adeleri. Eta etxetik botatzearekin mehatxu egin zion, mehatxuak kikilduko zuelakoan, lan egiten hasteko mehatxuak bezala. Etxetik alde egin zuen Adelek. Independizatu zen, bere hitzetan.

Berez, familiak jada erabiltzen ez zuen karabana batean bizitzera joan zen. Adele neskatila txikia zenean hamaika bidaia egin zituzten hirurek karabanarekin, baina Adele gurasoekin oporretan joatearen aurka agertu zen unetik etxe aurrean aparkatuta zegoen karabana, inora mugitu gabe. Alexek noizbehinka martxan jartzen zuen eta bueltatxo bat ematen zuen, herdoildu ez zedin batez ere. Inork erabiltzen ez zuenez, hura izango zela bere etxebizitza erabaki zuen Adelek eta gurasoei jakinarazi zien. Hori tranpa egitea zela esatea pentsatu zuen Alexek, independizatzea norberak sabaiaiatik ordaintzea esan nahi zuela eta ez gurasoen lepotik bizitzen jarraitzea, baina etxean tentsioa arintze aldera amore eman zuen eta utzi zion, karabanan bere kabuz luzaro ez zuela aguantatuko eta laster etxera itzuliko zitzaiela pentsatuz. Herriko basoaren erdian kanpaleku bat zegoen, jende askorik sekula ez zeukana baina neguetan ia hutsik egoten zena. Bertan aparkatu zuen karabana Adelek.

Hura izan zen kiskalita agertu zen karabana, gau oso batean zehar erretzen egon ondoren.

Istripu bat izan zela susmatu zen hasiera batean, kanpin-gasarekin gertatutako ezbeharren bat. Eta aieru txarrenak laster zabaldu ziren: Adele ere karabana barruan kiskalita hil zela.

Hasierako izu eta doluen ondoren, poliziak errekinak aztertu zituenean, haien artean giza aztarnarik ez zegoela baieztatu zuten. Hezurak ere errauts bihurtu arte erretzeko tenperatura altuegiak behar dira, karabana haren sutean ezin zirenak erdietsi. Giza DNARik ezta ere ez zen aurkitu errautsen artean. Baina Adele ez zen inondik agertzen.

Laborategiko analisisen emaitzak iristen ziren bitartean lekuko bat agertu zen. Herriko gizon bat zen, gau hartan basotik paseatzen zebilena, Adele karabana gasolinaz blai jartzen eta hari su ematen ikusi zuenean.

Non zegoen bada Adele?

Laster aurkitu zuten. Poliziak haren argazkia zabaldu zuenean, Pirinioetako kanpin batean atxilotu zuten. Atxilotu, bai, delitu bat –gutxienez- leporatzen baitzioten.

Polizia-etxera eramán zuten eta hortxe hasten zen honako istorio hau.

8

Aldi batez, iritziz aldatuko nuela sinetsi zuen Alexek, behin-behineko krisi bat igarotzen ari nintzela eta berak leize ilun hartatik aterako ninduela. Berarekin seme-alabak edukitzeko irrikatan egon beharko nuen, antza, eta aurkakoa ulertezina suertatzen zitzaion. Barkatu, ez nuke hain sarkastikoa izan beharko gauzak oroitzean, denborak eskaintzen duen ikuspegi seguruarekin: urteak joan dira, gazteak ginen, biok, guztiok, eta Alexek berak ere ziurrenik orain lotsagarritzat hartuko du bere orduko jarrera.

Edonola, iritziz aldatuko ez nuela onartu zuenean, berak bai seme-alabak nahi zituela aitortu zidan eta, hortaz, nirekin ezin zuela jarraitu. Gogorra izan zen. Biontzat, baina harentzat batez ere, esango nuke. Aipatu dudan Alexen segurtasun deigarri hura ez zen inondik agertu une hartan. Hitzak –hitzak izan baitziren, esaldirik ia ez baitzuen lotu- nekez erauzi zituen eta ezin izan zidan begietara begiratu.

Eta niretzat? Gogorra izan zen ere, esan dudanez, ez naiz gezurretan ariko. Harremana bertan behera uzteko une hori iritsiko zela lehendik espero nuen, nire benetako intentzioak aitortu nizkion unetik, baina nire baitan itxaropen izpi fimiño bat gordetzen nuen. Eta, bestalde, nire errua zela ezin nuen burutik aldendu.

Zentralean ikusten genuen elkar eta elkar agurtzen genuen heziketa oneko arauak gordetze arren. Besterik ez. Bikote bezala irteten hasi baino lehen lantokian geneukan harreman berezia, gainerako gizonezko lankideekin ez neukan hura, desagertu zen.

Ingurukoek zerbait larri gertatu behar izan zela susmatu zuten. Nola ulertu bestela haien begietara bikote perfektu eredugarri bat zena bat-batean banatzea eta gu bion artean sekula ezer egon ez balitz bezala jokatzeari? Alexi bai lagunek eta bai senideek galdetuko zioten zer demontre gertatu ote zitzaigun, baina, heldu zitzaidanagatik, Alexek ez zion inori azalpenik eman. Jakina, Alexen lagun zein senideak niri ez zitzaizkidan azalpen bila etorri. Etorri balira, zer esan behar nien ni? Alexen isiltasun irmo hark, ezjakintasunak, susmoek, misterioa areagotu zuten eta guztien irudimena hauspotu –berriro ere-.

Nik, nire aldetik, ez neukan lagun talderik, inguruan, jakin nahian, itaunka. Bakarra neukan, Inma, eta Inmak ez zidan galderarik egin. Errespetu adierazpen bat bezala hartu nuen hau eta konfiantzaz ordaindu behar niola erabaki nuen. Inmari bai, hari bai, azalpenak emango nizkion. Katekesi osteko kafea –kafeinarik gabekoa- hartzen geundela kontatu nion.

-Entzungo zenuen Alex eta biok jada ez gaudela elkarrekin.

-Hainbeste gauza entzuten dira. Denei kasua egingo banie...

-Hau egia da, eta nigandik jakin dezazula nahi dut. Eskubidea daukazu, nire lagun bakarra baitzara herri honetan.

-Eskubidea? Zurea da eskubidea, Lara, zurea bakarrik, nahi duzuna, nahi duzun neurrian eta nahi duzun hari kontatzeko, harik eta ondo sentitu arte. Larritzen, lotsatzen edo atsekabetzen zaituen ezer kontatzeko obligaziorik ez daukazu, ez niri ezta inori ere.

-Ezin nion eman berak nahi zuena eta aurretik argitzea hobe zela uste nuen, berandu izan baino lehen.

-Lara, benetan, ez didazu zertan azalpenik eman behar. Lasaiago sentituko zarela uste baduzu soilik utziko dizut jarraitzen. Lasaiago geratuko bazara, bai, kasu horretan bota nahi duzun guztia.

Seme-alaben konturik ez nuen zehazki aipatu, baina zer izan zitekeen bestela Alexek nahi zuena eta nik eskaini ezin niona. Sexuarekin lotutako zerbait izan zitekeela susmatuko zuen baten batek, baina ez Inmak -sexu harremanak izatera iritsi ote ginen jakin nahi ote du norbaitek ala? Benetan? Nire intimitatea goitik behera zabaltzen ari naiz eta horrelako zerbaitekin etorri behar zait norbait? Barkatu baina ez naiz horretan sartuko. Sexua edo sexu eza baino askoz garrantzitsuagoak diren gauzak kontatzen ari naizela esango nuke, huskerietan denbora galtzen ibiltzeko-.

Ez zidan galderarik egin Inmak, ez zidan xehetasunik eskatu, baina, gaia ateratzeak eragiten zidan larritasunaz jabetuta –aurpegian eta ahotsean sumatu behar zitzaidan-, gaiaz aldatu zuen eta irribarrez hitz egin zidan.

-Zu eta Alexen artean gertatutakoa jakiteko inolako gogorik ez daukat, zure benetako sekretua aurkitu baitut. Jakin dezazula. Erdipurdikoa deritzot Alexen arazoari, hainbeste ezkutatu diguzun sekretuaren ondoan.

Hotzikara bat sentitu nuen, egia esan, baina irribarrez ari zenez, txantxetan ari zela ulertu nuen eta lasaitu nintzen. Zertaz ariko zen?

-Zertaz ari zara?

Badakizu zure jatorriaz espekulatzen zenbat denbora eman duen herriko jendeak. Aspaldian ez gara horretaz mintzatu, baina jendeak ez du amore eman, antza denez, eta azkenean nor zaren aurkitu dute! Marta gogoratzen duzu? Nire adiskideetako bat. Bai, soberan dakizu nor den.

-Bai, nola ez.

-Bada, Marta, nik dakidala, gure adinekoen artean "bihotzeko" errebistak irakurtzen dituen bakarra da herrian, eta zure aurpegia horrelakoren batean ikusia zeukala esan digu behin baino gehiagotan, baina ez zekiela zehatz zer zela eta. Nik beste zurrumurru txoro bat zela uste izan dut beti, zuk eragin dituzun beste asko bezalakoa. Baina hara non datorkigun beste igandean errebista zahar batekin eta zure argazkia erakusten digun!

Banekien gertatuko zela, izan ere askoz lehenago gertatuko zela uste nuen. Irribarre egin nuen nik ere.

-Hau lotsa! –ez nuen esateagatik esan, benetan gorritu nintzen-. Zein zen argazkia?

-Nola diozu? Zein zela? Antzeko asko dauzkazu ala?

Barre egin genuen biok. Horregatik maite nuen –maite dut- Inma. Hark bakarrik lasaitu zezakeen hain erraz, ageriko esfortzurik gabe, hura bezalako egoera atezu bat.

-Ez nizuke xehetasun gehiegirik ematen jakingo –jarraitu zuen, barre artean-, baina torero batekin agertzen zinen.

-Horraino suposatzen nuen. Bai, tamalez behin baino gehiagotan irten nintzen aspaldian horrelako aldizkarietan, baina beti izan zen toreroaren alboan. Izan ere, toreroarekin nembilelako ateratzen zizkidaten argazkiak.

-Orduan egia da? Torero baten nobia izan zinelako zara ospetsua?

-Ez hasi adar joka, mesedez –lotsak gorri-gorri eginda neuzkan masailak-. Aspaldian gertatu zen hori. Ez nintzen ni, ez nintzen ezagutzen duzun Lara. Gainera, ospetsuegi ere ez nintzen bihurtu, zuk nire izena eta aurpegia ezagutzen ez bazenituen, eta Martak berak hainbeste bilatu behar izan badu.

Aitzakia irrigarriak baino besterik ez zitzaizkidan ateratzen. Ez nekien nola irten atakatik.

-Ados, ados. Torero baten nobia izan zinela ezkutatu didazu eta Alexekin gertatu zaizkizunak entzun beharko nituzkeela sinesten duzu ala? Errebistetan agertzen den torero baten nobia nola bukatzen den herri galdu honetan, zentral termiko batean lanean, da nik jakin nahi dudana!

Inmaren barrea ez zen ni deseroso sentiarazteko, alderantziz, aurkitutakoari zeinen garrantzi eskasa ematen zion aditzera emateko baizik. Horixe baldin bazen nire sekretua, lasai egon nintekeela iradoki nahi zidan bere txantxekin. Erdi txantxetan hitz egin baitzuen ordura arte, baina ez zuen hankarik sartu nahi gehiegi galdetuz.

-Jakiterik baldin badago, noski. Esan dizudanez, zurea da eskubidea.

Kontatu nion, jakina. Nola ez nion Inmari kontatuko. Hori baino besterik ez bazen!

-Bai. Udako nobio bat izan zen., besterik gabe, baina, hara kasualitatea, ospetsua zenez, kazetariak leku guztietara jarraitzen gintuzten. Marbellan izan zen. Badakizu udak Marbellan pasatzen nituela gurasoekin. Eta Marbella udan kazetariz lepo egon ohi da. Egunero albisteren bat edo argazkiren bat lortu behar dute, hori exijitzen diete euren hedabideek, eta aurkitzen ez dutenean asmatzen dute, edo erdipurdiko edozein albistetxo Pulitzer saria irabazteko modukoa balitz bezala janzten dute. Bada, uda hartan ni izan nintzen erdipurdiko albistetxo hanpatua.

-Baina ez zineten gazteegi? Legezkoa al da hain pertsona gazteen irudiak argitaratzea?

-Gazteegi... Adinez nagusia nintzen ni, karrerako azken ikasturtea hasi behar nuen irailean. Eta ez dakit toreroa nor zen ba al dakizun. Ez dituzu haren argazkiak ikusi?

-Egia esan, toreroez eta zezenketez txintik ere ez dakit. Ez dut sekula zezenketa bat ere ikusi, ez plaza batean ezta telebistan ere. Diru asko irabazten dutela entzuna dut. Egia al da? Senar aberats baten bila ari zinen?

-Inma!

-Barkatu... txantxa zen. Martak aldizkaria erakutsi zidanean zure argazkiei so geratu nintzen, zur eta lur, eta ez nion arretarik jarri zure alboan agertzen zen tipoari. Dena dela, arreta jarri banio ere, ez nuen ezagutuko. Gustukoa izango nuela uste duzu?

-Ez dut uste, ezagutzen zaitudanagatik. Ni baino nahiko nagusiagoa zen, hamar urte nagusiagoa uste dut. Txikitandik ezagutzen nuen nik, bere sendia eta nirea lagunak baitziren, eta udetan Marbellan elkarrekin denbora asko ematen zuten bi familiek, ni jaio aurretik ere, haien aitarekin izan ezik, hain justu, gurasoak banatu zitzaizkiolako, eta amarekin eta anaiekin bakarrik joaten

zen bera Marbellara. Geroago, oso gazte zela hasi zen toreatzen eta nolabaiteko arrakasta lortu zuen. Eta oso gazte ezkondu zen ere eta alaba bat izan zuen. Bihotzeko aldizkariei arreta txikiren bat jarri bazenie noizbait, hauek guztiak jakingo zenituzke jada.

-Badiotsut mundu horren inguruan ideiarik ere ez daukadala. Edonola ere, kontaktzen ari zarenak telenobela baten gidoitik ateratakoa ematen du. Siesta orduan ehun bider entzundako istorio bat kontaktzen ari zarela esango nuke. Ez zara zu ere txantxetan ariko, ezta? Zu baino zaharragoa zen gizon ezkondu batekin irten zinela? Nor eta zu?

-Bai, txantxa dirudi, baina hobe serial bateko gidoia balitz. Kasu horretan gidoilariari bota ahalko nion errua. Benetan ari naiz, tamalez, eta errealitatea idazten duen gidoilariaren une tamalgarrienak ez dituzu oraindik entzun.

-Ea ba, interesa piztu didazu.

-Ez zegoen ezkondata elkarrekin irteten hasi ginenean, dibortziatua zegoen. Dibortziatu berri zegoen uda hartan. Marbellan etxea zeukana bere emazte ohia zen eta bere gaztarokoa, amarena izandakoa, aspaldian zuten saldua, ama urte gutxi batzuk lehenago hil zitzaielako. Hortaz, urte askoren ondoren, bere bizitza osoan lehen aldiz agian, Marbellan uda pasatzeko etxerik ez zeukan toreroak. Eta gurasoek gurera gonbidatu zuten, betidanik seme bat bezala ikusi baitzuten. Dibortzioaren ostean bakarrik senti ez zedila nahi zuten.

-Etxean gonbidatua egon eta etxeko alaba limurtu? Hara torerotxoa! Eta gurasoak zer? Ez ziren haserretu? Ez zuten etxetik bota?

-Adinez nagusia nintzen, banekien zertan ari nintzen, gurasoek ez zuten ezer esan beharrik gure artekoaren inguruan.

Inmak bat-bateko larritasuna antzeman zidan, baina oraingoan ez zen isilduko.

-Hogei urterekin, alaba bat zeukan hogeita hamar urteko gizon batekin maitemindu zinela eta zertan ari zinen bazenekiela diozu? Benetan al zenekien? Badakit arrosa koloreko istorio hau nola bukatzen den. Ziur, aste gutxi batzuen ondoren, bere emazte ohiaz maiteminduta jarraitzen zuela konturatu zela eta bihotza apurtu zizula.

-Ez nioke hari erru guztia botako. Nik ere gure artekoak etorkizunik ez zeukala ikusi behar izan nuen. Anaia nagusi bati bezala begiratu nion beti. Badakizu, ahizpa bakarra daukat eta anaiarik ez. Sentimenduak nahastu nituen. Edo holako zerbait. Ez dakit zergatik esan dudan hori.

Gaiak larritzen ninduen, bai, argi zegoen, horregatik nahiago nuen isilean gordetzea.

-Toreroetxo zure sentimendu nahastuez probetxua ateratzen –Inmak- eta zuen gurasoek, seme bat bezala tratatu zutenek, ez zuten ezer egin? Etxeko ateak zabaldu zizkioten eta begira nola ordaindu zien konfiantza. Ezin dut sinetsi normala iruditu zitzaiela, ezer egin ez zutenik.

-Ez zen hainbesterako gauzarik. Izan zena baino handiagoa bihurtzen ari zara. Udako amodio-kontu nerabe bat baino ez zen izan. Nik ahaztuta neukan dagoeneko. Berandu egin zaigu, dena dela, etxerantz jotzen hasi beharko genuke.

Beste batek ez zukeen sumatuko, baina Inmak gaiaz aldatu nahi nuela argi ulertu zuen. Kafetegitik joan ginen.

IX

-Zergatik daukazu kokaina poltsa bat? Arazoak al dituzu drogekin?

Adelek kontaktzen zuena egia zela sinetsi zuenean, Lara izugarri urduritu zen. Itxarotekoa zen Adelek noizbait drogarekin arazoren bat izatea, atentzioa deitu nahi duten gazteen artean horixe baita bide ohikoenetako bat, baina beharrezkoa zitzaion horren urrun iristea?

-Zuk iradokitzen duzun moduko arazorik ez daukat, ez dut drogarik hartzen. Bestelakoa da nire arazoa.

-Adele, droga hori ezin izan da zure eskuetaraino kasualitatez heldu. Inori ez zaio horrelakorik nahi gabe gertatzen. Niri behintzat ez zait sekula gertatu antzekorik, ezta nik ezagutzen dudan inori ere. Nola arraio heldu zara horretaraino?

-Egia, egia osoa, kontatzeko inolako arazorik ez daukat, baina kasualitatez ezin dela gertatu uste baduzu, orduan ez didazu sinetsiko. Hala izan zen, kasualitatez, zuk sinetsi ala ez. Entzun al zenuen orain dela gutxiko albiste hura, supermerkatu bateko langileek kokaina aurkitu zutela platanoz beterik egon beharko zukeen fardel baten barruan? Albistegi guztietan atera zuten, eguneko bitxikeria bezala. Bada niri antzeko zerbait gertatu zitzaidan.

-Supermerkatuan aurkitu zenuen? Platanoen artean? Hori da sinetsi beharko nuena?

-Zabor biltegi batean aurkitu nuen. Norbaitek bertan utzi bide zuen beste norbaitek har zezan, eta bien artean nik topatu nuen.

-Zabor biltegi batean? Eta zeren bila ari zinen zu zabor biltegi batean? Zer galdu zitzaizun bertan, giltzak erori zitzaizkizun barruan ala?

-Birziklatzen ari nintzen. Jendeak gauza ugari botatzen du zaborretara, besteentzat baliozkoak izan daitezkeenak. Niretzat baliozkoak diren gauza asko topatu ditut zaborren artean.

-Janari bila aritzen zara zaborren artean? Zuk ez duzu horren beharrik! Gurasoek ez dizute sekula ezer ukatu, dirua behar baduzu eska diezaiekezu. Edo niri. Ez duzu zertan zabor artean harrapaka ibili behar. Gaixotuko zara!

-Gurasoengandik ez dudala ezer nahi badakizu. Lasai egon zaitetzke, dena dela, ez baita janaria bilatzen dudana. Karabanan neuzkan telebista eta bideoa zaborrean aurkitu nituen, adibidez. Noizbehinka bueltatxo bat ematen dut herriko zabor biltegietatik horrelako oparixoren baten bila. Ez dut beti intereseko zer edo zer aurkitzen, baina lantzean behin bigarren bititza eskaintzen diot abandonatutako etxeko tresnaren bati. Iluntzean pasatzen naiz, jendeak zaborra

atera duenean baina oraindik kamioia igaro ez denean. Halako bueltatxo batean fardela topatu nuen.

-Eta zer egiten zuen han, zaborrean? Azalpen logikorik ez zait otutzen.

-Esku batetik bestera pasatzeko modua omen da. Saltzaileak eta erosleak ezin dute leku berean elkar topatu eta leku ezkuturen bat hitzartzen dute merkantzia eskualdatzeko. Kasu honetan zabor biltegi hura zen hitzartutako puntua. Jakina, orduan nik ez nekien honelakorik, geroago azaldu didate. Jakin banu ez nuen ukitu ere egingo.

-Baina nola demontre bururatu zitzaizun hartzea! Zer egin behar zenuen, saldu? Nori? Non?

-Bai, hasiera batean bai, horixe zen nire asmoa. Koka guztia saltzea lortzen banuen sekulako dirutza eskuratuko nuen. Baina uste nuena baino askoz zailagoa da negozioa. Eta arriskutsuagoa.

-Begira, hori bai suposa nezakeela.

-Laster ohartu nintzen bi lagun neuzkala nire bila, fardela utzi zuena eta zabor biltegitik jaso behar zuena. Nortzuk ziren ez nekien, baina herritik galdezka ari zirela jakin nuen, eta haserre, oso haserre, zeudela.

-Bai ala? Nork asmatu!

-Gogoratzen duzu orain dela hilabete batzuk skate dendako Jon jipoitu zutela eta ospitaleratu behar izan zutela?

-Bai, orain dela bi minutu gogorarazi didazu zuk, hari egin zizkietenak burutik aldentzen ahalegindu nintzen arren. Jipoitu ez ezik, bestelako gehiegikeria izugarriak ere egin zizkietela heldu zitzaidan.

-Bai. Zuri ere, niri bezala, ipurtzulotik burdinazko hodi bat sartu ziotela esango zizuten, eta barne zauriak eragin zizkietela. Bada, Jon omen zen arratsalde hartan fardela hartu behar zuena.

-Ene jainkoa! Eta zergatik egin zioten hura? Zure erruagatik? Berak ez bazuen deus egin!

-Jonek fardela jaso ez zuenez, ez zuen ordaindu, eta, fardela utzi zuten hornitzaileek euren dirua eskatu ziotenean, zaborrean fardelik ez zegoela esan zien Jonek. Baina hornitzaileek ez zioten sinetsi fardelik ez zuela jaso eta ziria sartu nahi ziela uste zuten. Jon bezalako maila txikiko gameluen artean ohikoak dira horren antzeko gezurrak, ordaintetako atzeratzeko edo ez egiteko, eta hornitzaile handiek jada ez omen diete tutik sinesten. Zigor gogor batekin mehatxatu zuten ordaintzen ez bazuen, baina Jonek ez zeukan ordaintzeko dirurik, horretarako lehenago koka

xeheka saldu beharko zuelako. Azkenean, mehatxua bete behar izan zuten, dirua berreskuratuko ez bazuten lezio eredugarri bat emateko, aurrerantzean Jonen antzeko bestelako bezeroren batek antzeko iruzurrik ez saiatzeko.

-Hori guztia jakinik, nola ez zenien fardela berehala itzuli?

-Ez da hain erraza. Ez nekien nortzuk ziren, ez nekien nora jo. Baina gainera bi etsai neuzkan: hornitzaileak, Joni egin ziotenaren moduko zigor eredugarri bat eman nahian, eta Jon, berari egin ziotenagatik ordainarazi nahian. Inguratuta nengo.

-Baina nola zekiten zuk zeneukala fardela? Nori kontatu zenion?

-Ez zekiten, baina herrian zehar galdezka ari ziren. Dagoeneko asmatuko zuten. Horregatik erre nuen karabana, nire heriotza antzetzeko. Alde bietariko bakoitzak, hornitzaileek eta Jonek, beste aldekoek egin zutela sinetsiko zuten. Hori zen nire plana behintzat.

-Baina gezur horrek ez zeukan bizitza luzerik, jakingo dute dagoeneko zu ez zeundela karabana barruan eta agian zuk eman zeniola su ere jakingo dute.

-Dagoeneko ez badakite, hemendik lasterrera bai. Gainera...

-Gainera? Gainera, zer? Gehiago daukagu?

-Fardela ez daukat nirekin jada. Ihes egin nuenean, Frantzia aldera igaro baino lehen, mugan arazorik ez izateko ezkutatu nuen. Bide ertzean hesi bat zegoen, hesiko zutoinak zenbatu eta bosgarrenaren aurrean lurperatu nuen. Berreskuratu nahiko bagenu, haraino joan beharko genuke eta oraindik bertan jarrai dezan otoi egin. Suitzar laban batekin eta eskuekin egin nuen zuloa, ez zen sakonegia.

-Ama birjina! Poliziarengana jo behar dugu babes eske.

-Poliziarengandik gatoz, Lara, gogoratzen duzu? Ni bezalako piromano bati babes eskainiko diotela uste duzu? Koka fardelaren inguruko xehetasunak emango bagenizkie ez dut uste nire egoerak hobera egingo lukeenik. Kargu gehiago leporatuko lizkidakete, ostera. Eta babestuko banindute ere, ze neurri eta ze epean? Eta zeren ordainean? Ezkutatu beharra daukat, ahalik azkarren.

10

Ez dago maltzurregi izateko beharrik handik gutxira gertatu zena susmatzeko, irakurle-entzule inozoenak ere dagoeneko baitaki zer den ondoren kontatu behar dudana: Alexek ez zuen herritik irten behar izan nobia berri bat aurkitzeko, denbora ez luzeegian Inmarekin bikote harreman bat hasiko zuen.

Hemen hasten da kondaira honen melodrama zatia.

Dramaren maila nahiko epela izan zen hasiera batean, inolako traiziorik ez baitzen egon eta, hortaz, ez nuen Susan Haywarden paperik egin behar izan. Eskerrak, zeren keinu eta tonu hanpatu horiek inoiz ez dira nirekin bat etorri eta paper zeharo traketsa egingo bainuen. Baimena eskatu zidan Inmak Alexen gonbidapena onartu baino lehen, eta bien artean lehenago izan genuen elkarrizketa nolabait errepikatu zen, baina posizioak elkar aldatuta.

Herriko gure kafetegian izan zen, nola ez. Ez dakit zergatik ez ziguten gainprezio bat kobratzen.

-Ez didazu zertan baimenik eskatu behar, Inma, falta zaiguna! Ni ez naiz Alexen jabea, are gutxiago zeurea.

-Badakit, baina zure onespina behar dut, eta ez kontzientzia zuritzeko edo antzekoren bat. Ni Alexekin egoteak edonolako atsekabe edo minik eragiten dizula susmatuko banu, ezingo nuke harekin egon. Zalantza horrekin ezingo nuke bizi. Nire zoriontasuna zurearen kargura balitz ez nion nire buruari barkatuko.

-Garrantzi handiegia ematen didazu. Ez zenuke maila horretako ardurarik nire gain jarri beharko, baina lasai, benetan. Nire lagunak zarete biok eta zuek biok zoriontsu ikusteak zoriontsu egiten nau ni ere. Alex eta bion artekoak ez zeukan etorkizunik, ondo dakizu zuk hori, beste inork baino hobeto. Zuek biok, ostera, zoriontasuna ekarriko diozue elkarri. Ziur nago, dudarik gabe.

XI

-Zer egin dezakegu, Adele? Egoera ero honek irtenbiderik al dauka? Jipoitu behar gaituzte ezinbestez? Hilzorian utzi arte jipoitu ere. Ni ikaratzeko prestatu duzun amarru bat bada hau guztia, lortu duzula esan beharra daukat. Soberan.

-Zerbait bururatuko zaizu. Zuri beti bururatzen zaizkizu arazo guztientzako konponbideak.

-Zertara dator halako zerbait une honetan? Ez dut oso ondo ulertzen, ez nago oso bizkor. Ez al zara ironiatan ibiliko, ezta? Ez da ironientzako unerik egokiena. Eta koipea ematen ari bazatzaizkit, ez da gure estiloa. Ez zurea ezta nirea ere.

-Ez zen nire asmoa, ez bata ez bestea. Seriotan ari nintzen. Zuk beti konpondu dituzu besteen arazoak. Zugatik ez balitz ni ez nintzateke hemen egongo.

Harritu egin zuen Lara holako zerbait entzuteak, ezustean harrapatu zuen. Sofatik jaiki eta leihora hurbildu zen. Adelen begiak aurrez aurre izatera ez zela ausartzen esan zitekeen. Erantzunik ez zuenez jasotzen, jarraitu egin zuen Adelek.

-Amak esan zidan. Tira, egia da ez zidala horrela esan, baina horixe da hark kontatutakoarekin nik atera nuen ondorioa.

-Zuk erabiltzen dituzun esapide berdinak erabiliz, zu hemen egotearen arrazoia zuen gurasoen arteko maitasuna baino besterik ez da. Elkarri dioten maitasunarena, zurekin partekatu nahi zutena. Ez dago besterik, nik ez nuen inolako zeresanik izan horretan.

-Bertsio ofiziala, ume adoptatu batekin beti erabili ohi den azalpena. Nik, ostera, istorioaren aurreko partea ere ezagutzen dut eta horretan zuk zeresan handia izan zenuen. Alex eta Inmaren proposamena onartu bazenu, haiek ez zuketean Siberiaraino joan beharrik izango. Zuk beste erabaki bat hartu bazenu, batek daki ni noizbait Siberiatik irtengo nintzatekeen edo ez.

Lara leihotik begira jarraitzen zuen.

-Gero kontatuko didazu noiz eta zeren harira esan zizun amak hori guztia, eta zehazki zer esan zizun ere. Baina orain premia handiagoko beste arazoak dauzkagu esku artean eta aurre egin behar diegu. Zenbat denbora daukagu gure bila etor daitezen arte?

-Lasai egon gaitzke, momentuz. Jon, skate dendakoa, ezagutzen duzula uste dut, hortaz jakingo duzu ez dela munduko tiporik azkarrena, ezta inguru honetakoa ere. Eta hornitzaileak ere,

ezagutzen ez ditudan arren, pertsona adimentsuenak ez direla susmatzen dut. Haietako edozeinek ni aurkitu arte nahikoa denbora daukagu. Esan dizudanez, horregatik eman nion su karabanari: haietako bakoitzak sua besteak eragin zuela suposatuko zuen, besteak mendekuan aurrea hartu ziola usteko zuten. Eta hilik, kiskalita, nengoela suposatuko zuten, sorginek merezi duten zigorra jasota. Agian, haietako batek ere ez daki oraindik bizirik eta herrian nagoela. Leihotik begira ez dituzu etxera hurbiltzen ikusiko, lasai. Baina laster joango zaie baten bat kontuarekin. Poz izugarria ateratzen du jendeak kontuak zabaltzen, nahiz eta gaizkile arriskutsu batzuei izan. Hortaz, gaur ez dira etorriko, baina ezin dugu luzeegi hemen geratu besoak gurutzatuta eta buruari biraka.

Leihotik begira jarraitzen zuen Larak. Ez zitzaion hitzik ateratzen. Informazio gehiegi heldu zitzaion tarte oso laburrean, eta ustekabeen. Prozesatzen ari zen. Blokeatuta zegoen. Zer esan eta zer egin ez zekien. Sekula ez zituen atzazalak jan, baina une hartan atzazalak jateko irrika jasanezina etorri zitzaion. Zer egin behar zuen? Egoera hark irtenbiderik ba al zuen? Zer egin behar zuen neska gazte ganoragabe harekin? Norengana jo zezakeen aholku bila?

-Goazen! –bota zuen bat-batean.

-Nora? –erantzun zuen Adelek, lasai, inolako harridurarik gabe, Larak konponbide bat izango zuela zinez sinesten zuela adieraziz.

-Ezkutatza goaz. Aurkituko ez gaituzten nonbait. Laster! Maleta egin eta bagoaz.

-Nik ez daukat ez maletarik ez bertan zer sartzerik. Polizia etxetik esku hutsik irteten ikusi nauzu. Nire gauzak karabanaren sutean erre ziren eta nirekin eraman nuen motxila, Frantzian atxilotu nindutenean, bertan geratu zen.

-Berdin dio. Bizpahiru gauza poltsa batean sartuko ditut nik eta behar duguna bidetik eros dezakegu. Laster!

-Bidetik? Nora goaz? Ez diezu Alex eta Inmari deituko?

-Orain ez daukagu denborarik. Bidetik deituko diegu ondo gaudela esateko, baina hobe ahalik jende gutxien non gauden jakitea. Horixe da ezkutatzea. Tira, mugi zaitez!

12

Urteek aurrera egin zuten, adin horretan egiten duten moduan, ezarian, ezusteko handirik gabe baina denboraren eta patuaren ezinbesteko jarioarekin.

Alex eta Inma ezkondu ziren. Hori zen orduko nobio bikoteek egiten zutena, nobio bezala urte batzuk elkarrekin ibili eta urte batzuen bueltan elkarrekin ezkondu. Zentralean lan egitera etorritakoei etxebizitzak eskaintzeko asmoarekin eraikitako urbanizazio batean pisu berri bat erosi zuten, lau logeladuna. Eraikina oraindik amaitu gabe zegoenean erosi zuten, nobio bezala zebiltzanean, eta giltzak jaso zituztenean ezkondu ziren.

Nik, elizkizunean irakurri eta ondorengo ospakizunean dantza egin nuen.

Hurrengo urratsa seme-alabak izatea zen. Zertarako bestela hainbeste logela? Halaxe espero zuen mundu guztiak, ez bikote ezkonberriak bakarrik, nik neuk ere espero nuen. Baina seme-alabak ez ziren aurreikusitako epean heldu. Garai haiek ez ziren gaurkoak bezalakoak, bikote gazte bat ezkontzen zenean ez zuen bien arteko elkarbizitzaz gozatzeko epe bat hartzen seme-alabak izan baino lehen, oster, ezkondu eta berehala nahi zituzten ondorengoak. Alexek eta Inmak ere. Baina asmo hura ez zen planifikatu bezala gauzatu.

Inma ez zen haurdun geratzen, nahiz eta “baliabide” guztiak, “ahalegin” guztiak jarri. Horrelako esapideak erabiltzen ziren antzeko egoeratan eta halaxe azaltzen zidan Inmak biak bakarrik geundenean. Azalpenak ematera behartuta balego bezala. Izan ere, haurdun ez geratzearen benetako arrazoiak, arrazoi medikoak, ezagutu baino lehen ere, bere buruari errua botatzen hasi zen Inma. Lasaitzeko esaten nion nik, lehenik eta behin inoren errua ez baitzen, hori argi izan behar zutela eta, errua, ardura edo erantzukizunaren antzeko hitzak erabiltzeari utzi. Sarritan arazo psikologiko baten ondorioa izaten dela, eta ez ezintasun fisiologiko batena, esaten nion ere. Haurdun geratzeko presioak, nola edo hala, gorputzean eragina zeukala esaten nion, eta, hortaz, hobe zuela haurdun geratzeko ideia burutik aldentzea, bestelako gauzeekin arduratzea, eta orduan, ustekabe, “miraria” gertatuko zela. Bai, nik ere horrelako esapideak erabiltzen nituen. Zer esan behar nion bada hain atsekabetuta aurkitzen nuen nire lagunari? Mila bider entzunak zeuzkan hitz aringarriak, besterik ez zitzaidan bururatzen.

Seme-alabak mundura ekartzeaz neukan iritzi pertsonala ezin nion aitortu, jakina. Egoera hartan! Zoratuta al gaude! Nire lagunarekin, lagun bakarrarekin, lehenago behar bezain zintzoa ez izanagatik, orain ezin nuen harekin zintzoa izan eta beste edozeinek esango zizkion hitz hutsal

berberekin kontsolatzen saiatu behar nuen. Inmak merezi zuen lagunaren paperean kale egiten ari nintzen. Ez nengoen nire buruarekin pozik. Bestalde, seme-alabak izateaz egina neukan hautua aurretik aitortu banio, zer? Ziur bere momentuan erabaki guztiz errespetagarritzat hartuko zuela Inmak, bai, baina une hartan zer? Ez al ninduen isilean –edo agerian-gorrotatuko?

Azken posibilitate bat bazegoen ere: Inmak bazekien nik ez nituela nahi berak hainbeste irrikatzen zituen seme-alabak, baina ez nire partetik, Alexek kontatu ziolako baizik. Ze egoeratan jartzen ninduen posibilitate horrek? Bada, erdipurdiko lagun gezurti bat baino ez nintzen orduan, lagunak elkarrekin zinera eta kafe hartzera joateko baino besterik nahi ez dituen. Nire burua gorrotatu nuen garai hartan.

Gorrito honen arrazoi nagusia, dena dela, istorio hau jarraitzen ari den edonor oraintxe sentitzen ari den gorritoaren arrazoi bera zen: beste batzuk, nire lagunak zirenak gainera, igarotzen ari ziren une latz batean, arazoaren erdigunetzat nire burua jartzeko erakutsi nuen abilezia.

Itzul gaitezen, beraz, arazoaren protagonistengana.

Mediku ezberdinengana jo zuten Inmak eta Alexek aholku eta laguntza bila eta adituek Inmaren susmo txarrak baieztatu zizkieten: Inmak ezin zuen haurrik izan. “Antzua” zela esan zidan Inmak, negar zotinka.

Berri txarra zabaldu zenean –berri txartzat hartu baitzuen jakin zuen orok, salbuespenik gabe-, lasaitzeko esan zien mundu guztiak, hura ez baitzen munduaren amaiera –zergatik izan beharko zukeen?- eta adoptatzeko aukera geratzen zitzaiela –adoptatzea bigarren mailako aukera bat balitz bezala beti, galtzaileentzako kontsolamenduzko sari baten antzekoa-. Nik ikusi nuenagatik eta Inmak kontatu zidanagatik, bai senideek eta baita lagunek ere, guztiek, diskurtso bera errepikatu zieten. Nik ere, aitortu beharra daukat, antzeko hitzekin aholku berdina eman nien. Zer egin behar izan nuen? Nire laguna kontsolatu nahi nuen eta ez zitzaidan modu hobeagorik bururatzen une hartan. Ez zitzaidan lehenago antzeko egoerarik sekula suertatu eta ez nengoen prestatuta.

Inma eta Alex maite genituenok –benetan edo ustez- aho batez eman genien aholkuak, ordea, ez zituen kontsolatzen, ez behintzat Inma. Konponbide errazegia zen hura Inmaren aburuan. Handiegia zen bere errua, barkaezinegia, adopzio batekin barkatua izateko. Horrelako hausnarketa bihurri bat zen Inmaren baitan zebilena, barrua inarrosten.

Istorioak melodrama kutsua hartuko zuela ohartarazi dudanean, ez nenbilen txantxetan. Orain arte kontatutakoari, ikuspegi melodramatikoaren aldetik, arina baderitzo baten batek, eta genero kostunbristan sailkatuko balu melodraman baino lehen, orain datorrena, ziur, venezuelar telesailean sailkatuko lukeela edonork.

Inmak nolabait burua galdu zuela esango zuen baten batek, hein handi batean bederen. Erruaren harrak gizendutako eromen hark bide bihurtetik gidatu zion irudimena. Adopzioa baino aukera hobe bat bururatu zitzaion, bere buruan eta ez beste edonorenean hobeia zen aukera bat. Eta ez bide zen Inma burua nolabait galdu zuen bakarria, Alex ere bere asmakizun erora lerrotzea lortu baitzuen Inmak.

Euren etxean afaltzera gonbidatu ninduten, “guztiontzako onuragarria zen konponbide bat” proposatu behar zidatela esanez. Arraroa iruditu zitzaidan gonbidapena, baina ezta urrundik ere ez nuen susmatuko zertaz ari ziren.

Ez naiz afariaren xehetasunetan luzatuko eta zuzenean, afariaren erdian, Inmak bota zidana kontatuko dut. Begirada triste eta ero batekin bota zidan.

-Zure laguntza behar dugu gure seme edo alaba mundura ekartzeko. Nik ezin dut haurrik izan, baina Alexek bai.

...

-Zuk ez zenuke beste ardurarik izan beharko, guk hartuko genuke jaioberriaren ardura osoa hasierako momentutik. Zu baino ama hobeagorik ezin dugu imajinatu gure seme edo alabarentzat. Badakigu fabore handia dela eskatzen dizuguna, eskerga, baina bizitzan behin soilik hartu beharreko erabaki horietako bat da hau. Guztiontzat.

Pentsa nola geratu behar nintzen. Ikaraz begiratzen nien nire bihotzeko lagunentzako antza zeukaten ezezagun bi haiei. Nortzuk ziren, zer egin zieten Inma eta Alexi?

-Ezin didazue hau egin –nire ezpainenatik irtetea lortu zuten hitz bakarrak.

-Lasai. Badakigu arraroa, oso arraroa dela proposamena, baina asko hausnartu dugu. Alde guztietatik begiratu dugu eta guztiontzat adopzioa baino aukera hobeia dela uste dugu zinez. Alexen oinordetza genetikoa edukiko luke haurrak eta amarena ere ezagutuko genuke honela. Gainera ezin dugu, biok, zu baino ama hobeagorik imajinatu.

Ez dakit nondik eta nola etorri zitzaidan indarra edo ausardia edo arduragabekeria, baina proposamena bezain eroa zen erantzun batekin ez nintzen isilik geratu.

-Biek dakizue bizitzan behin hartzen diren erabaki horietatik, nik nirea hartua nuela: seme-alabarik ez edukitzearena. Erabaki horren arrazoia, nire gaineko ardurarik hartu nahi ez dudala dela uste duzue? Benetan? Horren gutxi ezagutzen nauzue? Zuek, nire lagunik hoberenak? Erantzukizunik hartzen ez duen arduragabe bat bezala ikusten nauzue?

Erotuta zeudela aurpegiatzera ez nintzen ausartu, baina iraindu banindute bezala biktimaren plantak egin nituen, kinka larritik ihes egiteko. Azken finean iraindu ez, baina eraso egin zidaten.

-Ez genuen hori esan nahi. Soberan dakigu pertsona eskuzabala zarela. Agian ezagutzen dugun pertsona eskuzabalena zu zara. Horregatik ausartzen gara tamaina honetako fabore bat eskatzen, zu bezalako pertsona eskuzabal eta maitekor batek bakarrik ulertuko gintuelako eta proposamena ulertuko. Gure seme edo alaba sabelean ernaltzea eta haztea pentsa daitekeen eskuzabaltasun adierazpenik handiena dela uste dugu. Zer esanik ez, behin erditu eta gero gure ardurapean uztea. Munduko pertsonarik eskuzabalenak bakarrik egingo luke horrelako zerbait, zuk alegia. Zu zara pertsona hori, ez beste inor. Beste edonori antzeko zerbait proposatzea ez zitzaigun ezta burutik pasatuko. Zuk ezetz erantzuten badiguzu, ez diogu beste inori proposatuko.

“Hau ohorea!” pentsatu nuen nire baitan, baina ez nuen esan, ez zitzaidan ironiarako une egokirik iruditu. Berez, pentsa litekeen unerik desegokiena zen hura ironiarako.

-Ulertzen dugu ez dela bat-batean har daitekeen erabaki bat. Lasai pentsatu eta esango diguzu.

Zergatik ez zuten amore ematen? Benetan konbentzitura zeuden esaten ari zirena gauzagarria zela unibertso honetan?

-Ez! Ez, Inma, ez da lasai pentsatzeko ezer. Bioi esan dizuet seme-alabarik ez edukitzeko erabakia hartua neukala. Irmoa. Behin betikoa. Ez dizuet uler dezazuela eskatzen, soilik, mesedez, errespetatu dezazuela. Arren.

XIII

-Nire erabakia erraza da –esan zuen Adelek-, benetan zaila izan behar zuena zurea zen. Zerk bultzatu zintuen erabaki irmo hori hartzera?

Autoan zihoazen biak, Lararen autoan, gauez, errepide ilun batean zehar ihesi. Azkar joan nahi zuen Larak, ahalik azkarren herritik urruntzea, baina autoaren potentzia murriztak, gauak gidatzeari eransten dion zailtasunak eta bere zuhurtziak abiadura motelarazten zioten.

-Zertaz ari zara?

-Ez egin ezulertuarena nirekin. Zure erabakiaz ari naiz. Amak eta aitak, bakoitzak bere aldetik eta une ezberdinetan, kontatu zidaten seme-alabarik ez duzula nahi. Arrazoi horregatik erabaki zenuela ez ezkontzea, alegia, ez zenuela ez ezkontzea erabaki, seme-alabarik ez edukitzea baizik.

-Tira, badirudi hemen ezinezkoa dela sekretu bat gordetzea. Zer dela eta kontatu behar zizuten horrelakorik? Zeren harira irten daiteke holako zerbait zuen arteko elkarrizketa batean?

-Ez zaitetz haserretu. Egia esan ez dakit, ez dut gogoratzen. Galderaren bat egingo niela suposatzen dut, galdera inozoren bat, eta erantzuna behar baino zintzoegia izan bide zen haien aldetik. Egia, egia osoa, aitortzera behartuta sentituko ziren ziurrenik. Zure erabakiaren berri eman bazidaten, erabaki horrek nirekin harremanen bat zeukala uste zutelako izango zen. Zuk zer uste duzu?

Ez zuen berehala erantzun Larak.

-Baliteke –ausartu zen azkenean-. Haien iritzian nire erabakia deitzen diozun horrek zurekin zerikusirik izan dezake. Baina ez da horrela.

-Ziur?

Isiltasuna.

-Adele, ni ez naiz zuen ama, ezta aita ere, ez naiz zure tutore, arduradun edo erantzule. Nik ez nuen erabaki Alexek eta Inmak Siberiaraino zure bila joatea, ez dut horren errurik edo ardurarik, baina meriturik ezta ere.

-Zuk badiozu ez dut eztabaidatuko.

Isiltasuna. Errepide luze, zuzen, ilun bat baino besterik ez haien begien aurrean, autoaren faroek apurka argitzen zihoazena.

-Bada, jakin daiteke zerk bultzatu zizun erabakia hartzera? Eta zergatik ez zinen sekula itzuli Madrilerara, zure jatorrirra?

-Nork esan dizu horrelakorik?

-Badakizu, etxean gauzak entzuten dira. Umeeek, nagusiek esaten duten guztia entzuten dute, eta aditzen dute, nahiz eta momentuan ezer gutxi ulertu, eta oroimenean gordetzen dute. Nik halako zerbait entzuna nuen, zu ez zinela inoiz Madrilerara itzuli, ez zenuela sendiarekin harremanik, ez Eguberri jaietan ezta oporretan ere ez zinela gurasoak bisitatzera joaten.

-Eta gezurra balitz? Herriko jendearen irudimenaren beste adibide bat izan daiteke, besterik gabe. Ondo dakizu zuk noraino hel daitekeen gure herrikideen irudimena.

-Gurasoek komentatu zuten noizbait eta haiek ondo ezagutzen zaituzte. Herriko beste edonork baino hobeto ezagutzen zaituztela esango nuke.

-Eta zer zeritzoten nire portaera horri, nik senideekin harremanik ez izateari?

-Zugatik kezkatzen zirela esango nuke. Zerbait larri gertatu zitzaizula susmatzen zuten.

-Nire iraganean zerbait ilun bilatzen aritu ziren Alex eta Inma? Haiek ere? Ez nuen uste horrelakoak zirenik.

-Ez izan zeken. Badakizu ez direla horrelakoak. Ez zuten orbanik bilatzen zure iraganean, zugatik kezkatuta zeuden. Bakarrik ikusten zintuzten eta lagundu nahiko zintuzten. Ez zenuke modu bihurrian ulertu beharko.

-Zuk esan behar didazu orain ez manipulatzeko ala? Lasai, txantxetan nenbilen. Ederto ezagutzen ditut Alex eta Inma eta baneukan haien kezka horren berri. Biek, bakoitzak bere aldetik, nire sendiarekin zer gertatzen zen galdetu zidaten aspaldian, eta argibiderik ez nienez eman, ez ziren tematu. Nire pribatutasuna errespetatu zuten.

-Merezi al du? Horrenbesteko pribatutasunak esan nahi dut. Zure zauria aireratu bazenu oinazea bigunduko zitzaizun. Barnea inarosten dizun zerbait hainbeste gordetzeak oinazea areagotu baino besterik ez du egiten.

-Hara! Nork eta zuk barne zauriez eta oinazeez hitz egiten! Oso ziur hitz egiten duzu horren gazte izateko. Horren inguruan gauza bat edo bi badakizkizula ematen du.

Alexek eta Inmak adoptatu egin zuten azkenean.

Haurdunaldian haien bitartekari izatea proposatu eta nik proposamenari uko egin ondoren, beste bitartekari bat bilatuko zutela pentsatuko zuen batek baino gehiagok, baina ez, zorionez – edo zoritxarrez, gertatu ez zen zerbait ez baitago epaitzerik- garai hartan alokairuzko umetokiak ez ziren jendartean zebilen gauzarik. Ez da hainbesterako joan den denbora, hogeit hamar urte inguru baino besterik ez dira, baina holako xehetasunetan pentsatzean beste mende batez ari garela ematen du –bai, badakit aurreko mendeaz ari naizela, baina ulertzen zait-. Alokairuzko umetoki bat –nirea ez zen beste umetoki bat- bilatzea ez zen, beraz, Alex eta Inmari burutik pasatu zitzaizen ezer. Eta zorionez hala izan zela irten zait lehenago, zeren, egin balute, ez dakit zein izango zen nire erantzuna. Alokairuzko umetokien praktikaren inguruan iritzi nahiko irmoa daukadala esango nuke, baina nire bihotzeko lagunek erabili izan balute, zer? Are gehiago haien zorientasunerako zein garrantzitsua zen jakinik. Ez al nituzke nire iritziak irentsi behar izango? Edo agian ez? Burua guztiz eta konponbiderik gabe galdu zutela uste izango nuen eta haiengandik urrunduko nintzen?

Berrit diot: zertan galtzen dut denbora burutazio pozoitsu horiekin, gertatu ez den eta sekula gertatuko ez den zerbaitez ari banaiz? Nor ote da burua galdua daukana, ni baino?

Alex eta Inmak adoptatu zutela esan dut, kondaira berreskuratze aldera, baina adoptatzea erabaki zutela esan behar nuen, erabaki zutenetik adopzioa burutu zuten arte urte batzuk igaro baitziren.

Laurogeita hamarreko hamarkadan sartuak geunden ordurako, ez geunden Erdi Aroan. Adopzioak, legezkoak, ez ziren jada frankismoaren garaikoen antzekoak, alegia, guraso biologiko eta adopzio-hartzaileen arteko itun bat, kontratu bat. Gazteenek jakin dezatela, ordurako legeak haurren eskubideak lehenesten zituela, egun bezala. Guraso biologikoen borondatea berme batzuekin adierazi eta jaso behar zen eta, batez ere, fiskaltzak eta administrazioak adopzio-hartzaileen egokitasuna ebaluatu behar zuten. Berme hauek guztiek eragotzi nahi zutena beste garai bateko jardura anker batzuk ziren, guztiok entzun ditugun haur jaioberrien lapurretak eta salerosketak, mediku eta moja gaizkileen esku. Prozedura luzatu zezaketen legezko berme hauek guztiek, baina ez lukete Alexen eta Inmaren asmoarentzat oztoporik izan behar, jakina. Azken finean, nor izan zitekeen Inma eta Alex baino adopzio-hartzaile egokiagorik? Bada, hala eta guztiz ere, ez zen agertzen Alex eta Inmarentzat haurrik. Haien aurretik, haiek bezain guraso

egokiak ziren milaka pertsonen –bikoteen batik bat- zerrenda bat zegoen, adoptatzeko haurren zain.

Laurogeiko hamarkadaren hasieran geunden, nioenez, antisorgailuak guztiz zabaldua zeuden, haurdunaldiaren etendura ere legezkoa zen –teorian hiru kasu jakinetan soilik; emakumeek ero zeudela edo erotu zitezkeela onartu behar zuten gehienetan, mediku baten artatzearekin haurdunaldia eteteko, baina tira, legezkoa zen-, haurren jaiotzak bilatuak ziren, irrikaz gehienetan. Gurasoek –amek- adopzioan ematen zituzten haur jaioberriak gutxi batzuk ziren soilik. Ehunka gutxi batzuk bakarrik urtero, estatu mailan.

Eta milaka ziren urtero haur bat adoptatzeko borondatea adierazten zuten pertsonak –bikoteak-

.

Ilara amaigabe bat, aurrera egiten ez zuen ilara bat, etsigarria, edonoren itxaropenekin akabatzeko modukoa.

Historiaren jarioa izan zuten ezusteko laguna. Laurogeiko hamarkadaren amaierarekin Altzairuzko Oihala erori zen eta Europa Ekialdeko errejimenean komunisten gainbeherarekin hasi zen hamarkada berria. Zertaz ari naizen badakigula suposatzen dut, gazteenek ere. Hamarkadetan sobietar langileriak pilatutako aberastasuna, egun batetik bestera, elite plutokrata baten esku nola bukatu zen aztertzen eta azaltzen ez naiz geldituko, gehiegi ez desbideratze arren, baina aitortu beharra daukat orduan, nire jatorriagatik edo –esana dut lehenago ere: madrildar burgesian jaio, hazi eta hezitakoa, frankismo garaian oihartzuna zeukan abizen bat neramana-, albiste ezin hobea eta itxaropentsutzat hartu nuela nik ere, mundu guztiak bezala.

Kasua da, Sobietar Batasunaren bukaerak arazo ekonomiko larriak eragin zituela. Eta hau ez da iritzirik, Historia liburuetan agertzen da, Historia liburu zintzoetan, arpilatzea, benetako arpilatzea izan dadin, gutxi batzuen onurarako bakarrik izan baitaiteke, gehiengo baten sufrimenduaren lepo. Errusian hedatu ziren ekonomia eta gizarte arazo larri horiek haur jaioberrien abandonatzeen ugalketa eragin zuten. Eta abandonatutako milaka haur haiek jada ez zeukaten zaindu eta babestuko zituen estatu egitura sendorik. Errusiako umezurtz-etxeek gainezka egin zuten. Geroago jakin nuen nik hau guztia. Orduan horrela azaldu balidate, komunista arriskutsu, gezurti, haserre eta nahiko kantsagarri baten aurrean nengoela pentsatuko nukeen. Egoera bera azaltzeko beste modurik ere egon daiteke eta, alderdikoia naizela inork esan ez dezan, hona hemen: Altzairuzko Oihala eroritakoan, hark Mendebaldeko begietara ezkututzen zuen guztia agerian geratu zen; tartean, Siberiako umezurtz-etxeen

egoera, eta nola ama estatu sozialistak bere seme-alaba guztien beharrianak betetzeko gai ez zen, nahiz eta denbora luzean, hamarkadetan, aurkakoa aditzera ematen zinez ahalegindu.

Choose your fighter.

Orduko Aita Santuak eta Reaganek hainbeste txalotu zuten “komunismoaren porrota”, ez zen izan Historiak Inma eta Alexen laguntzan eskaini zuen gertakizun bakarra. Handik gutxira - 1993.ean, hain zuzen, begiratu baitut-, eta lehenago aipatu ditudan gertaeren ondorio izan zela esatera ausartuko nintzateke, Nazioarteko Adopzioarako Ituna sinatu zuten hainbat herrialdek Hagan. Inmak eta Alexek ez zeramaten denbora gehiegirik adopzioarako ilaran, baina bai guraso izateko irrikan, eta itxaropen izpi bat begiztatu zuten aipatu itunean. Gainerakook, mundu gehiena, ez ginen enteratu ere. Urte pare bat igaro ziren oraindik Espainiak Hagako Itun hori berretsi zuen arte eta, noski, adopzioaren ilarak ez zuen gehiegirik aurrera egin epe horretan. Inmaren nerbioak lehertze zorian zeuden jada. Beraz, Espainiak ituna berretsi zuen une berean, berehala, nazioarteko adopzio prozedura bat hasi zuten Alexek eta Inmak. Korrikalariak lasterketaren hasierarako tiroaren zain bezain atezu egon zen bikotea ordura arte.

Ez zen uste zutena bezain erraza izan, hura ezta ere. Agentzia eta abokatu espezialisten bitartez egin zuten prozedura osoa, legeak ezartzen dituen urrats eta berme guztiak behar bezala betetzeko; baina, nor izan daiteke “espezialista” ordu laurden bateko historia daukan espezialitate batean? Dirutza handia aurreratu behar izan zuten. Dirua bera ez zen arazorik, ez baitira pertsona mizkinak ez bata ez bestea ere, baina zertarako zen dirua? Norentzat? Zein eskuetan amaituko zen diru hura? Iruzur baten erdian sartu ez ote ziren galdetu zioten euren buruei prozeduraren uneren batean, norbaitek euren esperantza eta ilusioz ez ote zuen probetxu aterako, dirua hartu eta ihes egingo.

Zorionez, ez. Errusian euren alaba izan nahi zuen urte beteko neskatila bat bazegoela jakinarazi zieten handik hilabete batzuetara.

Oso urrun joan behar izan zuten euren helburua asebetetzeko. Siberiaraino, munduko azken bazterreraino joan behar izan zuten. Ez zen arazorik izan Inmak bere haurra besoetan hartzeko munduko azken bazterreraino joateko prest zegoela esana zuen noizbait, eta hitzez hitz egin zuen.

Neskatila bat ekarri zuten Siberiako Irkutsketik, hilabete gutxiduna. Amak, beste errusiar eta siberiar emakume askoren antzera, alkoholarekin arazoak zeuzkan, edo alkoholaz baliatzen zen

bere arazoei ihes egiteko, ezkongabe zegoen eta ez zuen bere burua umeak zaintzeko gai ikusten. Umezurtz-etxean utzi zuen alaba jaio eta berehala.

Adele jarri zioten izena. Zergatik? Ez zen noski orain entzutetsua izaten hasten ari den abeslari ingelesaren omenez. Adele horren inguruan ez zuen inork entzun orduan; nola entzungo zuten bada, sei edo zazpi urteko neskatila bat izan behar baitzuen! Izen gehienen atzean istorio bat dago eta honen atzean ere badago bat; baina kasu gehienetan ez da ezer oso interesgarririk eta honetan ezta ere. Inmak bere amamaren izena jarri nahi zion alabatxoari, Adela, baina Alexek andre zaharraren izena zela hura uste zuen eta kutsu modernoago bat eman nahi zion. Adele bururatu zitzaion, unibertsitate garaian irakurtzen zituen komiki batzuen protagonistagatik.

Haur berezia izan zen Adele betidanik, Siberiatik herrira heldu zen unetik. Ez soilik fisikoki, gainerako beste haurrengandik ezberdinak ziren hazpegiak zeuzkalako; ez soilik ingurumen guztiz arrotz batean murgildu zutelako –haren iritzia galdetu gabe, haur txikiek ez baitute iritzirik, are gutxiago umezurtz badira-. Adelen berezitasun nagusia bere izaera barnerakoia izan zen, isila, mesfidatia, hasierako unetik eta betirako. Gurasoekin zeukan komunikazio bakarra, eta haiekin ere halabeharrez, beste irtenbiderik ez zitzaiolako geratzen soilik.

Haur eskolan ez zuen inolako interesik adierazten gainerako haurrek egiten zutenarekin. Ez zen beste haurrengana hurbiltzen eta baten bat urreratzen zitzaionean, ez zuen indarrez edo bortizki erantzuten, baina ez zion jaramon izpirik ere aditzera ematen inoiz. Ez zuen benetako lagunik egin, ez nesken artean ez mutilen artean. Urtebetetze ospakizunetara klaseko lagunak joaten zitzaizkion, baina gurasoek antolakuntza lan garrantzitsua egiten zutelako, ez haiekin adiskidetasun harremanik zeukalako. Alex eta Inma ziren guzti honengatik sufritzen zutenak. Adelek berak ez zuen ematen batere sufritzen zuenik, bakarti izan eta beti bakarrik egoteagatik. Geneak ote ziren, ingurumena ote zen, batek jakin! Eta jakiterik balego ere, zer egin?

Haurdunaldiak, zer esana al du gure nortasunean? Siberian ez zituzten ohartarazi baina, herrira itzulitakoan, pediatra batengana eraman zuten Adele txikia eta honek susmo bat zena –aldendu nahi zuten susmo bat- egiaztatu zien. Adelen hazpegiak ez zeukaten soilik siberiar jatorriko berezitasunak, baizik eta fetuaren alkoholismo sindromeak eragiten zituenak ere. Adelen ama biologikoa alkoholikoa omen zen eta haurdun zegoela ez zuen alkohol edateari utzi –alkoholikoek ezin dute-. Eta horrek fetuaren bilakaeran ondorioak izan zituen, jakina.

Pediatrak esan zienagatik, aurpegian hain agerikoa zen eraginaren antzeko isla bat izan behar zuen sindromeak haurraren burmuinean ere, nortasunean alegia. Sindromearen sintomak eta

ondorioak oso xeheki deskribatuta zeuden medikuntza literaturan, bai fisikoak eta baita psikologikoak ere, hala nola, barnerakoitasuna, isiltasuna, susmo txarra.

Alex eta Inmak jaso zuten atsekabea itzela izan zen, ez baita inoren gustuko bere alabak arazo horiek izango dituela jakitea, baina ez ziren lur jota gelditu, indarrez aurre egin zioten ostera.

-Inor ez da perfektua. Gu biok ote gara ala? Bakoitzak bere zailtasunak, bere ahuldadeak, bere arazoak dauzka, eta Adelek bereak ditu eta orain badakizkigu zeintzuk diren. Arazo guzti horiei aurre egiten laguntzea da gure ardura, beste edozein gurasoen moduan, Adele ahalik eta zoriontsuen eta osasuntsuen haz dadin. Eta lortuko dugu.

-Bai, lortuko dugu.

XV

Hiri dekadentea da Marbella.

Beti izan zen hiri dekadente bat, hirurogeiko hamarkadan jet-set izeneko jendilajea bertara joaten hasi zenetik. Marbellako “urrezko garai” hartako dekadentzia, edonola, Erromatar Inperioarenaren antzeko dekadentzia bat izan zen: dirutza eskergak, Europa Erdialdeko noblezia, Ekialde Ertaineko petrodolarrak, andaluziar pikaroak biltzen eta nahasten zituen; xanpainaz –beti epel omen zegoena, Mila Ximenezen lekukotzaren arabera-, gustu beldurgarri, kokaina metez eta inolako lotsarik gabe jantzia guztia.

Baina Adele eta Lara heldu ziren goizean Marbella hura kitatua zen aspaldian: une hartan Marbellaren gainbeherak zerikusi handiagoa zuen Detroit batenarekin edo Seseña batenarekin. Xekeen dirua eta lekua errusiar plutokratek hartua zuten, baina hauek ere ordu larritan ziruditen eta haien diru eta negozio ilun eta zikinen usainera urreratutako nazioarteko mafiak ziren Marbellako bizilagunen kopuru handiena.

Nazioarteko jatorriko gaizkile banda ezberdinekin batera, beste giza espezie bat bizi zen Marbellan: urrezko garaiko nostalgiarekin bizi zena eta hura berpizteko ahalegin lotsagarriak egiten zituen, espainiar jatorriko ustezko jet-set zaharkitu bat, urrezko garaian arabiar xekeei parrandak antolatzen aberastu zena eta haien ihesaldiaren ondoren sosik gabe gelditu zena. Espezie honetako lagunak -atso-agureak gehienak, baina haien seme, alaba edo bilobaren bat ere- oraindik euren abizen konposatuen oihartzunaz baliatzen ziren bizirauteko, eta Marbella kiskali baten errautsetatik sugar berri bat berpizten saiatzen ziren noizbehinka, iruzurrerako eta zurikerietarako zeukaten erraztasun ia genetikoa baliatuz.

Urrezko garaian astero aldizkari mota jakin bateko azal guztietan agertzen ohi ziren pertsonaiak ziren, eta oraindik, garai haietako nondik norakoak eta gehiegikeriak kontatzeagatik, hedabideetan espazioak betetzen zituzten eta dirutxo bat eskuratzen zuten.

Hauetako pertsonaia batena –edo birena- izan behar zuen etxe baten aurrean zeuden Lara eta Adele, gau osoan zehar gidatu ondoren, Marbellara iritsi eta autoa aparkatu zutenean. Itsasertzean eraikitako etxe bat, une hartan indarrean zeuden urbanismo lege guztietatik kanpo zegoen eraikuntza bat. Kanpotik andaluziar kortijo baten itxura imitatzen zuen, baina barnean -handik gutxira Larak eta Adelek ikusi ahalko zuten- laurogei eta laurogeita hamarretako maximalismo nabarmenaren aztarnak kontserbatzen zituen oraindik, hala nola, igerilekuko urre

koloreko eskaileratxoak, edo hondoan Medusa buru baten irudia egiten zuen mosaikoa. Dena dela, etxe barruan, holako estilo arranditsuaren aztarnatxoak geratzen ziren arren, dekorazioa nahiko minimalista zela esan zitekeen. Jada ezin zitezkeen aurkitu garai batean bainugelak apaintzen zituzten Miróak edo afrikar piztia disekatuak edo urre eta kristalezko lanpara erraldoi beldurgarriak. Orduan, Adelek etxe hartako zorua zapalduko zuen egunean, hormak biluzik zeuden, zoruan ez zegoen alfonbra pertsiarrik. Larak bazekien dekorazio aldaketa haren arrazoa, noski, baina Adelek berak ere berehala asmatuko zuen: dekoratzailearen edo etxeakoandreaken gustua ez zen aldatu, oster, etxearen jabeek apaingarri baliotsu haiek guztiak saltzera behartuta egon ziren.

Ate nagusiko txirrina jo zutenean etxeakoandreak zabaldu zien, gizarte gaietako aldizkarietako aurpegi –oso- famatu bat, tunika zuri bat jantzita, oinetan takoirik gabeko urre koloreko sandaliak. Atea zabaldukoan bi emakume zirela ikusi zuen, baina haietako baten aurpegia bakarrik ezagutu zuen.

-Kaixo, ama –agurtu zuen Larak-.

...

-Nola erreazionatu behar dut hainbeste urteren ondoren? -esan zuen azkenean atea zabaldu zuen andreak.

-Hogeita hamar urte dira. Bizitza bat, bai, baina ez hasi dramekin, ez da momentua. Nekatuta nago, gau osoa eman dut gidatzen. Urte guzti hauetan beti deitu dizuet ondo nagoela esateko, ez duzue larritzeko arrazoirik izan. Bazenekiten bizirik nengoela eta inork ez ninduela bahitu. Ez nuen espero zuk atea zabaltzea, zerbitzarien lana zela hori uste nuen.

-Zure bila joan ez gintezen ere deitzen zenuen. Urte hauetan guztietan oso tematia izan zara beti xehetasun horrekin. Zergatik? Zer egin genizun? Zerk bultzatzen du alaba bat bere amarengandik ihes egitera? Igandea da gaur, neskamearen egun librea.

-Soberan dakizu. Ez gara orain horrelako eztabaidekin hasiko. Sar gaitzke?

-Eta zerk bultzatu zaitu orain itzultzera? Jakiterik baldin badago.

-Adele, Cuca da hau, gure ama. Ama, Adele da hau, lagun bat.

-Pozten nau ezagutzeak.

Eta abar.

Cucaren ahotsa, haren azentua, keinuak, mugitzeko era... guztia, Adelek aurretik telebistan soilik ikusia zuen, Venezuela eta Kolonbiatik heldutako kulebroietan: etxean egoteko bano besterik ez, lakaz orraztua, makilatua –betile faltsu eta guzti- eta dotore jantzia zegoen andrea.

-Afaltzen geratuko zarete? -sarreratik etxerainoko bidean-.

-Egun batzuk egin behar ditugu hemen.

Adelek ez zuen Lararen alde hori ezagutzen. Adelek ezagutzen zuen Lara pertsona bero, maitagarri bat zen, ez bere aurrean zeukan izotz puska hura. Amarekin erabiltzen zuen destaina hura ez zion sekula inorekin erabiltzen ikusi, ezta destainaz tratatua izateko sobera arrazoi eman zizkion jendearekin ere.

Goiko solairu bat zeukan etxeak eta hara, eskailerak gora, Cucak lagundu zituen Lara eta Adele, hauen logeletaraino. Zabalak ziren logelak, gustu bitxiaz aukeratutako altzariz apainduta. Adelen gelaren hormak arrosa kolorez margotuak zeuden. Arrosa zen ere ohe gaineko koltxa eta arrosak ziren ohe gaineko kuxinak. Hormak ordea nahiko biluzik zeuden, ia apaingarririk gabe – argazkiren bat, pailazo baten erretratu kitsch bat-.

Lo egin zuten egun osoan, lasai, salbu, eta afalordurako esnarazi zituen Cucak.

...

Afalostean Adele eta Lara etxeke portxean eseri ziren. Marbellako udaberri gau bat zen, Adelen herrian ezezaguna zen epeltasun batek estaltzen zituen. Adelek ezagutzen ez zuen beste zerbaite ere bazegoen airean, lurrin gozo gogor bat.

-Gaueko dama da –azaldu zion Larak-. Gaez zabaltzen dira bere lore ñimiñoak eta lurrin berezi hau hedatzen da nonahi. Iparraldeko kliman ez da landarea hazten.

Aurrera begira zeuden biak, etxeke sarrera nagusiaren bestaldean zegoen itsasoari begira, ilargia bertan nola islatzen zen begira. Beste barik.

-Kontatu behar didazu ala?

-Zer kontatu?

-Ez hasi zuk ere zuen ama bezala. Zertaz ariko naiz bada? Zergatik alde egin zenuen hemendik? Zer gertatu zitzaizun?

-Ez zen nire lekua, dagoeneko ikusiko zenuenez. Nire bizitza egin nahi nuen eta nire tokia aurkitu behar nuen.

-Jakina. Diozun hori mundu guztiak egiten du adin horretan, baina, munduan zure lekua bilatzeko, ez duzu gurasoak ikusi gabe egon behar hogeita hamar urtean. Tira, nik ez dizut erregutuko; nahi baduzu kontatuko didazu eta ez baduzu nahi ez. Baina kontatzeko gogoarekin etorri zara. Nabaritzen zaizu.

Larak itsas azal beltzaren gainean ilargiak margotutako zilar koloreko errepideari begiratzen zion, kontakizuna hasi zuenean.

-Zuk ez duzu jakingo, beste belaunaldi batekoa zarelako eta baita holako gaietan interesik ez duzulako sekula izan. Amak ezta ere ez du sekula izan: herrian elkar ezagutu genuenean ez ninduen errekonozitu, ni aurreko hilabeteetan bihotzeko aldizkari guztien azaletan egon nintzen arren.

Garai hartan susmo txarrez hartzen nituen hurbiltzen zitzaizkidan ezezagunak. Famaduna nintzelako hurbiltzen zitzaidala susmatzen nuen. Eskarmentuak irakatsi zidan prebentzio txotxolo hori izaten.

Zergatik irteten nintzen aldizkarien azaletan? Jakin nahi duzu? Bada torero baten nobia nintzelako. Bai, mundua izugarri aldatu dela dirudi, baina funtsean orduan bezain ganoragabeak izaten jarraitzen dugu egun. Zer esanik ez, molde horietako aldizkarien edukiak ez dira deus aldatu.

Hortaz, oraintxe burura etorri zaizun klixen hori nintzen ni orduan, orain dela ia hogeita hamar urte. Egia esateko, nigan, edo nire orduko nigan, oinarrituta eraiki zen klixen hori. Badakizu, familia oneko neskatila gazte, ederra, ikasketaduna, torero batekin maitemindu eta ezkontzen dena; bere ikasketak eta lan munduan aurrera egiteko proiektu guztiak alde batera utzita, kortijo batean bizitzeko. Patricia Rato, Paloma Cuevas, Viki Martín Berrocal... kopiazaile hutsak guztiak. Ni nintzen haien inspirazioa. Dena dela, ni ez nintzen ezkondu, maitemindu bai, bekainetaraino, baina ezkondu ez. Tentelkeria ugari egiten dira adin horretan. Maitemintzeaz ari naiz.

-Nik ongi dakidala iradokitzen ari zara? Ergelkeria ugari egitearena aipatu duzunean.

-Ez, ez naiz ezer iradokitzen ari. Honako honetatik ezer ez da zuri buruz, nitaz ari naiz orain.

Etxe hau ikusi duzu? Nire pisutxo baina pixka bat handiagoa da, ezta? Gurasoen etxea baina handitxoagoa ere bada. Ziurrenik ezagutzen duzun edozein etxe baina handiagoa da orain hemen gauden hau. Zure zorioneko autokarabana ez dugu aipatuko. Eta Marbellako kostaldeko lehen lerroan. Horko atetxo horretatik irtenda, hondartzan zaude. Higiezin merkatuaren inguruan informatuta zauden ez dakit, baina, badaezpada, hau bezalako etxe bat populazioaren ehuneko oso txiki batek bakarrik eskura dezakeela esango dizut.

-Lara, mesedez, iraingarria da hori. Autoa etxe aurrean aparkatu eta txirrina jo duzunik argi neukan etxe hau jende aberatsena zela. Eta etxeko andreari ama deitu diozun unean, zu ere aberaskume bat izan zinela ohartu naiz. Ez naiz azkarregia, denok dakigu hori, baina horren ezjakina ere ez naiz.

-Barkatu, ez zintudan iraindu nahi. Bada, halaxe da, udak pasatzen genituen etxe honengatik eskaintza eskergak egin omen zizkioten nire aititari, pertsona oso aberats, oso famatu eta oso boteretsuek, baina nire aititak ez zuen sekula saldu nahi izan, bere familiarentzat eraiki baitzuen. Eta eskaintzen zioten diruaren inolako beharrik ez zeukalako. Badira urteak hemendik ez naizela agertu, ondo dakizunez, baina aitak eta amak ere oraindik antzeko eskaintzak jasotzen jarraitzen dutela esango nuke. Etxe hau orain legez kanpo dago, itsasotik hain hurbil ezin baita eraiki orain, baina oraindik jendeak (jende aberatsak), hau bezalako legez kanpoko etxe bakan bategatik, dirutza lotsagarriak ordaintzeko prest dagoela apustu egingo nuke, Marbella bera ere orain dela hogeita hamar urtekoa ez den arren.

-Eta zuen aita eta amak saldu gabe jarraitzen badute, diru horren inolako premiarik izan gabe jarraitzen dutela iradoki nahi duzu.

-Hala dirudi. Nik dakidanagatik (eta sinetsiez ez naizela nire familiaren nondik norako finantzarioez batere arduratu haiengandik urrundu nintzenetik) gure aitak ez du negozioen munduan gure aititak izan zuen arrakasta maila bera erdietsi. Ez omen zaizkio negozioak txarto joan, baina ez zaizkio guztiak ondo atera. Mota askotako negozioak sustatu baitituzte gure aitak eta amak euren bizitzan zehar, ostalaritzan, higiezin salerosketan, inportazio eta esportazio deitzen zituzten asunto ilunago batzuetan ere... Baina aititak metatu zuen dirutzaren antzekorik ez dute lortu haietako batean ere, eta, ohituta zeuden bizimodu maila mantentzeko, aitita-amamarengandik oinordekotzan jasotako ondasun asko saldu behar izan dituzte.

-Batere arduratu ez izateko informazio xehea daukazula ematen du.

-Benetan diotsut, niri bost axola haiek euren diruarekin egiten eta desegiten dutena. Baina nahi gabe ere halako informazioa iristen zaizu. Ahizpa bat daukat, Cristina, nire orduko lagunak haien lagunak izaten jarraitzen dute... Ezinezkoa da guztiz eta erabat iraganetik aldendu, norberaren heriotza antzeztuz ez bada.

-Ikusten! Niri arrazoa ematen amaitu duzu: horixe da nik egin nuena, heriotza antzeztu!

Isilik geratu zen Lara unetxo batez, hausnartzen, Adeleren arrazonamenduaren tranparen bila. Baina ez zegoen tranparik.

-Arrazoi duzu. Hortaz, agian nik ere, antzeko egoera batean, etxeari su emango nion. Ez nituzke besteen ekintzak hain arin epaitu beharko.

-Lasai, adinaren gauza da. Zure adinekoek ez dute inoiz ontzat hartuko nire adineko baten ekintza, aurreikusitako eta agindutako lerroetatik irteten bada, emaitzak onuragarriak izan arren ere. Gu babesteko egiten duzuela diozue, horrek edozer justifikatuko balu bezala.

-Zuen nagusiek, hots, gurasoak eta nik neuk ere zure kasuan, zuek babesteko obligazio ukaezina daukagu. Ukaezina. Obligazio horri uko egiteak edo, are gehiago, muzin egiteak, ondorio oso itsusiak eragin ditzake. Guztiontzat. Gaua, gau hau, luzatzen bazaigu, horren inguruan zerbait kontatuko dizut ere. Baina desbideratzen ari garela uste dut. Zertan ginen?

-Zure familiaren dirutzaz ari zinen, edo zuen aititak pilatutakoaz, hain zuzen. Zer dela eta egin zen hain aberats zuen aitita, bada?

-Egia da. Horretara iritsi nahi nuen. Toreroaren asuntza aurkitu zuten herrian. Aldizkarietan irten ohi diren neska hutsal horietako bat izan nintzela jakin zuten. Ez zen zaila izan, nire argazkia aldizkarietan agertu baitzen. Baina horrekin konformatu ziren, inor ez zen gehiago sakontzen ahalegindu. Nahikoa zuten horrekin, nire misterioa argitua zegoen. Argazkien oinetan agertzen ziren nire abizenak nola edo hala ezagunak gertatzen zitzaizkien batzuei, baina herrian inor ez zen gelditu abizen horien sona nondik zetorren ikertzera. Ez nintzen hainbesterako garrantzitsu edo misteriotsu. Orduko errebistetan bazirudien beti izen berdinak ateratzen zirela eta bi edo hiru familia bihotzeko aldizkarien soldatapean zeudela haien edukia astero betetzeko. Familia ditxosozko horietako partaide bat ezagutu zuten herrian, beraien artean bizitzera joan zena. Ez zegoen besterik, ez espioirik, ez ezkutuko komunistarik, ez antzekorik ere. Ez nien interes gehiagorik piztu. Eskerrak. Inmak bai, Inmak bazekien askoz gehiago egon behar zuela nik kontatu nahi ez nuena, ondo ezagutzen ninduen, ondo ezagutu ninduen hasieratik, baina nire isiltasuna beti errespetatu zuen eta, gai bati buruz mintzatu nahi ez nuela sumatzen

bazuen, berak aldatzen zuen gaia. Zeinen maitagarria den Inma. Ez dakit nola egon zaitezkeen beti harekin haserre eta eztabaidan.

Laburbilduz, agian, Inmari uneren batean kontaktuko nizkion orain zuri kontaktzera noakizunak. Nire bihotzeko laguna zen eta konfiantza hori merezi zuen. Baina, hitz egiteko prest egon nintzenerako, Inma ohituegia zegoen galderarik ez egitera eta hau bezalako elkarrizketa bat edukitzeko abagunerik ez zaigu sekula suertatu. Hortaz, zu izango zara nire familiaren inguruko xehetasunak jakingo dituen herriko lehenengo pertsona.

Ez begiratu horrela. Ohore bat da. Agian bost axola zaizkizu entzutera zoazen antzinako kontuak, ezezagun dituzun pertsonaia batzuen pasadizoak, baina behin hizketan hasi naizela ez nago isiltzeko prest. Leku eta une desegokienetan egoteagatik zuri tokatu zaizu aguantatzea. Sentitzen dut.

-Ez sentitu, lasai. Lehenago nik ere galdetu dizut zergatik alde egin zenuen Madrildik eta zergatik ez zinen itzuli. Jakin nahian nago, irrikan.

-Pelikulekin egin zuen dirua aititak. Zine ekoizlea izan zen.

-Espainian zinearekin dirua egin daiteke ala? Hori bai ez nekiela.

-Nire aititak eta beste bizpahiruk behintzat bai. Ez dakit gehiegirik horren inguruan. Baina ixo eta aditu. Sekula beste inork entzun ez duen istorio bat kontaktzera noakizu eta, hortaz, solemnitate apur bat eman behar zenioke egoerari. Itxura gordetzearren baino besterik ez bada ere. Zuk kokaina paketearen istorioa zeneukan ni txundituta uzteko, ba nik gordeta neukana ez da makala ere. Atentzioak merezi du.

-Barkatu, barkatu. Benetan interesatuta nago. Isilik eta belarri zabalik naukazu. Eta ez da txantxa.

-Birraitona, amamaren aita, zine ekoizlea zen jada Errepublika garaian. Errepublika zer izan zen badakizu, ezta? Gerra Zibilaren aurreko garaiaz ari naiz. Gerra Zibila zer izan zen behintzat jakingo duzu. Bada Errepublika garaian Espainian ekoizten ziren pelikula gehienak nire birraitonak ekoitzi zituen, gehiegi ere ez baitziren. Eta horrela jarraitu zuen Gerra Zibilaren ondoren ere, frankismoaren hasierako urteetan. Orduan, aitita ere bere aitaginarrebarekin, hots, birraitonarekin, lanean hasi zen zine ekoizle bezala. Horrela ikasi zuen lana edo, hobe esanda, horrela ikasi zuen frankismoaren garaian pelikula bat egiteko dirua nondik eta nola lortu, pelikulak nola merkaturatu eta zein motako pelikulak izan zitezkeen arrakastatsu garai eta

giro hartan. Helburu guzti horiek lortzeko, Francoren errejimenaren begietara onargarriak ziren baloreak azpimarratu behar zituzten pelikulek, jakina. Franco bera zine gidoilaria izan zela ba al zenekien? Ba bai, Francok pelikula baten gidoia idatzi zuen, batena behintzat bai. “Raza” izen beldurgarria jarri omen zion munstroari. Ez dut sekula ikusi, baina zabor itzela dela apustu egingo nuke. Franco nor izan zen jakingo duzula suposatzen dut.

-Bai, Lara, badakit. Mota horretako galdera gehiegi bota dizkidazu epe laburrean. Lehenengoa, pasa liteke; bigarrena, tira, zu zarelako onartzen dizut; baina hirugarrenetik aurrera iraingarriak dira. Eta orain zu zara istorioaren aria mozten ari zarena.

-Oi oi oi! Barkatu, katedradun andere hori, ez zen nire intentzioa zure jakinduria zalantzan jartzea. Azal fina zer daukagun gero! Nik neurera. Bada, balore nazionalkatolikoak pelikuletan islatzen ikasi zuenean, bere ekoiztetxe propioa sortu zuen aititak, berrogeita hamarreko hamarkadan. Eta dirua pilatzen hasi zen. Enpresa gizon arrakastatsu baten istorioa bezala saldu zen aititarena urte askotan, hamarkadetan. Egun ere noizbehinka horrela iruzkintzen da oraindik. Nik ere orduan eredutzat neukan eta miresten nuen. Aitita nuen, azken finean. Edonola ere miretsiko nuen. Baina ongi pentsatuta, meritu handirik ez zuen izan haren arrakastak. Egia da ordurako bazeudela Errepublika garaian baino zine ekoizle gehiago Espainian, eta telebista ere garai berean hasi zela emititzen, baina hala ere, aititaren pelikulek egun “gatibu” deitzen den ikuslegoa zeukaten. Jendeak, jende guztiak, aisialdian ez zeukan ia beste zereginik zinera joatea baino. Garai hartan sesio bikoitzekoak ziren zineak, hots, bi pelikula segidan ematen zituzten, bigarrena amerikarra izan ohi zen gehienetan, baina lehenengoa, beti, espainiarra. Hortaz, mundu guztiak ikusten zituen aititak ekoiztutako pelikulak, beste aukerarik ez zegoen eta.

Ni neskatala txikia nintzenean ere, oraindik sesio bikoitz horiek bazeuden. Orduan ikusi nituen lehen aldiz aititaren pelikulak. Aititak eginak zirela banekien gurasoek esaten zidatelako eta nik, noski, azti boteretsu bat balitz bezala miresten nuen aitita, harridura, errespetu eta harrotasunez. Pentsa: pelikulak egiten zituen aitita bat neukan! Ea nork hobetzen zuen hori! Marrazki biziduneko pelikulak egingo zituen norbait bakarrik miretsiko nukeen gehiago. Bai, neskatala txikia nintzenean nire pelikula gogokoenak “101 dalmata” edo “Aristokatuak” ziren, eta aititak ez zituen horrelakoak egiten, baina harenak ere oso oso gustukoak nituen. Horretarako pentsatuta zeuden azken finean, ez haurrentzat zehazki, baina bai familia osoaren gustukoak izateko, gurasoek seme-alaba txikiekin (eta aitita-amamekin ere) batera ikusteko. Franskismo garaiko familia ereduak horrela bere isla zeukan pantailan. Egungo aniztasunaren ikuspegitik pentsaezinak lirateke orduko filmak, baina ez soilik aititarenak, guztiak, amerikarrak

ere. Baina hori, egun egin dezakedan hausnarketa bat da. Orduan ez, orduan pantailan ikusten nuen mundua nire etxearen antz izugarria zeukan, bertan agertzen ziren etxeak eta familiak eta umeak eta aita-amak, nire ikastetxeko lagun guztien antzekoak ziren. Ez nekien, ezin nuen, bestelako mundurik existitzen zenik.

Sesio bikoitzak desagertu zirenean ere, zinera aititaren pelikulak ikustera joaten jarraitu nuen. Estreinaldietara eta guzti eramaten ninduten gurasoek, dotore jantzita eta orraztuta, orduan haiek dotore zenaren zeukaten irizpidearekin, jakina. Argazkiak ikusiko bazenitu! Ziurrenik etxe honetan baten bat aurki genezake. Nire lepotik gehiegi barre egingo ez duzula agintzen badidazu erakutsiko dizkizut. Aldi berean, telebista hedatzen eta orokortzen joan zen. Kate biko telebista publikoa, ez gaur egun telebista bezala ezagutzen duguna. Eta telebista publiko hartan aititaren pelikulak ere behin eta berriz emititzen zituzten, larunbat arratsalde batez ere. Hara! Zenbat urte joan diren, zenbat aldatu den gizartea, mundua, hedabideak, telebista, zinea... eta horretan behintzat ohiturak berdin dirau, muineraino errotuta: oraindik ere, larunbat arratsaldeetan aititaren pelikulak ematen dituzte telebistan.

Bada, aititaren pelikula haien artean, zinean edo telebistan ikusten nituela, gogokoen nituenak, nire antzeko neskatila ilehori batenak ziren, beti alai, irribarretsu eta zoriontsu zegoena eta, errepikatzearen errepikatzeaz antzua den esapidea erabiliz, "aingeruek bezala abesten" zuena. Zintzoa izanik, ni bezalakoa ikusten nuen, haren lehenbiziko pelikula ikusi nuenean, haren adina izango nuelako, baina ni baino mila bider ederragoa zen Lucía. Maitagarria. Zoragarria. Horrelako sentimendu gehiegizkoak eragiteko asmoarekin egiten dira pelikulak azken finean. Zuk ere ezagutuko duzu agian, ezta?

-Izena esan duzunean, haren kantaren bat entzun dudala uste dut. Telebistako saioren batean abestu zuten. Antzinako artista baten kanta zela uste dut esan zutela, jada hilik dagoena. Kasualitatez entzun nuen. Nik ez dut ia telebistarik ikusten.

-Ez dago hilik. Zorionez.

-Beste batez ariko ziren orduan. Badiotsut ez diodala telebistari arreta handirik jartzen.

-Ez, ziurrenik Lucíaz ariko ziren, abizenik gabeko Lucía honetaz, beste Lucíarik ez dago eta. Haren pelikulak lehen aldiz ikusi nituenean, nire adineko neskatila bat zen pantailako Lucía. Eta adin horretan izoztuta geratu zen. Pantailatik kanpoko neskatilak, tartean ni, haziz joan ginen, gaztetxo bilakatu ginen, nerabe, emakume gazte, baina Lucíak bidaia horretako hasierako urratsetan soilik lagundu gintuen. Urte gutxi batzuk soilik zahartu zen Lucía zine eta telebista

pantailetan, zentimetro gutxi batzuk altuago egin zen, baina haren bularra ez zen hazi eta, zer esanik ez, ez zitzaion aurpegian zimurdurarik sortu. Nerabezaroaren ertzean zintzilikatutako neskabila bat bezala betirako izoztuta geratu zen pelikuletan. Horrela ikusten genuen haren jarraitzaileok, behin eta berriz, hazten, zahartzen, gindoazen bitartean. Esan dizut haren pelikulak oraindik ematen dituztela telebistan. Noizbehinka, ironiaz edo aurkezten dituztela esango nuke, iraganeko bitxikeria bat bailiran eta ez merezi duten errespetuarekin, baina baliteke nire inpresioa baino besterik ez izatea.

Lasai, ez izan presarik, luze joko du honek eta. Behin hasita, luzaroan gordeta neukana osorik bota behar dut. Begira. Lucíaren lehen pelikula ikusi nuen unetik harekin liluratuta geratu nintzen, beste milaka, milioika pertsonak bezala; eta, aititarena omen zenez filma, neskabila txikia nintzen arren, aititaren bitartez harengana iristeko bidea izan nezakeela bururatu zitzaidan. Gurasoei esan nien Lucía ezagutu nahi nuela eta haren laguna izan nahi nuela. Lucía nire laguna izatea nahi nuen. Haur txiki baten txorakeria bat balitz bezala erantzun zidaten, biek, bai aitak eta bai amak. Pelikulak ez direla egiazkoak azaldu zidaten, pelikuletan agertzen dena ez dela benetan gertatzen. Hiru urteko haur bati eman ohi zaion azalpena eman zidaten. Soberan nekien nik hori! Zazpi edo zortzi urte izango nituen orduan, ez hiru. Eta hori nahikoa ez balitz, pelikulak egiten zituen familia batean jaioa nintzen! Soberan nekien aktore bat zer zen eta zer pertsonaia bat. Lucía aktorea ezagutu nahi nuen, haren laguna izan nahi nuen. Neskabila txikia izan arren hori ulertzeko gauza banintzen jada, eta gurasoen erantzunean nolabaiteko urduritasuna sumatzeko gauza ere banintzen. Normalean beste heldutasun batekin hitz egiten zidaten, ez zen haien estilokoa horren erantzun ganorabako bat ematea.

Haurrek ez dute nagusien mundua, haien portaera, ulertzen, baina portaera horretan desadostasunen bat dagoenean igartzen dute. Seigarren zentzumen hori adinarekin desagertzen doala esango nuke. Pentsa, hitz egiten ez dakiten haur txikiak, hitz egiten ez dakiten beste haur txikiekin komunikatzen direla. Telepatia da hori! Gero, helduaroan, inkomunikatzen, isolatzen ikasten dugula esango nuke, baina hori beste gai bat da, beste egunen batean komentatu ahal duguna. Kasua da nik, nire zazpi edo zortzi urteekin, gurasoen portaeran desadostasuna antzeman nuela, baina ez nuen jakin interpretatzen (nola egingo nuen zazpi urterekin) eta laster ahaztu nuen, ez nintzen gaiarekin tematu.

Momentuan ez nintzen tematu, baina haziz nindoan heinean Lucíaren pelikula gehiago ezagutzen nituen, aititak ekoiztuak den-denak. Hainbat pelikula egin zituzten elkarrekin, orain ere ezingo nuke ziur esan zenbat, eta epe oso laburrean izan behar zuen Lucíaren itxura film guztietan oso antzekoa baitzen. Lucíak nire familiarekin, aititarekin behintzat bai, urtetan hain

lotura estua izan ondoren, haren izena gure etxean aipatu ere ez egitea, haren berririk ez izatea, arraro iruditzen zitzaidan. Hasiera batean gurasoen aurrean nire burua ulertarazten ez nuela jakin pentsatu nuen: urte batzuk gehiago baneuzkan eta banekien pelikuletako Lucía ez zela nire adineko neskatila bat, urte gehiago izan behar zituela, baina hala ere ezagutu nahi nuen. Halaxe jakinarazi nien gurasoei (berriz). Eta berriz ere posible ez zela erantzun zidaten, lehorrago oraingoan: familiak Lucíarekin harremanik ez zeukala esan zidaten.

Ez nindutela ulertzen pentsatu nuen (nerabezaroaren ertzean nengoan, hots, gurasoek ulertzen ez zaituztela sinesten hasten zaren garaian), Lucía ezagutzea niretzat zeinen garrantzitsua zen ez zutela ulertzen eta, laster ahaztuko zitzaidala sinetsita, jaramonik ez zidatela egiten. Horrenbestez, nire eskaera asetzeko benetako ahalmena zeukanarengana jo nuen, aititarenengana. Antzeko arrakastarekin. Iraganeko gauzak zirela esan zidan, ahaztuta zeuzkala aspaldian eta Lucíari buruz deus ez zekiela, ez non bizi zen, ez haren telefono zenbakia, ezta Lucía izena oraindik erabiltzen ote zuen ere. Txundituta utzi ninduen, esan beharra daukat, ez nuen horrelako erantzun zakarra aititarenengandik espero; aititak beti ematen zizkigun ahizpa eta bioi eskatzen genizkion gurari guztiak. Ordura arte.

Ez nuen amore eman. Ez burugogor izatearren, ez mizke nintzelako (bereziki mizkea ez nintzen, benetan), egoera hura ulertzen ez nuelako baizik. Hura ez zen gurasoen erantzuteko ohiko modua, are gutxiago aititarena. Erantzun arraroak, portaera bitxiak ziren haiek, eta haien atzean zer zegoen aurkitu nahi nuen. Hirugarren saiakera bat egiteko aukera nuen, behin-betikoa izan beharko zuena, alegia, handik erantzun argirik ez banuen lortzen etsiko nuen. Amamarenengana jo nuen. Eta amamak, azkenik, hitz egin zidan. Ez zen oso argia izan eta, geroago aurkituko nuena jakinik, ez zen batere gardena izan, baina besteek aipatu ez zituzten zertzelada batzuk ihes egin zioten. Ahots goran pentsatzen ari balitz bezala bota zituen, oharkabea, adi nengoela edo ulertu nezakeela jakin ez balu bezala. “Beste alaba bat bezala hartu genuen eta hara nola ordaintzen digun” esan zuen eta baita “neska horrek familia honi buruz esan dituen gezurrak”.

Susmatzen nuena: gatazka bat. Lucía eta nire senideen artean gatazka bat zegoen eta haren atzean, edo haren ondorioz, arrangura, haserrea eta gorrotoa ere antzeman zitezkeen. Hobe nuen zaurian gehiegi sakontzen ez banuen.

Gurasoek egia esaten dute beti eta beti dute arrazoa. Haiek esandakoa ez da zalantzan jartzen. Hori da araua semeak edo alabak hamalau edo hamabost urte betetzen dituen arte. Une horretan, halabeharrez, guztiz aurkakoa gertatzen da: gurasoek ez zaituztela ulertzen eta bizieta hondatu eta zorigabekoa bihurtzen ahalegintzen direla sinesten hasten zara. Biologiak

behartutako zerbait da, gurasoengandik aldendu gaitezen, endogamia saihesteko. Zer esango dizut zuri gai honi buruz, adituen artean aditua zaren horri, hogei urterekin oraindik gurasoen aurkako jarreraitsu horretan tematuta darraizun horri?

-Isilik adituko nuela agindu dizut, baina kitzikatzen jarraitzen baduzu erantzun beharko dizut. Zuk ikusi.

-Ez nuen zirikatatu nahi, barkatu, zure buruaz irri egiteko gauza zinela uste nuen, beste barik. Ez dezagun gatazka berririk hasi, hain ganoragabekorik ez behintzat. Gurasoek eta aitita-amamak esandakoa hitzez hitz onartu nuela esaten ari nintzen, hamabi urte nituelako. Baina zerbait ezkututzen edo behintzat isiltzen ari zirelako susmoa, sentsazioa, geratu zitzaidan. Eta, noski, urte pare bat geroago, nerabetasunarekin batera gurasoenganako aurkakotasuna hazi zitzaidanean, argitu gabeko susmo haren oihartzuna ozenduz joan zen ere. Lucíarekin zer gertatu zen aurkituko nuen, senideen laguntzarik gabe eta haiek jarritako eragozpenei aurre eginda ere. Badakizu, arropa jakin batzuk jarri nahi nituen eta amak ez zidan uzten; diskoteketara joan nahi nuen eta aitak ezetz, gazteegia nintzela; hamabietara arte egon nahi nuen lagunekin, ostiral eta larunbatetan, eta hamarretan etxean ez banangoen hurrengo asteburuan irten gabe zigortuta geratzen nintzen. Aitak eta amak nire zoriontasunari oztopoak jartzea baino beste zereginik ez zeukatela ematen zuen. Bizitza hondatu nahi zidaten. Ziur Lucíari ere antzekoak egin zizkiola aititak eta horregatik, azkenean, ihes egin behar izan zuela. Banekien nik lagun onak izan gintezkeela eta elkar ondo ulertuko genukeela. Baiezkatuko nuen, mozorroa kenduko nien. Nolabait. Aitita eta amamaren etxean lan egiten zuen jendeari galdetuz agian. Bururatuko zitzaidan nola. Baina egia azaleratuko nuen eta aurpegiratuko nien, eta Lucía egin bezala, nik ere familia harengandik ihes egingo nuen.

Hori zen hamabost urterekin buruan bueltaka nerabilena, nerabe txoriburu baten tontakeriak. Egitasmo txoro harekin aurrera egin banu, ez dakit zer nolako komeriak suertatuko zitzaizkidan. Aitita-amamaren etxeko neskame eta sukaldariak, ziurrenik, galdera deserosoak egiten ari nintzaiela kontatuko zieten nagusiei; eta ni, ziurrenik ere, gurasoengandik errieta jaso ondoren, nire gelan muturtuta amaituko nuke, hilabete osoan irten gabe zigortuta. Baina zorionez ez nuen inolako putzutuan sartu behar izan egia asmatzeko. Mirari bat gertatu zen. Mirari izenarekin, jakina, zoriak bidalitako kointzidentzia bat esan nahi dut.

Kasua da, Lucía bera etorri zitzaidala egia argitzera. Bai, Lucía bera. Beste izen bat zeukan orduan, abizena eta guzti ere oraingoan, baina bera zen, berea zen irribarrea, berea zen mataza

ilehoria, bereak begi zuriak. Gorputza, ordea, ez; ez zen Lucíarena, Lucíak sekula ez baitzuen bularrik eduki. Bai, biluzik, gerritik gora biluzik etorri zitzaidan Lucía egia kontatzera.

Aldizkari baten azalean agertu zen horrela. Eta nola ikusi nuen nik, familia kontserbadoreko hamalau-hamabost urteko neskatila batek? Ba ezinezkoa zelako ez ikustea. Gehiago ziren orduan emakumeen bular biluziak azaletan zeuzkaten aldizkariak ez zeuzkatenak baino. Hirurogeita hamazazpi edo hamazortzigarren urteaz ari naiz, orduan modan zegoen hori egitea. Askatasun aldarrikapen bat bezala ikusten zen eta ez matxismo ospinduaren adierazgarri bezala. Pentsa ezazu Francok urte gutxi batzuk besterik ez zeramatzala hilik eta frankismoaren garaian zentsura zorrotza, gogorra, egon zela gorputz biluzien irudien gainean, beste gai askoren artean. Hortaz, zentsura frankista arindu zenean, gorputz biluzien eztanda bat suertatu zen komunikabideetan. Edonola, emakumeen gorputz biluziak ziren gehienbat, gizonezkoren bat ere nonbait irten zela entzuna dut, baina ezingo nuke ziurtatu, hiri kondaira dela esango nuke. “Destapearen” garaia deitu zitzaion, agian zuk ere entzungo zenuen noizbait. Esan bezala aldizkarien azalak bular biluziez bete ziren, baina pelikulak ere. Diotenez, nik pelikula horietako bat ere ez baitut inoiz ikusi. Orduko emakume aktore bati elkarrizketaren batean irakurri nion, garai hartan, heltzen zitzaizkion gidoi guztietan, dutxan zegoela telefonoak edo ateko txirrinak jotzen zuela, eszenaren batean bederen. Telebista oraindik frankismoaren garaikoa zen, ez zen gehiegi berriztatu, berrikuntza deigarriena aurkezleena zen eta, horri esker, aldizkarietan eta zinean biluzik agertzen ziren emakumeek bertan goitik behera jantzita lan egiten zuten. Baina bertan ere, bularren batek edo bestek zentsurari iskin egin zion. Eta hori bai ikusi nuela.

Urte berean izan behar zuen, oso gutxi gora behera. Gabon zahar egunez izan zen, gurasoak jai batera joan ziren eta ahizpa eta biok aitita eta amamaren etxean lo egiten geratu ginen, telebistako saio berezia ikusten. Eta saio hartan, jada berandu zela, ordu biak inguruan edo, ume txikiak lotan egon behar zutenean, Barbara Reyk bularrak erakutsi zituen. Barbara Rey nor den ziur badakizula, orduan erregeren amorantea zela oraindik ere komentatzen baita.

Zoramen kolektibo bat izan zen, distantzia apur batekin begiratuta. Emakumeen bular biluzien izurrite bat. Irekiera eta askatasunaren izenean. Bada eztanda horren erdian, Lucíak ere bularrak erakustea erabaki omen zuen. Eta haren kasuan ere gardentasun eta zintzotasunaren metafora bat omen ziren gorputz biluziaren argazkiak; gorputza biluztu zuen bezala, barnea ere biluztera omen zetorrelako. Hainbeste urtetan isilduta, ezkutatuta gorde zuena argitara aterako zuen. “Destapatuko” zuen. Bide batez, geroago, askoz geroago nire kasuan behintzat, Lucíak bularrak erakusteko erabakirik ez zuela hartu jakingo genuen. Argazki haiek ez ziren aldizkari baten azalean irteteko egin, zine zuzendari italiar bati bidaltzeko egin zituen Lucíak, paper baterako

bere egokitasuna frogatzeko. Beraz, argazki haien argitaratzea ez zen Lucíaren askatasun aldarrikapen bat izan, alderantziz, haren pribatutasunaren bortxaketa bat izan zen. Egun delitu larri baten aurrean egongo ginateke, batek baino gehiagok kartzelan bukatzeko modukoa. Orduan ere ez zen legezko portaera bat, baina ez Lucíak ezta haren izenean beste inork ez zuten auzibiderik hasi. Lucíari horrelako txerrikeria bat egitera ausartu baziren argitaletxeok, hura baino askoz ezezagun ziren emakumeei zer azpijoko eta iruzur ez zieten egingo. Aldizkarien azalak ziprztintzen zituzten dozenaka bular haietatik, zenbatek hartu zuten biluzteko erabakia eta eman zuten argazkiak egiteko baimena benetako askatasunez?

Tira, nire hausnarketak dira hauek, denborak, adinak, ematen duten informazioaz eta ikuspegiak baliatuz. Orduan inork ez zuen horrelakoak aintzat hartzen. Inozoagoak ginen denok orduan, ez soilik hamabost urteko neskatilak. Eta inuzenteagoak ere. Harrabots izugarria sortu zuten Lucíaren argazkiek orduan, itzela, baina ez haren intimitatearen aurkako erasoagatik, Lucíak bularrak erakutsi zituelako baizik. Sinestezina zen gizartearentzat (bai, horrela, orokorrean), beti neskatila inozo eta xalo bat bezala ezagutu zuen hura, bularrak lau haizetara erakusteko lotsarik ez zeukan emakume heldu bat izatea. Argazkiak argitaratu ziren unean, leku guztietan ez zen beste ezertaz hitz egiten. Ikastetxean ere. Nire gelako neska guztiek, ni bezala Lucíak liluratuta izan zituenak, ez zuten aldi batez beste mintzagairik izan. Haietako baten baino gehiagoren etxean zorioneko aldizkaria erosi zuten eta barruko argazkiak ere ikusi zituztela ziurtatzen zuten, ez soilik azalekoa, eta askoz ere "gogorragoak" zirela. Laster jakingo nuen gezurra zela, neska batzuek beti atentzioaren fokua izateko gezurrak asmatzeko daukaten erraztasunaren beste adibide bat; baina une hartan lehenagotik nekarren jakin mina, irrika bizi bihurtzeko balio izan zuen.

Aldizkaria eskuratu behar nuen, alde edo moldez, nire sendiak isiltzen zidanaren gako bertan egon zitekeela susmatzen bainuen. Zeren, jakina, salbuespena zen nire etxea (eta aitita-amamarena) Lucíaren argazkien gaia iruzkintzeko orduan: inork ez zuen argazkien gaia aipatu ere egin, are gutxiago aldizkaria erosi. Hura bai isiltasun ozena. Nik ez neukan adorerik kiosko batean errebista hura erosteko eta salduko ez zidatela uste dut, adinez nagusientzako argitalpen bat zela eta. Klaseko lagun bati eskatu nion etxean lapurtu eta eskolara ekar zezala, guztiok batera ikusteko. Zorakeria hutsa zela esan zidan, harrapatzen bazuten larrutuko zutela. Arrazoi zeukan, zorakeria bat zen. Zergatik egiten ninduten hura? Zergatik Lucía ni baino mila bider gutxiago miresten zuen edonork erreportaje osoa ikus zezakeen eta nik, haren jarraitzaile sutsuenak, ezin nuen? Lortuko nuen, eskuratuko nuen. Moduren bat egon behar zen.

Buelta asko eman nizkion eta azkenean bide bat bururatu zitzaidan. Arriskutsua zen ere, eta agian ez zen ondo aterako, baina saiatu behar nuen. Saiatu eta ondo irten zen. Badakizu nola? Ez zaizu otutzen? Auzoko liburutegi publiko batean hartu nuen. Liburutegi bat zer den badakizu, ezta?

-Lara, mesedez, berriz ez. Adi eta isilik nago, hortaz, zuk zeurera. Iraindu gabe.

-Baten batean egon al zara inoiz ala? Egungo gazteek, streaming plataformek pelikula, telesaio eta bideo jokoekin eskaintzen duten alokairu zerbitzuaren antzeko bat, liburuekin ere egin beharko zela proposatzen dutela irakurri dut nonbait. Badakizu, "millennialek betidanik existitzen den zerbait asmatzen dute" motako albiste horietako bat, liburutegiak kasu honetan. Hala al da? Agian, boomer deitzen diguzuen nire belaunaldikook asmatutako beste gezur bat baino besterik ez da.

-Zuk zeuk erantzun duzu.

-Pazientzia izan behar duzue gurekin eta holakoak barkatu. Adinak erretxin bihurtzen gaitu eta gazteekin ordaintzen dugu, gaztetasunak bekaizti sentiarazten gaitu eta. Ez gaitezen desbideratu. Liburutegi publiko batean proba egitea erabaki nuen. Emakumeen bularrak erakusten dituen argitalpen bat, egungo ikuspegitik, ez dirudi liburutegi publiko baterako edukirik egokiena; baina garai hartan, aipatu dizudanez, emakumeon bularrak nonahi agertzen ziren, lekurik ustekabeenetan ere. Lucíaren bularrak atera zituen aldizkaria, gainera, ez zen pornografikoa, informazio orokorreko aldizkari bat zen, eta horregatik zen ezaguna. Egungo ikuspegitik nahiko sentsazionalista eta "horia" zela edukia esan genezake, bai orduan, ziotenagatik, erreportaje oso interesgarriak kaleratzen zituen, pil-pilean zeuden gaiei buruz; bestelako agerkariak argitaratzera ausartzen ez zirena, haiek zabaltzen omen zuten. Aitzakia ezin hobe horrekin erosten zela hainbat etxetan esango nuke, nire eskolako lagunen etxeetan esaterako. Familiako gizonak kanpai joka aritzeko txerrikeria bat ez zen etxe askotan onartuko, baina informazio ausart eta askearen aitzakiak azaleko biluziak desenkusatzten zituen. Antza.

Bada, informazio eskaintza zabal eta anitzaren aitzakia horrekin berarekin ere, liburutegietan aurkitu ahalko zela susmatu nuen eta hura izan zitekeela Lucíaren argazkiak ikusteko geratzen zitzaidan aukera. Ez neukan ezer galtzerik, baina adorea izango nuen? Auzokoan, Chamberikoan, ez nintzen ausartu. Hurbilegi zegoen, ezagunen batekin topo egin nezakeen eta, gainera, plana ez bazen espero bezala irteten, ezingo nuen handik berriz agertu. Hura lotsa! Erdigune distrituko beste batean saiatzea erabaki nuen, Unibertsitate auzoko batean, bertan jende gaztea ikustera ohituagoak egongo zirela sinetsita. Urduri baino urduriago sartu nintzela gogoratzen

dut. Larritasuna disimulatu nahian, harrera mahaiko andrea agurtu nuen eta, dardarka, aldizkariak zeuden apalategira jo nuen zuzen, alboetara begiratu gabe.

Eta han zegoen. Ez nuen hasierako begiradan aurkitu, apur bat ezkutatu zutelako: aldizkariaren azala atzerantz tolestu zuten eta lehen orria, edukien indizearekin, zen ikus zitekeena. Liburutegi publiko batek aldizkari haren ildo editoriala onar zezakeen, zirudienez, baina ez zegoen prest emakume baten bular biluziak arasa batean erakustera. Hobe niretzat ere, horrela inork ez ninduelako ikusiko bular biluzien argazkiak zeuzkan aldizkari bat hartzen. Eta halaxe egin nuen identifikatu nuenean, hartu, bitan tolestu eta bularraren kontra besarkatu inork ez ikusteko moduan, eta irakurketa mahai batera joan nintzen, liburutegi osoko zokoratuenera, noski. Isilean zabaldu nuen eta orduan argitu zitzaidan dena. Bai, dena, ez soilik barruko orrialdetan ezkutaturiko argazkien misterioa, nire senideen eta Lucíaren artean gertatutakoa ere. Aldizkariak inork komentatu ez zidan opari bat baitzekarren: Lucíari egindako elkarrizketa bat.

Barrualdeko argazkiak ez ziren klaseko lagunek iradoki zidatena, ezta urrundik ere. Azalekoaren antzeko beste argazki sorta bat zen, zeinetan Lucía gerritik gora biluzik agertzen zen, aurrera begira batean, albora begira bestean, kolorezkoak batzuk, zuri-beltzean besteak. Gerritik behera ez zuen ezer erakusten Lucíak argazkietan. Argi zegoen nire klaseko lagunek ez zituztela ikusi eta hiri kondaira nerabeak hedatzen adituak zirela. Elkarrizketaz ezer ez komentatu izana ere, haien gezurraren beste froga bat zen. Baten batek elkarrizketa irakurri izan balu, gainetik, zeharka, bertan Lucíak nire familiaz hitz egiten zuela aipatuko zidan.

Pentsa noraino igo zitzaidan taupaden abiadura. Egiten ari nintzena nire bizitza osoko ausardiarik handiena zen, "nagusientzako" aldizkari bat ezkutuka eskuratu eta irakurtzea; horrek eragindako urduritasuna berez nahikoa ez balitz, Lucíak bere bizitza sekretua kontatzen zuen elkarrizketa batekin topo egin nuen ezustean; eta, bihotza lehertzeaz neukanean, nire abizena irakurri nuen elkarrizketan, nabarmenduta! Norbait danbor joka ari balitz bezala sumatzen nituen lokiak.

Irakurtzen saiatu nintzen baina ezin nuen, hizkiak ezagutzen nituen baina ezin hitzak ulertu, hizkuntza ezezagunen batean idatzita balego bezala. Konortea galtzeaz nengoen. Sekula ez zitzaidan antzekorik gertatu. Hain urduri nengoen sudurretik odoletan hasi nintzela. Painelu batez sudurra estalita, burua atzera bota eta ahotik arnas egiteak lasaitzeko balio zidan. Behin neurera itzulita, elkarrizketa irakurtzeaz berrekin nion.

Eta infernua aurkitu nuen.

Aititak eta familia osoak Lucíaren bitzta hondatu zuten, bai, baina ez nik susmatzen nuen zentzuan.

Yagüe familiarekin bizitzera joan zenean, bere ama erdipurdiko pentsio batean bizi behar zela kontatzen zuen Lucíak, berarengandik hurbil egon ahal izateko. Eta yagüetarren etxera bere alaba bisitatzera zihoanean, sarrera nagusitik sartu beharrean, zerbitzuaren sarreratik sartzera behartzen zutela ama. Yagüetarrak gu ginen, nire familia zen Yagüe familia. Lucía aitita-amamaren etxean bizi izan zen, aitarekin eta osaba-izebekin, eta, galderak egiten zituen kazetariak iradokitzen zuenagatik, mundu guztiak bazekien hori. Mundu guztiak, nik izan ezik. Zergatik ez zidaten halakorik sekula aipatu? Eta urte askotan izan omen zen hori, ez soilik oporraldi batean. Hamar urte inguru bizi izan zela aitita-amamaren etxean kalkulatu nuen, jarraian. Etxe hartako eta familia haren historiaren zati esanguratsu bat ziren hamar urte haiek, inork sekula ez aipatzeko. Yagüe ekoizlearekin, aititarekin alegia, sinatutako kontratuak iraun bitartean, haren etxean bizi behar izan zuela azaltzen zen geroago. Ez soilik pelikulak errodatzen ari zen bitartean, beti, hamar urtez, bere ama, aita eta neba-arrebengandik aldentuta, bere jatorritik kanpo. Ilea horiz tindatu omen zioten kontratua sinatutakoan eta, jada bikain abesten eta dantzatzen zuenez, igeriketa, tenis eta ekitazio eskolak hartzen zituen, eta etxe-irakasle bat jarri zioten benetako andereño bat bezala hezia izateko.

Hamabost urte baino besterik ez neuzkan elkarrizketa irakurri nuenean, baina orduan ere ulertu nuen aititak ez zuela Lucía alaba bat bezala zaindu, ezta maite zuen norbait bezala ere. Aititarentzat Lucía ez zen neskatila bat, produktu bat baizik, berak aurkitutako eta ondutako produktua, eta ez zuen permitituko inork bere produktua zapuztea. Horregatik Lucíaren argazki guztiak, agerraldi guztiak, haren edozein irudi, beti aititak eta bere taldeak aukeratutako arropekin (eta ile kolorearekin) eta haiek erabakitako inguruetan izan behar zuten. Ezin zuen permititu Lucía bere benetako izenarekin, bere benetako familiarekin eta bere jatorriko ingurumenean inork ikustea. Lucía bahituta bizi zen nire familiaren etxean, maite ez zuten gezurrezko senide batzuek uneoro inguratuta. Bahitzaile bat zen aitita eta haren konplize eta onuradun gainerakoak, amamarengandik hasita.

-Kontatzen ari zarenagatik, istorioa nik beste modu batean ulertuko nuela esango nuke. Zure familiaz gain beste errudunak ere bazeudela ematen dit. Lucíaren gurasoak zer? Infernu bat bezala deskribatzen ari zaren hori oraindik gertatzen da sarritan, ez da iraganeko gauza. Ba al dakizu Britney Spearsi gertatutakoa? Burua galdu duela erabaki du epaitegi batek eta tutore bat jarri diote, haren pertsona eta ondarea zaintzeko. Hori bai, lan egiten jarraitzeko gauza da, baina eragiten dituen milioika dolarretako bat ere ezin du erabili tutorearen baimenik gabe. Eta

aita du tutore, haren aita da legezko bahiketa horretatik onurak lortzen dituen. Eta beste hainbat haur izarren kasuan ere antzeko zerbait gertatzen dela uste dut. Demi Lovatoren arazo mentalak eta gaindosia datozkit burura. Disney ekoiztetxea, antzeztan, abesten eta dantzatzen dakiten haurrak ustiatzeko makina bat dela denok badakigu, inork ez du zalantzan jartzen, baina nork jartzen ditu haurrak Disneyren atzaparretan? Nork jarri zuen Lucía zure aititaren atzaparretan? Gurasoak.

-Entzun al duzu nire aitita-amamaren etxean Lucíaren ama nola tratatzen zuten? Ez ditut erabat errugabe jotzen Lucíaren gurasoak, oso txikitandik, Yagüe aititak aurkitu baino lehenago ere, lanean jarri zutelako. Halaxe kontatzen zuen elkarrizketa hartan. Baina beste garaiak ziren, gerra osteko garaiak, gizartea eta ohiturak oso ezberdinak ziren. Orduko familia txiro bateko gurasoak egungo ikuspegitik epaitzen ez naiz ausartzen. Orduan ere, nire hamabost urterekin, Lucíaren gurasoek intentzio onenarekin egin zutela pentsatu nuen beti. Lucíarentzat hoberena zena egiten ari zirela sinetsiko zuten, ziur. Gainera aitita eta Lucíaren gurasoen artean hitzartutako kontratua, ziur ez zela parekideen arteko negoziazio baten emaitza izan. Pentsa, alde batetik Yagüe ekoizlea, Errepublika garaitik zine ekoizpenean aritutakoa, gerra ostean Espainian sortutako “izar” guztien aurkitzaile eta bultzatzailea; eta bestetik, berrogeita hamarreko hamarkadako familia behartsu bateko aita (amak ez zuen zeresanik izango, emakumeek orduan edozertarako aitaren edo senarraren baimena behar baitzuten) irakurri eta idatzi ere, agian, nekez egingo zuena. Horien bien arteko tratuan zeinek lortuko zuen onura handiena, bakarra ez esatearren, erraza da asmatzen.

Ez, Lucíaren kasuan gurasoei errua leporatzea nahiko bidegabea da. Hala uste dut orain, baina orduan ere nire senideak bakarrik jotzen nituen errudun Lucíari egin ziotenagatik. Arima gabeko munstro batzuk bezala ikusten nituen, neskatila txiki, eder, maitagarri bat bahitu eta gupidagabe ustiatzeko kapazak izan zirenak. Bere familiarik urrundu zuten Lucía, amarekin soilik zeukan harremana eta hori ere noizbehinkako eta gainbegiratutako bisitetan, kartzelan bezala; bere jaioterritik, bere ingurutik aldendu zuten; azentua ere aldarazi zioten, jatorria suma ez ziezaion; eta ezin zuen lagunik izan, zinemaren eta errodajeen mundutik kanpo. Orain esaten den moduan, haurtzaroa lapurtu zioten. Aititak, amamak, baina osaba-izebek eta aitak ere.

Haurtzaroa eta nerabezaroa ere. Lagunik ezin bazuen eduki, pentsa ezazu nolakoa izan behar zuen mutil-lagunak izateko araua etxe hartan. Debebatuta izango zuela suposatzekoa da, ezta? Bada, askoz beldurgarriagoa izan zen istorioa. Elkarrizketa hura irakurtzen ari nintzela, nire familiak niri ostendutako beste sekretu batek kolpatu ninduen urdailean: Lucíaren gaztaroko lehen mutil-laguna aita izan zen, Bosco Yagüe gaztea. Bai.

-Uf! Eta zuk ez zenekien ezer?

-Orduan enteratu nintzen. Han, bakarrik, liburutegian ezkutuka. Zer zela eta ez zidaten inoiz etxean komentatu? Lucíaren pelikula zein atsegin nituen jakinda, pelikula haiek aititak ekoiztakoak zirela azaldu zidatenean edo Lucía “alaba bat bezala” tratatu zutela amamak esan zidanean, edo beste milaka abagune egokietan, zergatik ahaztu zitzaien xehetasun ñimiño hura aipatzea? Hain garrantzi gutxikoa zeritzoten aitaren eta Lucíaren arteko harremanari? Edo lurpean ezkutatu nahi zuten zerbait zen?

Antza, bere eginkizun eta arduetatik oharkabetuko zuen mutil-lagunik ez zion onartuko aititak Lucíari; baina nerabeen arteko jolas horiek etxean gelditzen baziren, bere produktuaren aisialdirako aukera egoki bat zeritzon. Bahiketa eta ustiakuntzaren alboan, nerabe baten sentimenduekin jolastea eta manipulatzeko, ahuntzaren gauerdiko eztula zen Yagüe aititarentzat. Eta aita jokoan sartu zen zirudienez, antzeppen nardagarri horren partaide izatearekin ados egon zen.

-Agian hura ere beste gazte manipulatu bat izan zen.

-Aititak aitari Lucíaren mutil-laguna izatea proposatu zionik esatera ez naiz ausartzen. Nahiago dut sinestea horrelakorik ez zela gertatu. Hotzegia, krudelegia zatekeen istorioa kasu horretan. Baina, aititaren gidaritzapean, haren iradokizunei jarraika, familia osoak gaztetxo bien arteko elkar erakartzea bultzatu zuela argi daukat. Nerabearoan, hormonak pil-pilean daukazunean, gertuen daukazunak erakartzen zaitu eta hori maitasuna dela uste duzu, sentitzen ari zarena ez duzulako lehenago sekula sentitu. Lucía eta aitaren kasuan, haietako bakoitzak gertuen zeukana bestea zen eta, hortaz, bultzadatxo txiki bat nahikoa izan zen anaia-arreba bezala bizi izan zirenak, bat-batean, bikote erromantiko bihurtzeko.

-Zuen aita ere biktima bat izan zela onartzen ari zara.

-Itxoin. Hala izan balitz, ez zukeen Lucíaren nobioa izan zela kontatzeko arazorik izango. Nostalgiaekin, minarekin, humorearekin... batek daki!, baina normaltasunez hitz egingo zuen gaiaren inguruan, ez zuen isilarazi eta ezkutatuko. Joko itsusi eta anker baten konplize izan zela bazekien, eta erruak hartua zegoen.

Hau guztia ez zitzaidan liburutegiko une hartan bururatu, geroago hausnartu nuen. Unean kolpatu ninduen nire familia osoaren portaera izan zen, nola mespretxatu zituzten Lucíaren sentimenduak. Hori al zen norbait “alaba bat bezala” zaintzea? Nirekin ere antzekorik egingo

zuten? Horrela zainduko ninduten? Bai, bizitza hondatu nahi zidaten, baina nik susmatu ezin nezakeen modu batean.

-Hainbesterako ez zela jabetuko zinen, ezta? Ados zerrikeria bat egin ziotela Lucía gizajoari, baina hortik ondorio hain izugarriak ateratzea gehiegikeria bat da. Familia perfekturik ez dago, ezta pertsona perfekturik ere.

-Ondo entzun esaten ari zarena. Nik zuri gauza bera esango banizu, zer? Ukatuko zenidake, ziurrenik. Baina bai, arrazoi daukazu, une hartan hamabost urte neuzkan, ezuste itzela jaso nuen eta, nire gurasoekin harremana edukiko lukeen edozein datu, neurrigabe handitzeko prest nengoen. Tamalez, denon zoritxarrerako, Lucíaren elkarrizketa ez zen horretan gelditzen, infernuko atek hurrengo lerroetan zabaldu behar ziren oraindik.

-Gehiegikerietan ari zara berriro.

-Gehiegikeriak? Entzun. Esan dizut Lucíaren argazki guztiak, hedabideetan agertzen zen edozein irudi, Yagüe aititak onetsiak izan behar zutela. Ez zegoen Lucíari ezkutuan lapurtutako irudirik, garaian paparazzirik ez zegoelako alde batetik, baina baita Lucíaren edozein mugimendu gainbegiratua zegoelako. Argazki haien guztien edo gehienen egilea aititaren konfiantzazko argazkigile bat zen, Lucíaren imajinaren arduradun nagusietako bat izan zena. Beti Lucíaren atzetik, errodatean, jolasean edo ikasten zebilenean, zaldi gainean, igerilekuan... eta etxean, noski. Familiaren etxean denbora pila ema behar zuen argazkilariak. Estudio bat ere bazeukan eta bertan argazki antolatuenak egiten zizkion Lucíari, hein handi batean guztiak baitziren antolatuak, filmen karteletarako edo promoziorakoak. Bada, elkarrizketan esaten zuenagatik, argazkilariaren estudioan argazki sesio batean zegoela, ikaratu eta txunditu zuen aurkikuntza bat egin zuen Lucíak. Mahai baten gainean, begiak estalita zeuzkaten neskatala biluzien argazkiak topatu zituen.

-Ai ama! Eta horrelako munstro baten atzaparretan uzten zuten gaixoa?

-Uzten? Aurkitu zuena ezer onik ez zela susmaturik, aititari kontatu ziola zioen Lucíak elkarrizketan. Eta egun berean, argazkilariak zer-nolako gauzak zerabiltzan esku artean aititari esan zionean, afalorduan mahaian eserita topatu zuen familia guztiarekin batera. Piztia harrapakari baten atzaparretatik babestuko zutela uste zenuen? Ez zirudien. Aitita argazkilariaren izugarrikerien jakinaren gainean zegoela ohartu zen. Zer ulertu nuen irakurritakoan? Neskatala gazteontzat, hamabost urteko Lararentzat ere, ez zegoela babesik etxe hartan.

Eta hori nahikoa eta gehiegi ez balitz bezala, infenuaren solairu sakonago baterako bisita gordetzen zuen elkarrizketak. Yagüetarrekin bizi zenean (eta hamar urte bizi izan zituen etxe horretan), noizbehinka Madrilgo auzo aberats bateko txalet batetara eramaten zutela kontatzen zuen Lucía. Txaletan bere adinaren inguruko beste neskatila batzuk omen zeuden. Biluzik jartzen zituzten neskatila guztiak areto batean eta gizon helduen talde bat handik igarotzen zen neskatila biluziak ikustera.

-Ene jainkoa! Hotzikara eman dit horrek! Zuen aitak kartzelan egon beharko luke hori egia bada. Ziur zaude egia zela? Nola jakin dezakezu Lucía ez zebilela zure familiaren aurka mendeku bila? Agian zor zioten diru guztia ez zioten ordaindu, edo zuen aitak bikote harremanarekin bukatu eta erresuminduta zegoen, eta gezurren bat edo beste asmatuz min eragin nahi zien.

-Une hartan, hamabost urterekin, ez zitzaidan burutik ere pasa idatzita zeuden Lucíaeren hitzetatik bat ere zalantzan jartzea. Elkarrizketa hura guztia egia zen, Lucíaeren hitzak zirelako. Xaloagoa, sinesberagoa nintzen, bai, baina iradokitzen ari zaren azpijoko itsusi horiek egungo gauza dira. Orduan inork ez zuen onurarik aterako holako zerbait asmatuz. Izan ere, ez zen ezer gertatu. Ez zen epaiketarik edo ikerketarik egon, nik dakidala (eta gaiaren inguruan informatzen saiatu naiz urteotan), eta Lucía ere ez zuen sekula berriz antzekorik aipatu. Garai hartan holako salaketa bat egiten zuenak asko gal zezakeen eta ia inoiz ezer irabazi. Ikerketarik egon balitz, frogarik ezingo zuenez aurkeztu bere testigantza gain, irain eta kalumniengatik epaituko zuten. Hortik gatoz.

Hitez hitz sinetsi nuen guztia nire hamabost urteetan, baina geroago, urte batzuen joanean, aitormen haren benetakotasunaren beste frogak aurkituko nituen. Esan dizut Lucía ezin zuela adiskiderik izan aititaren baimenik gabe, eta haren adiskide bakarrak errodatean lagun zituen neskatilak zirela. Haietako batek, Lucíaeren pelikula askotan bigarren mailako paper bat izan zuenak, baina zinean zein telebistan protagonista ugari izan zituenak ere neskatila zenean, adierazpen beldurgarri batzuk egingo zituen elkarrizketa batean behin emakume heldua izanik. Gajo honek zera esango zuen, bere bizitza osoan sexu alorrean arrakasta gehien izan zuen garaia hamar urte zituenean izan zela.

-Alajainkoa! –Honetara helduta Adelek ezin izan zien malkoei eutsi.

-Zer esanik ez, ez zen ezer gertatu. Eta orduan gizartea, ustez, aurreratuagoa zegoen jada. Zer diostazu orain? Ba al neukan inguru honetatik ihes egiteko nahikoa arrazoirik? Lucía, adin nagusi bihurtu zenean, aititarekin zeukan kontratua iraungi zitzaion. Ez zuen berritu, jakina,

ezta minutu bat ere luzatu. Berehala egin zuen ospa hemendik, familia honen besarkada itogarri, hilgarritik. Zeinen ondo ulertu nuen haren erabakia une hartan! Nik ere berdin egingo nuen. Egin behar nuen. Baina ni ez nintzen adinez nagusi. Nire familia jasan beharko nuen eta nirekin Luciarekin baino gupida apur bat gehiago izan zezatela espero beharko nuen oraindik urte batzuetan.

-Zuk ere sexu gehiegikeriak jasan zenituen adin txikikoa zinenean? –Negarrez ari zen Adele, negar mantso isilean, malko lodiak masailetatik zerizkiola.- Mesedez, ezetz esadazu! Kontakizun hau guztia hori aitortzeko izan al da? Esan ezetz, arren.

-Lasai, ez, ez da hori istorioa. Nire familiako inork ez zidan sexu gehiegikeriarik eragin. Nire senideak neskatila txikien bahitzaile eta ustiatzaileak direla kontatzen ari naiz, ustiakuntza horren barnean sexu ustiakuntza ere hartuta. Ez al zaizu nahikoa iruditzen ala? Ez al da arrazoi nahikorik haiekin inolako zerikusirik eduki nahi ez izateko?

-Bai, bai, izugarria, lazgarria da kontatu duzuna. Barrua inarrosi dit, benetan. Baina zu behintzat haien biktima ez zinela izan jakiteak kontsolatzen nau. Ama zeneukan zurekin. Hark babestuko zintuen. Azken finean, kontatu duzun istorio osoa zuen ama familiara iritsi aurreko pasadizoak dira. Aitaren aldeko familia da munstroez osatutakoa, baina amaren babeseta eta laguntza izango zenituen bederen urte haietan.

Larak hitz egiten hasi zenetik ukitu gabe zeukan ardo kopari zurrutada luze bat eman zion.

-Hamabost urte neuzkan nire aitaren familiaren odol ankerra ezagutu nuenean. Hogeita bat urterekin ihes egin nuen hemendik atzera begiratu gabe. Nahikoa denbora izango zuen amak istorio osoko pertsonaia maltzur eta makurrena zela frogatzeko. Ez ezazu gutxietsi haren gaiztakeria.

Baina istorio horrek bere denbora merezi du eta berandu da, bederatziehun kilometro gidatu ditut gaur eta neka-neka eginda nago oraindik, itzelezko siesta bota dugun arren. Lotara joan beharko genuke.

16

Marbellan ezkutatu gintezkeela otu zitzaidan. Munduko azken zokoa iruditu zitzaidan kinka larri hartan Marbella. Iparraldeko hirixka bateko erdipurdiko ganbelu batzuek ez gintuzten Marbellan bilatuko, ezin zen hain urrun iritsi haien eragina. Oporraldi bat igaroko genuen Costadelsolen eta ur handiak lasaitu ondoren etxera itzuliko ginen.

Ez nuen gehiegi hausnartu erabakia, ez zegoen hausnarketetarako astirik, onik irten nahi bagenuen. Errepidea eta Marbella izan ziren burura etorri zitzaizkidan ihesbide aproposenak.

Ongi pentsatzeko denbora eta aldarterik izan banu, agian, droga trafikoarekin lotutako asunto batetik ihes egiteko eta ezkutatzeko, Marbella ez zela helmugarik egokiena ondorioztatuko nukeen. 2015eko Marbella ez zen nire haurtzaro eta nerabezarokoa, ez zen nik ezagutu nuena. Mundu osoko bazterretatik etorritako gaizkile taldeak biltzen ditu orain Marbellak, droga trafikoak mugitzen duen dirutzak erakarrita gainera. Poliziak badaki, kazetariak badakite eta nik ere zerbait entzuna eta irakurria nuen gaiaren inguruan, nahiz eta Marbellan hogeita hamar urte baino gehiagotan ez nuen oinik jarri. Baina Adelek kontatu zidanagatik beldurtuta nengoen, kezkatuta, oso larri, eta ez nuen argi pentsatu, ez zitzaidan garrantzirik gabeko xehetasun ñimiño hura burutik pasa.

Norbaiti galdetu banio, norbaiti –edonori- aholkua eskatzeko denborarik izan banu, ziurrenik edonor horrek esango zidala, otsoarengandik ihesi, otsoaren gordelekuan ez ezik eta haren ahoan bertan sartzera nindoala. Baina presaz genbiltzan eta nora gindoazen inori ez kontaktzea hobe genuela uste nuen, arerioari aztarnak ez uzteko.

Lotsa ematen dit gogoratzeak. Zeinen trakets eta burugabe izan nintzen larrialdiaren erdian. Nor eta ni, bikote iheslariko alde heldua, arrazionala, izan behar nuena. Ustez. Thelma eta Louise baginen biok, nik Louise izan behar nuen. Adele gizajoa, babesa behar eta hara noren eskuetan amaitu zuen! Eta oraindik jendeak galdetzen du zergatik ez dudan seme-alabarik izan. Ba horra hor erantzuna: munduko amarik ezgauzena izango nintzelako! Agerian dago.

Seguru sentitu nintzen hasierako bizpahiru egunetan. Herritik urrun geunden eta, teoriarik, inork ez gintuen ezagutzen Marbellan, baina hala ere ez zen komenigarria Adele eta biok etxetik irtetea eta kaletik ibiltzea, hobe genuen etxean gordeta egotea denboraldi batez. Hogeita hamar urte haietan ia batere aldatu ez ziren igerileku eta lorategiaz gozatuz, seguru sentitzen nintzen, lasai; eta segurtasun sentimendu horrengatik soilik ere, pena merezi zuen

berriz, hogeita hamar urteren ondoren, aita eta amarekin sabaia partekatu beharrak. Edonola, etxe hartako biztanleen bizimoduak, eta orokorrean Marbellako betidaniko udatiar ororen bizimoduak, nahiez gero etxe berean bizi ziren beste pertsonekin egun osoan toporik ez egitea permititzen zuen. Etxe hartan –eta Marbellako betidaniko udatiarren etxe guztietan- bakoitza nahi duen orduan altxatzen da ohetik –baldin eta egun horretan altxatzen bada-, nahi duen orduan irteten da etxetik inori azalpenik eman gabe eta nahi duen orduan itzultzen da ere –itzultzen baldin bada-. Inork ez du galderarik egiten –nora zoaz, norekin, non egon zinen-, inork ez du bere bizikideen egunerokotasunean sudurra sartzen eta, bidezko ordainean, galderarik egin ez diezaiotela espero du etxeko biztanle bakoitzak.

Erraza izan behar zuen, hortaz, haiekin ez gurutzatzea egun osoan, ez otorduetan, ez egongelan, ez igerilekuan, ezta korridoreetan ere. Ez neukan horretarako indarrik, ezta gogorik. Zer esan behar nien? Zer aditu? Buruhauste handiagorik baneukan une hartan, aita eta amaren desenkusa eta komeriak jasan behar izateko. Terapeutaren batek horixe bera egin beharko nuela iradokiko zuen, beharbada, haiekin aurrez aurre jarri beharko nintzela eta haiei buruz pentsatzen nuena esan beharko niela, oraindik zabalik neukan zauri hori behin betirako sendatu eta ixteko. Tamaina horretako mozolokeriak ez entzutearren ez naiz sekula terapiara joan. Ez nago batere ziur baina, nire buruarekin guztiz zintzoa izanik, agian hau ere, nik ere aurrez aurreko enfrentamendu hori nahi nuen, hamalau urteko Larari zor nion. Eta hogeitaz urtekoari ere. Orain dela hogeita hamar urte eman nuen danbatekoa ez zen nahikoa. Zergatik egin nuen ihes? Ba al zekiten? Ziurrenik ez. Eta ez zuten gehiegirik burua hautsi azalpen bila. Egin zidatena aurpegiratu behar nien. Errudun sentitu behar ziren. Errudun ziren eta! Barkamena eskatu behar zidaten.

Baina une hartan droga trafikatzailerik talde baten eskuetan hil arte jipoitua ez izatea zen nire lehentasuna. Gero gerokoak.

Hala ere, ama urreratu zitzaidan. Marbellako bizimoduaren usadioak urratuz, igerilekuaren ondoan hamaka batean etzanda nengoela, albokoan eseri zen. Azalpen eske zetorren, antza. Borreroak ez zuen biktimaren plantak egiteko parada pasatzen utziko.

Eguzki betaurrekoak erantsi zituen –asko aldatu ez bazen, ohore bat bezala hartu behar nuen hura, ez baitzuen edonoren aurrean horrelakorik egiten-, burua alde batera eta bestera astindu zuen mataza aurpegitik kentzeko –ile bakarra ere ez zeukan aurpegian, ile-apaindegitik irten berria zirudien, keinu hura tik bat bihurtu zitzaion jada- eta Ifigenia edo antzeko pertsonaia tragiko bat –gaizki- antzezten ari balitz bezala hitz egin zidan.

-Hitz egin behar dugu.

Ez nion isiltasunez erantzungo, ni ez naiz pertsona hori, baina ez nengoen elkarrizketa hura edukitzeko sasoian. Beste arrazoi batzuek bultzatu ninduten etxe hartara, ez gurasoekin ezer argitu beharrak. Hala ere.

-Noiz eta orain? Egia da gauza asko argitu behar dizkidazula, edo agian ez dira hainbeste gauza, bat edo bi soilik. Eta zurekin lo egiten duen gizon horrek beste hainbeste edo gehiago azaldu behar dizkit. Bide batez, non dago? Etxe honetan bizi da? Elkarrekin lo egiten duzue oraindik? Nirekin eduki nahi duzun elkarrizketa, harekin izan al duzu noizbait? Edo gustura zaudete bakoitza bestearen axolagabetasunarekin eta konplizitatearekin?

-Ez dakit zertaz ari zaren. Berrogeita hamar urte baino gehiago daramatzagu elkarrekin ezkondua. Inork gutxik esan dezake antzekorik. Eta guztiak ez direla urte errazak izan ziurta diezazuket. Denetarik gertatu zaigu, osasun arazoak, diru arazoak, justiziarekin arazoak, zure ihesa... eta gure harremanak zutik iraun du. Gure harremana eredu bat da jende askorentzat. Ez dakit zertan atera behar zaren horrelako iradokizunekin.

-Bestelako arazoak ere izan dituzue. Ongi dakit, arazo horien zurrunbiloaren erdian ni egon nintzelako. Ez ahaztu.

-Aitarekin konpontzeke zer daukazun ez dakit. Harekin argitu beharko duzu dena delakoa. Gure artekoari buruz hitz egitera etorri naiz ni. Guztiz oker ulertu zenuela gertatutakoa uste dut. Gaizki ulertu bategatik ihes egin zenuen, nik eragindako gaizki ulertu batengatik. Errudun sentiarazi ninduen horrek.

-Gaizki ulertu bat? Bai zera! Dena dela... errudun sentitu zinela diozu? Benetan? Berritasun ederra da erru edo errudun hitzak zugandik entzutea, atsegina. Hobeto azalduko zenidake hori?

XVII

Gela ezberdinetan lo egin zuten Larak eta Adelek Marbellara iritsi ziren egunean. Larak ez zeukan jada Adelek alde egitearen beldurrik, oraindik herrian zeudenean, bakarrik utzi eta ez baitzuen ihes egin. Ez zuen hura zelatatu behar. Benetan beldur zen Adele eta ez zuen horrelako txorakeriarik egingo. Seguru sentitzen zen lau horma haien babespean.

Biharamunean Adeleren gelako atea jo zuen Larak eta, erantzunari itxaron gabe, gelan sartu zen. Ohe gainean eserita topatu zuen Adele, sakelako telefonoari begira makurtuta.

-Egun on. Gosaldu al duzu?

Sakelakotik begirada jaso gabe erantzun zion Adelek.

-Egun on. Ez, ez dut gosaldu. Nola gosalduko nuen ez badut etxea ezagutzen? Ez dakit sukaldea non dagoen ere. Etxeko jendea ere ez dut ezagutzen, ezta haiek ni. Pertsona ezezagun bat bere etxean ezustean topatzeak, bihotzeko bat eragin liezaioke edonori. Ez dut arrisku hori hartu nahi. Gelatik irtetera ez naiz ausartzen ere.

-Lasai, ohikoa da etxe honetan ezezagunak topatzea korridore eta geletan. Ez zenuke inor ikaratuko.

-Ez dakizu. Hiru hamarkada dira hemendik ez zarela ibili. Agian ohiturez aldatu dute.

-Eztabaida honek ez dauka inolako zentzurik. Ez dakit zein dagoen kamutsago esnatzeko orduan, zu edo ni, baina kafea behar dugula argi dago. Goazen.

Sukaldera joango zirela suposatu zuen Adelek, bertan gosaria prestatu eta jango zutela, baina etxe hartan beste unibertso ezezagun bateko arauak jarraitzen ziren. Sukaldera joan ziren, bai, harainoko bidea gogoratzen zuen Larak, baina behin bertara iritsita hegoamerikar itxurako andre bat aurkitu zuten, berrogeita hamar urte ingurukoa, uniforme grisez eta amantal zuriz jantzita. Trapu batekin marmolezko mahaia garbitzen ari zen. Sartu zirenean lana gelditu eta egun on opa zien. Adelek ez zuen erantzun, ez zekien emakume hura nor zen ezta zer egin behar zuen ere. Larak emakumea ez zuen ezagutzen, jakina, azken hogeita hamar urteetako batean kontratatuko zutelako, baina bazekien neskamea zela, eta bazekien zer egin behar zen holako egoera batean. Txikitan ikasitakoak ez dira sekula ahazten

-Egun on. Lara Yagüe naiz, Cuca eta Boscoren alaba. Adele nire laguna da hau. Bisitan etorri gara egun batzuetarako eta zerbait gosaldu nahiko genuke, posible balitz. Elkar ezagutzen ez dugula uste dut, zein da zure izena?

-Anabel naiz, andereño. Cuca andreak ohartu nau etxean zeundela. Zer nahiko duzue gosaltzeko? Garbitzeko arroparik badaukazue ere, mesedez esan, ni arduratuko naiz horretaz ere.

-Momentuz gosariarekin nahikoa izango da, mila esker. Kafesnea, laranja zukua eta tomate eta urdaiazpiko tosta bat nahi dut nik. Zuk, Adele? Nongoa zara Anabel?

-Kolonbian jaioa naiz baina hogeita bost urte daramatzat hemen. Zerbait gehiago.

Adelek ez zekien zer esan. Azterketa baten epaimahaiaren aurrean bezala sentitzen zen. Ezin zuen gosarian edo gosaltzean pentsatu. Ez zitzaion erantzunik bururatzen.

-Gauza bera niretzat ere –bota zuen atakatik irteteko.

-Benetan? –galdetu zion Larak harrituta-. Ez dizut inoiz tomate tostarik jaten ikusi. Ez zenuke croissant bat nahiago izango?

-Berdin dio –lotsatuta zegoen Adele eta ez zekien zergatik.

-Biak ekarri badaezpada, Anabel. Lorategian hartuko dugu gosaria, mesedez.

Lorategira irten ziren biak eta bertan zegoen burdinazko mahai eta aulki zuri batzuetan eseri ziren, bugainbilea pergola baten gerizpean. Orduan hitz egin zuen Adelek garbi.

-Ze arraio izan da komeria hori guztia?

-Gosaria eskatu baino besterik ez dut egin. Arrazoi daukazu, dena dela, ni ere arraro sentitu naiz andereño burgesaren plantak egiten. Ahaztuta neuzkan.

-Ahaztuta? Bai zera! “Gossip Girl” edo telebistako antzeko kaka zahar bat ikusten ari nintzela zirudien.

-Barregarria izan da, ez esan ezetz.

Barreka lehertu ziren biak.

Anabelek bazekarren gosaria erretilu batean eta isildu behar ziren. Tomate tosta behar bezala jateko ere zailtasunak izan zituzten barregura eragiten zielako sukaldean bizitako antzezpenak. Behin tosta amaituta, ostera, kafesne kikara eskuan, galdezka hasi zen Adele.

-Istorio ikaragarri bat kontatu zenidan bart. Benetan ez dudala ulertzen nola gorde izan ahal duzun urte hauetan guztietan. Norbaitekin partekatzeak zauria sendatzen lagunduko zizun, oinazea leuntzen. Inma eta Alexi ezta ere ez zenien ezer kontatu? Haiek ez zizuten ezer galdetu? Haiek jendeaz, beste pertsonaz, zenbat arduratzen diren adierazten du horrek. Benetako lagun batek goibel, zauritua, lur jota zeundela sumatuko zuen eta zer gertatzen zitzaizun galdetuko zizun. Haiek ez, haiek euren kasa beti.

Eserlekuaren gainean oinak gurutzatuta zegoen Lara, kafe kikara bi eskuekin oratzen. Lasai ematen zuen, aspaldian ez bezala, bere benetako egoera zein zen ahaztu balitzaio bezala.

-Nekatuta geunden biok bart, antza denez. Kontatu nizuna ez zenuela aditu edo ulertu uste dut. Istorioa gorde nuela? Zoritxarrez publikoa zen istorio bat gorde? Mundu guztiak ezagutzen bazuen! Lucíaren elkarrizketa nazio mailako hedabide batean argitaratu zen. Mundu guztiak bazekien Lucíarekin gertatutakoa, Yagüe ekoizlearen eta haren senideen jokaera ez ziren sekreturik. Eta ni familia haren zati bat nintzela ezta ere ez zen sekreturik, toreroarekin irteten hasi nintzen unetik. Nire argazkiak, nire izen eta abizenekin, aldizkari guztietako azaletan kaleratu ziren. Herrian mundu guztiak bazekien Yagüe bat nintzela, ez ziren berehala ohartu baina laster aurkitu zuten. Hortaz, bart kontatu nizun istorioa zuretzat eta zure belaunaldiko beste edonorentzat soilik izan daiteke zerbait berri. Inmak eta Alexek, herriko beste edozeinek bezala, nire goibeltasunaren zioen susmoak izango zituzten, baina nire lagunak ziren eta nire erabakiak errespetatzen zituzten (beti egin dute). Hitzik egin nahi ez banuen, ez ziren gaiarekin tematzen.

-Gehiegi, merezi dutena baino gehiago defendatzen dituzula uste dut hala ere. Baina tira, ez daitezela haiek orain ere protagonista izan. Amaitu gabe geratu zen atzo gaueko istorioa. Zuen ama istorio osoko pertsonaia maltzurrena izan zela bota zenidan eta lasai geratu zinen. Nola espero zenuen lo egitea cliff-hanger hori jaso ondoren? Ez dut zuen ama ezagutzen, minutu gutxi batzuk baino ez dut hura ikusi eta entzun, atzo iritsi ginenean. Azalekoa, kaskarina eta txoriburua izatearen antza hartu nion, eta pertsona materialista bat ere badela esango nuke, edo agian nire aurreiritziak dira ezagutzen ez dudana pertsona bat epaitzen ari direnak. Baina aitita neskabila txikien bahitzaile, iruzurgile eta sexu ustiatzaile zeneukan, eta aita, haren

konplize eta sentimendu manipulazaila hotza. Haiek baino maltzurrago izan al daiteke norbait? Esajeratzen aritu behar zinen. Ezin dizut sinetsi. Amarena argitu behar didazu. Berehala!

-Torero bat mutil-lagun izan nuela kontatu dizut noizbait, ezta? –Buruarekin baietz esan zuen Adelek.- Amak, Inmak, istorio osoa badaki (edo ia osoa, hobe esanda), baina ez dut uste xehetasun askorik emango zizunik inoiz.

-Ez askorik ez gutxirik, sekula ez dit toreroarena aipatu ere egin. Hura eta bion arteko elkarrizketa batean ez dakit nola irten zitezkeen harira zure gaztaroko amodioak.

-Batek daki, bitxikeria bezala edo. Nire lepotik barre apur bat egiteko. Niri ere irrigarria iruditzen zait orain. Toreroa zein zen ere ez duzu jakingo, hortaz. Oraindik ere hedabide batzuetan agertzen da, ez dakit zer dela eta, inolako jaramonik ez diedalako egiten halako hedabideei eta are gutxiago haren gaineko albisteei.

Ez duzu jakingo ezta toreroa ni baino hamar urte nagusiagoa zela eta dibortziatu berria zela. Oso txikitandik, betidanik ezagutzen nuen toreroa, gure familiek elkarrekin igarotzen zituztelako udak Marbellan. Oso gertuko lehengusu bat bezala ikusten nuen, edo neba nagusi bat bezala ia. Bada, toreroa dibortziatu zen urte hartan, gure etxean uda pasatzera gonbidatu zuten gurasoek, bakarrik egon ez zedin eta atsekabea arintzen laguntzeko. Hemeretzi urte neuzkan nik orduan. Adin horretan udak zer diren ez dizut azaldu beharrik, baina irudika ezazu zer izan zitezkeen Marbellako udak hemeretzi urteko neska batentzat. Egunero (gauero) bazegoen jairen bat, bat gutxienez. Denetara joan nahi nuen nik, jakina, eta gurasoek eragozpen handirik ez zidaten jarriko, oso bestela, haietzat jaietara joatea, gonbidapenak onartzea, gizarte betekizun bat baitzen, nire heziketaren zati esanguratsu bat. Baina urte hartan, gainera, haien gogoko zen laguntzaile bat izango nuen jaietan: toreroa, noski. Nire neba nagusiarekin irtengo banintz bezala izango zen, baina nire benetako neba batekin irtetea izango zatekeen umiliazioa gabe.

Gurasoak lasai egongo ziren nire irteerekin, haietzat seme bat bezalakoa zen toreroak zaintzaile eta begirale lanak egingo baitzituen; eta, aldi berean, toreroa ez zen etxean gordeta geldituko eta Marbellako gaueko gizarte ekitaldietan ikusi ahalko zuten, baina zurrumurruak eragingo zituen bikoterik gabe, mundu guztiak baitzekien gure arteko harremana senitartekoena zela.

-Botaka hastear nago jada eta oraindik ez da zuen ama agertu. Deskribatzen ari zaren hori infernua ematen du, berez, beste barik. Nahikoa iruditzen zait handik (hemendik) ahal bezain

laster ihesi joateko eta oraindik badirudi ez duzula gakoak aipatu. Ez dakit nola joan daitekeen txarragora. Toreroak bortxatu zintuela aitortu behar didazu ala?

-Hori baino arras txarragoa izan zen: maitemindu nintzen. Tentela izan nintzela? Bai, zeharo. Beste irtenbiderik ez zidatela utzi? Baita ere. Hemeretzi urte neuzkan. Pentsa ezazu adin horretan nola ikusten duzun hogeita bederatzi urteko gizon gazte, eder (ederra zen orduan toreroa, hori ere onartu beharra dago), arrakastatsu, ospetsu, eskarmentudun bat... eta gainera kasu egiten dizuna! Liluratu ninduen. Txikitandik nola edo hala miresten nuen nire lehengusu nagusiak, niretzat eredu bat zenak eta zinez maite nuenak (nire neba balitz bezala), jada ez ninduen neskatila bat bezala ikusten, emakume heldu eta desiragarri bat bezala baizik. Burua galdu nuen, edo ez neukan egoerari zentzuz aurre egiteko nahikoa bururik. Maitemindu nintzen. Hura amodioa zela uste nuen orduan. Benetan. Elkarrekin irten ginen bigarren aldian, etxerako bueltan musu eman zidan. Hurrengoetan... suposa dezakezu, ez dizut xehetasunik emango. Diskretuak izan nahi genuen hasiera batean, baina laster jakin zen gure artekoa. Paparazzoren batek gure ezkutuko musuren baten argazkia atera eta argitaratu zuen, eta ahoz aho zebiltzan susmoak berretsi ziren Marbellan.

-Hau nazka! Manipulatu zintuen, zure xalotasunaz aprobetxatu zen, bere egoera eta posizioaz baliatuz. Ez zintuen bortxatuko baina portaera higuigarria izan zuen.

-Zoriontsu nengoen ni, pozik eta zoriontsu. Orain zuk diozunarekin ados egon naiteke neurri batean, baina orduan ipuin bateko printzesa bat bezala sentitzen nintzen. Lerda bat izan nintzen, dudarik gabe, baina ezin diot horren errua inori bota.

-Eta gurasoek zer? Etxetik botako zuten berehala, ezta?

-Ez... Argazkiak kaleratu baino lehen, zurrumurrua Marbellatik zebilenean, aita asko haserretu zen. Aitak hasieratik zekien zurrumurrua egia zela. Marbellako lagunek kontatu zioten eta bazekien haiek ez ziotela alabaren inguruko esamesarik kontatuko ehuneko ehunean ziur ez bazeuden. Gainera toreroa ondo ezagutzen zuen aitak, jaio zenetik ezagutzen zuen, eta bazekien hortaz zer nolako ohiturak ikasi zituen hark txikitandik. Toreroa ez zen jada ume bat edo gaztetxo bat, Marbellako gizon dibortziatu bat zen... aitaren taldeko beste bat zen toreroa. Hortaz, bai, itzeleko haserrealdia hartu zuen aitak, etxetik bota behar zuela, lotsagarria zela etxe hartan (honetan) eman zioten konfiantza nola traizionatu zuen, ez zuela horrelakorik espero toreroaren abizena zeraman norbaitengandik... eta antzekoak. Badakizu, hamazazpigarren mendeko literaturako gauzak.

-Borrokan egin zuten? Jipoitu zuen?

-Ez. Aitaren asmoa hori izan zitekeen, beharbada. Ez benetako borroka bat, ukabilkadaka eta horrela, oldarraldi faltsu bat baizik, elkarri kolpeka hasi baino lehen banatuko zituztelako itxaropenarekin. Baina amak aitaren haserrealdia baretu zuen eta ez zen odolik isuri nire "ohorearen" defentsan.

-Eta berriz ere ama bakegile lanean. Benetan ez dudala ulertzen zergatik gorrotatzen duzun hainbeste.

Larak arnasa hartu zuen, sakonki, edo hasperen egin zuen. Eta jarraitu zuen.

-Nire alde (eta toreroaren alde) bitartekari lanak egin zituen amak aitaren aurrean. Aitak traizio bat eta jokaera lotsagarri bat ikusten zituen lekuan, maitasunezko harreman eder bat zegoela ikusarazi zion amak. Toreroa eta biok beti, umeak ginenetik elkar maite izan genuela gogorarazi zion eta oso hunkigarria zela, behin helduarora iritsita, maitasun hori bikote harreman bat bilakatu ahal izana. Beraiek ere, aitak eta amak, zorte handi izan zutela ni toreroa bezalako konfiantzazko gizon batekin maitemindu izanaz, eta ez batek daki zer gazte ezezagunarekin. Toreroa oso ondo ezagutzen zuela esan omen zion aitak eta izatez horrek kezkatzen zuela gehien. Baina amak toreroaren inguruan zebiltzan zurrumurruek gezur zirela konbentzitu zuen, haren emazte ohiak kazetari batzuen laguntzarekin zabaldutako esamesak. Ume bat zenetik ezagutzen zutela toreroa gogorarazi zion amak aitari eta hark beti ahizpa txiki bat banintz bezala tratatu ninduela ni, eta, hortaz, ziur zegoela orduan ere, bikote ginela, errespetu berdinarekin tratatuko ninduela. Eta aitak amore eman zuen. Toreroak etxean jarraituko zuen eta gauero biok elkarrekin Marbellako jaietara joango ginen.

Egunez ere udako planak elkarrekin egiten genituen, jada ez baitzegoen harremana kazetarien kameretatik ezkututzerik. Hondartzara edo igerilekura joaten ginen, edo lagun baten belaontzian nabigatzera, edo toreroaren familiaren finka bisitatzera. Gogoratzen dudan heinean, niri ere gero eta botalarri handiagoa ematen dit hemeretzi urteko Lara txoriburuak. Baina, jakina, ez genbiltzan egunean hogeita lau orduz bata bestearen ondoan. Maiteminduta zaudenean hori omen da nahi duzun bakarra, baina hemeretzi urteko neska memelo batek ere bere astia eta espazioa behar ditu, zer esanik ez hogeita bederatzi urteko gizon dibortziatu batek. Bakoitzak bere lagun taldea geneukan eta, suposa dezakezunez, lagun talde hauek ez zeukaten zerikusirik bata bestearekin. Bananduta mantendu genituen beti. Nire neska lagun taldearekin joaten nintzen ni noizbehinka eta hark gizonezkoen gauzak egiten omen zituen bere mutil lagun taldearekin.

Horietako okasio bat Toya nire lagunaren urtebetetzea izan zen. Toya, Victoria izenaren laburdura da, sekula entzun ez baduzu. Marbellan eta Chamberín horrelako laburdurak oso ohikoak ziren. Bere etxeko igerilekuan ospakizun bat antolatu zuen guretzat, neskentzat bakarrik. Ondo gogoratzen dut. Biharamunean gala festa bat antolatuko zuen, Marbellako erara, cocktail jantziekin neskak eta smokingarekin mutilak; baina bezperan neskek bakarrik, bikiniz jantzita, jan, edan eta dantza egingo genuen. Bada Toyaren jaiaren erdian txarto sentitu nintzen bat-batean. Ez, ez zaitetz ikaratu, ez dut haurdun nengoela horrela jabetu nintzela kontatuko. Guztiz kontrakoa. Hilerokoa zen. Min handiak eragin dizkit hilerokoak beti, eduki dudak bitartean, ohean sartu beharrekoak ere, eta horrelakoa izan zen egun hartakoa. Toyak mina moteltzeko pilula bat eman zidan, baina ez zen nahikoa izan (inoiz ez zen nahikoa). Pilulak mina leundu zidan arren, gorputz txarra neukan eta ez neukan jaietarako aldarterik. Etxera itzuli nintzen, Toyari sentitzen nuela esan ondoren.

Etxea hau bera zen. Egun bakarra daramazu hemen baina ikusi dituzu hemengo ohiturak: hemen udan ez dago ordutegirik edo egitaraurik, gauetako jaiena ez bada. Etxeko denak bere kasa dabilta irteten eta sartzen. Eguneko ordu gehienetan huts hutsik dago etxea. Ordutik datoz ohitura horiek. Etxera iritsi nintzenean Toyaren jaitik ez nuen inor aurkitu hemen, lorategian edo igerilekuan. Beste norbaiten etxean egongo ziren bazkaltzen edo erosketak egiten edo batek daki. Nik ohean sartzeko gogoak neukan, baina mimoak nahi nituen ere une hartan. Nire gelara joan baino lehen, toreroa etxean ote zegoen baieztatu nahi nuen. Seguruenik ez zen egongo, are gutxiago bere gelan gordeta egun argiz, baina agian zortea nuen eta harekin besarkatuta oheratu nintekeen mina igaro arte. Haren gelaren atea jo eta erantzunik itxaron gabe zabaldu nuen.

Eta bai, gela barruan bazegoen. Ohean sartuta ere. Eta harekin, ama.

Ahozabalik Adele.

-Putakumea!

18

Nirekin hitz egin nahi zuela! Elkarrekin mintzatu behar genuela! Zertaz? Kontzientzia zuritu nahi zuen. Ez zitzaion damu izpirik antzematen. Zorioneko elkarrizketa hura izango genuen edonola, ez nintzen ni izango aurpegia emango ez zuena. Hainbeste urteren ondoren atea jo eta ezer gertatu ez balitz bezala ezin nuen jokatu. Ez nuen eztabaida garratz edo liskarrerako indarrik, baina amak gure artekoa mahai gainean jarri nahi bazuen ez nintzen ni izango erronkari uko egingo ziona.

Esan dudanez, igerileku alboan etzanda nengoen elkarrizketaren gaiarekin ama hurbildu zitzaidanean. Igerilekuaren ertzean eseri zen, niri begira. Enbidoa onartu nion.

-Ados. Pertsona helduak, emakume helduak, gara biok Ez luke zentzurik, ingelesek dioten moduan, gelan dagoen elefantea ez aipatzea. Baina egarri naiz, siku daukat eztarria. Bitartean edateko zerbait ekarri beharko zenidake.

-Edariarekin arazoak al dituzu? Lehenago jakin izan banu laguntza lortuko nizun, baina ez didazu zutaz arduratzea, zu zaintzea, utzi. Ez dakizu horrek zenbat min eragin didan urte hauetan guztietan.

-Ixi, xixi. Zintzoak eta gardenak izango ginela uste nuen, baina Nuria Esperten plantak egiten hasten bazara, honek ez dauka itxura onik. Nik ez dut alkoholik aipatu, edateko zerbait baino besterik ez dizut eskatu, eta, hara kasualitatea, zuk edatea alkoholarekin eta arazoekin lotu duzu. Edonola, ongi pentsatuta, hobe alkoholdun zerbait ekartzen badidazu. Lagungarria izango da.

-Baketsu etorri naiz, ez dut uste zure ironia hori merezi dudanik.

-Ados, egin bedi bakea. Baina biktimarenak egiten hasten bazara ni banoa. Zer hartuko dugu hortaz?

-Negroni bat?

-Negroni bat zer demontre den ez dakit, baina sekulako izena du. Ekar itzazu negroni bana.

Ez zen lekutik altxa ama. Sakelakoaz deitu zuen, sukaldera antza, eta bost minutuan Anabel agertu zen, edari beltzez beteriko bi edalontzi erretilu batean zeramatzala eta amak ipurdiaren azpian jartzeko kuxin batekin. Edari beltza probatu nuen.

-Ona da, benetan, baina bermuta da. Ez dakit zertan aldatu behar diozuen izena.

-Ginebra eta Campari ere baditu, eta Angostura tanta batzuk.

-Dena dela. Zertaz hitz egin nahi zenidan?

-Soberan dakizu. Barkamena eskatu nahi nizun, aspaldidanik. Nik ez nizun minik egin nahi, horregatik ezkutatu nuen harremana. Ustekabean, oharkabean gertatu zen Julián eta biok maitemintzea –Julián, bide batez, toreroa zen, orain arte haren izena aipatu ez dugula uste dut eta-. Badakizu nolakoak diren amodioaren asuntoak, ez dira aurreikusi eta planifikatu daitezken ezer. Gure artekoa aitortzeko asmoa genuen, zuri inori baino lehen, baina atzeman gintuzun eta itxura itsusia hartu zuen istorio guztiak. Eragin genizun mina zinez sentitu nuela eta oraindik errudun sentiarazten nauela sinetsi behar didazu. Barkamena eskatu nahi nizun hasierako unetik, baina ez zenidan abagunerik eman. Handik lasterrera alde egin zenuen eta ez nuen zurekin egoteko modurik izan. Orain arte. Nire alaba zara, nire bihotzekoa! Urte hauetan guztietan ezin izan dut bizi gorrotatzen nauzula jakinik.

-Tira, badirudi azkar kitatuko dugula solasarena. Lehenik eta behin, nire barkamena daukazu. Aspaldi barkatu zintudan, ez naiz herra gordetzen duen pertsona bat. Ez zaitut gorrotatzen. Gorrotatu zintudan, bai, hasieran, gorrotatu eta mespretxatu, baina laster pasa zitzaidan. Gerorago, eta orain arte, eragiten didazun sentimendua errukia dela esango nuke. Hori jakinik nahikoa badaukazu, bermuta hartzen jarrai dezakegu. Gehiago behar baduzu, ostera, jarrai nezake.

Benetan sentitzen ez duzula esango nizuke, inoiz ez duzula sentitu, eta nire barkamena ez duzula ezertarako behar, zure burua zuritzeko baizik. Hainbeste kezkatuko bazintu nire ustezko gorrotoak, zintzoa izango zinateke, gauzak gertatu bezala kontatuko zenituzke, ez orain bota duzun asmatutako kulebroi hori. Zeren, ez, nik orduan ez nekien deus “amodioaren asuntuez”, zuk esan duzun bezala. Ni nerabe ia gazte bat nintzen orduan, ez nekien munduaz ezer, ez amodioaz ez beste edozertaz ere. Eta zu ezjakintasun eta eskarmentu falta horretaz aprobetxatu zinen. Zuk bai bazenekien amodioaren asuntoak nolakoak diren, bazenekien neska nerabe bat maitemintzen denean itsu bihurtzen dela eta itsutasun horretaz baliatu zinen.

Ez hori soilik, Juliánek sexuarekin arazo bat bazeukala ere bazenekien. Arazoarena orain esan dezakegu, orain hitz egiten delako gizonezkoen sexurako adikzioez. Orduan ez, orduan ez zen arazorik, emakumeak asko gustatzen zitzaizkiola zen haren inguruan zebilen zurrumurrua, guztiak gustatzen zitzaizkiola eta ezin zuela leiala izan. Horregatik dibortziatu zela zioen jendeak. Mundu guztiak zekien Marbellan, aitak ere. Horrexegatik aitak ez zuen Julián etxean sartu edo ni harekin ibiltzerik nahi. Baina zuk aita ere konbentzitu zenuen Julián etxean eta gertu izateko, nik Julián zenbat maite nuen aitzakiatzat jarrita. Juliánek oheratu nahi zinen eta parada aproposa antolatu zenuen. Kito. Zure intentzioak estaltzeko erabili ninduzun, itsu eta zaugarri nengoen une batean. Ez zenuen nigan unerik bat ere pentsatu. Edo pentsatu zenuen baina zure asmoak lehenetsi zenituen. Ez dakit zer den ikaragarriagoa.

Zuen artekoa aitortzeko asmoa zenutela eta ni aurreratu nintzela? Txantxetan ibili behar zara. Zergatik, orduan, behin nik aurkitu ondoren, ez zenioten inori deus esan? Ez orduan ezta hurrengo hogeita hamar urteotan ere. Aitari ez zenion ezer esan, Cristinari ezta ere, zer esanik ez zuen adiskide taldeari ere ez. Zure buruarekin bakean egoteko hori sinetsi nahi baduzu, ados, bakoitzak bizirauteko moduak bilatu behar ditu, baina ez ezazu espero nik tamaina horretako gezur lodirik irenstea. Bide batez, non ote dago Cristina? Ez dut hemendik ikusi egun hauetan, ezta bisitan ere. Harekin ere antzeko gatazkarik al daukazu ala?

-Herrarik ez zenuela esan duzu, baina zure hitzek eta haserre horrek aurkakoa adierazten dute. Ez esan ezetz.

-Ez, ez, ez iezadazu gaizki ulertu esaten ari naizena. Ez zaitut gorrotatzen. Ez dut herrarik gordetzen. Puntu. Nire buruarekin bakean nago nik. Ez nuke zertan ez egon beharrik, egia esateko. Zure aldamenetik alde egin banuen, ez zen gorrotoaz erreta nengoelako edo zu errudun sentiarazteko. Zure trikimailu eta azpijokoen tresna izan nahi ez nuelako joan nintzen. Nahi zenuenarekin oheratu ahalko zinen, zela zu baino hamabost urte gazteagoa zen torero ganorabako bat, zela beste edozein gizagaixo bat, niri bost.

Aitak eta zuk elkarri gezurrak esaten eta elkarrekin sekretu lotsagarriak gordetzen jarraitu ahalko zenuten; jendea manipulatzeko segitu ahalko zenuten, zuen intereserako eta zuen imajina babesteko, baina ni zuen amarru eta azpikeria horietatik kanpo egon nahi nuen. Eta bide bakarra zuengandik urrun egotea zen, zuengandik eta zuen ingurumenetik. Horregatik joan nintzen eta horregatik ez nintzen itzuli. Bizitza bat eraiki nahi nuen baina ez zuen erara, ez zuen arau eta jokaerez gidatutako bat.

Orain benetako arazo larri baten erdian nago eta ez zait hau baino babesleku hobea aurkitu. Agian ez da hautu hobea izan, baina presaka eta estu erabaki nuen. Horregatik itzuli naiz, ez zurekin liskarrean aritu nahi nuelako. Mesedez, hogeita hamar urteren ondoren!

Argi? Hori zen guztia? Igerilekuan sartuko naiz une batez, arazorik ez baduzu. Burua lasaitu beharra daukat, irtenbide bat aurkitzeko.

Hamakatik altxatzeko mugimendua hasi nuen baina besotik heldu ninduen amak.

-Ez, ez da nahikoa. Oker zaudela frogatzeko aukera eman behar didazu. Ez dut azalpen gehiagorik emango, ez dut aitzakia gehiagorik jarriko, egin nuena gaizki zegoela onartzen dut. Bihotzez damututa nagoela erakutsiko dizut. Moduren bat egon behar da. Zurekin zorretan nago eta zor hori berdintzeko prest nago. Parada eman behar didazu. Arazo larriagoak badauzkazula diozu? Zeintzuk dira arazo horiek? Zer egin dezaket nik laguntzeko? Eskatu. Beldur gabe eskatu. Lotsarik gabe. Zure ama hau zertaz kapaza den aurkitzeak harrizko zaitu.

Ez neukan zer galtzerik. Nik hitz egiten hastea, ama isiltzeko bide bakarra izan zitekeen une hartan. Gainera, buruan bueltaka nerabilen arazoa hitzetan adierazteak, korapilo guztia konpontzen lagunduko zidan, beharbada. Hortaz, kokaina fardelaren istorioa kontatu nion amari.

-Ez duzu sinetsiko baina droga trafikatzailerik bortitza batzuetatik ihesean etorri gara hona...

Ez zuen espero nuen harridura imintziorik egin. Kontakizun guztian zehar ere ez. Ni, ordea, negarrez hasi nintzen urduritasunaren urduritasunaz.

-Edozein txikikeriari arazo deitzen diozue gazteek –bota zidan istorioa kontatzen amaitu nuenean, negarrez nengoen honi!- Zerbait benetan larri kezkatzeko zintuela uste nuen, gizonak batekin loturiko zerbait. Zure gizonak beste emakume bategatik utzi zintuela uste nuen, edo hil egin zela. Edo zuren lagun gaztea komeri ez zaion gizonen batengandik aldendu behar zenuela. Horrelako zerbait. Konponbide errazik edo inolako konponbiderik ez zeukan arazoren bat zenekartela susmatzen nuen.

-Gizonik ez daukat, ama –harriduraz negarra gelditu zitzaidan, baina malkoz bustita nengoen oraindik.

-Nik zer dakit, bada! Hogeita hamar urtetan ez badidazu fisikoki kontatu! Baina erdipurdiko ganbelu batzuegatik egundoko atsekabe hori hartzea... Urte guzti hauetan bizitzaz ezer gutxi ikasi duzula ematen dit. Hobe izango zenuen nire ondoan geratu bazina. Eguneroko

enbarazuak kudeatzen ikasiko zenuen, horrenbesteko saminik gabe. Eta benetako arazoei aurre egiten ere ikasiko zenuen nigandik hurbil egon bazina. Gizon bat edukiko zenuke! Behar bezalako bat.

Txundituta nengoen entzuten ari nintzenarekin. Nire erantzunek ere zentzua galdu zuten.

-Hara bestea, behar bezalako gizona mintzatzen! Zer ote da hori? Aita al da behar bezalako gizona ala?

-Berrogeita hamar urte baino gehiago daukazu eta oraindik nerabe matxino baten tentelkeriak gordetzen dituzu. Ama gutxiesten duzu eta aita ere gutxiesten duzu. Ondo ezagutzen ez duzula argi dago. Ondo ezagutzen ez gaituzula.

-Tira... Ez dut horretaz berriro hitz egin nahi. Luzaro aritu gara. Nire arazoez ari ginen. Gure arazoaz. Ez da ahuntzaren gauerdiko eztulik. Erdipurdiko gaizkileez ari garela ez dut uste.

-Lasai, Lara, lasai. Gauza handirik ez dela sinetsiezadazu. Fida zaitenez amaz, aldi batez soilik ez bada ere. Aste gutxi batzuen buruan haserrealdia baretuko zaie astakilo horiei edo beste buruhauste nagusiago batean sartuko dira eta zuetaz ahaztuko dira. Ziur. Behin bitartean, Marbella baino leku hobeagorik ezin izan duzue aurkitu. Seguru egongo zarete hemen. Hemen ez dute sudurrik sartuko.

-Leku pare bat baino gehiago bururatzen zaizkit Marbella baino seguruago. Presaka eta gehiegi pentsatu gabe erabaki nuen.

-Hara! Marbella bera ere gutxiesten! Beste arazo batzuk daukazu zuk, kokaina fardelaz haratago. Konponduko ditugu horiek ere. Bitartean egin kasu amari. Eta hasteko: beste bainu jantzi bat jarri beharko zenuke.

XIX

-Inmaren dei galdu bat daukat telefonoan.

Egongelan zeuden Lara eta Adele, telebistari begira, Adelek hau bota zuenean. Udako gau bat zen eta, horrenbestez, nahiz eta asteguna izan, Marbellan edozein plana zen etxean telebista ikusten geratzea baino hobea. Marbellako udak ez ziren beste garai batekoak, jada ez zegoen galazko jairik ia gauero, baina Marbellan uda igarotzen jarraitzen zutenek egunero asmatzen zuten dibertitzeko zerbait. Cuca eta Bosco, Lararen gurasoak, irtenak ziren afariren batera edo ospakizun batera edo kontzerturen batera, ez zieten jaramon handiegirik egin – litekeena zen ere haietako bakoitza bere kabuz leku ezberdin batera joan izana-. Hala ere, Lara eta Adeleri ez zitzairen komeni etxe hartatik irtetea. Zenbat eta jende gutxiagok jakin Marbellan zeudela, harik eta seguruago egongo ziren. Etxea handia zen, hesi altuz inguratutako lurzoru zabal zeukan paseatzeko eta ez zeramaten egun askorik han gordeta, baina hala ere zereginik gabeko bizimodu burges hura kotoizko kartzela bat izan zitekeela nabaritzen hasiak ziren.

-Itzalita eduki beharko zenuke telefonoa –erantzun zion Larak, konbentzimendu gehiegirik gabe, berea piztuta zeukala baitzekien-. Gailu horien bitartez uneoro non zauden jakin daiteke. Ez naiz fio.

-Hala da, baina itzalita ere lokalizatu zaitzaketela uste dut. Hortaz, itzaliko banu ez genuke ezer aurreratuko. Gainera zuk ere piztuta daukazu, ez esan ezetz.

-Bai, baina ez naiz fio, nolana ere –mintzagaia desbideratu behar zuen Larak hanka sartzea disimulatzeko-. Eta zergatik diozu dei galdu bat daukazula? Zergatik ez diozu erantzun amari?

-Isilean daukat telefonoa. Beti izan dut. Uste dut lehenbiziko sakelakoa eman zidatenean jada isilean jarri nuela. Ez naiz ohartu deitu duenean, telebistari so nengoelako, baina ohartu banintz ez dakit erantzungo ote nuen. Ez dut sekula deirik egiten ezta deirik erantzuten. Inmak badaki hori eta mezuren bat idazten dit zerbait esan nahi didanean. Mezuen bidez komunikatzen gara. Horregatik harritu nau haren dei bat edukitzeak.

-Normala da kezkatuta egotea eta zurekin hitz egin nahi izatea, azken asteetan gertatu den guztiarekin. Nolanahi ere, arraroa da bai, atzo bertan nik mezu bat bidali nion eta. Herritik bat-batean joan ginenean mezu bat bidali nion oporretan gindoazela esanez, badakizu. Eta atzo

lasai egoteko esan nion, ondo geundela eta oporrak apur bat luzatuko genituela. Ez da horrekin lasai geratu, dirudienez. Dei egin beharko genioke?

-Ez dut uste. Gure nondik norakoen zenbat eta xehetasun gutxiago jakin, hobe harentzat. Hobe haientzat eta guretzat. Hobe denon segurtasunerako. Skate dendako Jonen soberan daki Inma eta Alexen alaba naizela eta ziur dagoeneko haiengana joan dela non nagoen galdetzera, edo behintzat haien etxeko inguruak zelatatzen ibiliko da, ni noiz agertuko zain. Suposatzea da ere fardelaren jabeak enteratuko zirela jada nire gurasoak nortzuk diren eta haien ingurua zelatatzen ariko direla. Hobe Inma eta Alexekin inolako kontakturik ez badaukagu.

Tente jarri zen Lara bat-batean. Zurbil zegoen, begiak parez pare zabalik, aurreko hormari so, kolpe gogor bat jaso balu edo iktus bat eman balio bezala.

-Ahots mezurik utzi al zizun erantzungailuan? Ahots mezurik daukazu begiratu al duzu?
-galdetu zion Adeleri, begirada hormatik kendu gabe.

-Ez dakit erantzungailurik daukadan ere. Zer da hori?

Eskuetatik telefonoa kendu zion Larak Adeleri, keinu bortitz batekin. Haserre zegoela ematen zuen. Zergatik haserre? Adelek ez zuen ezer ulertzen. Zerbait bilatzen zuen Larak Adeleren sakelakoan. Dei bat ere egin zuen. Ahots mezurik ote zeukan baieztatzen ari zen. Sofatik zutitu zen Lara eta Adeleren telefonoa sofa gainera jaurti zuen. Burura eraman zituen eskuak. Ile artean sartu zituen atzamarrak.

-Burugabe jokatu dugu. Ni izan naiz burugabea. Barkatu Adele, zuk ez duzu ezer egin gaizki. Ni nintzen bien arteko pertsona heldua eta ni izan behar nintzen bien arteko zuhurra, baina zuhurtzia galdua nuen nonbait. Nola demontre ez nintzen konturatu Inma eta Alex arriskuan jartzen ari nintzela? Berandu ez dadila izan espero dut soilik. Jainkoarren!

Sofan eseri zen berriz. Aurpegia eskuekin estali zuen, baina ez zen negarrez ari.

-Deitu behar diegu -aurpegia oraindik eskuekin estalita zeukala esan zuen-. Deia egin dizuna Inma izan dela baieztatu behar dugu, haren telefonoa beste norbaiten eskuetan ez dagoela.

-Ostia! -Adele orduan jabetu zen gertatzen ari zenaz.

20

Ez zen Inma izan deia egin zuena, jakina. Biok entzuteko moduan bozgorailua jarrita, Inmaren telefonora deitu genuen eta erantzun zuena ez zen Inma izan. Alex ezta ere. Gizonezko ahots ezezagun bat izan zen. Gure susmo txarrenak baieztatuz. Skate dendako Jon ere ez zen telefonoaren bestaldekoa. Aspaldian harekin hitz egin ez nuen arren, erraz ezagutuko nuen. Horrek garrantzirik ez badauka ere, atzerriko azentua zeukala ahotsak esango nuke, baina izugarri txarra naiz azentuak nabaritzen eta beharbada ezagutzen ez nituen aurreiritzi xenofoboak dauzkat.

Ez ditut haren hitzak erreproduzituko baina... laburbilduz: Inma bahitua zeukaten. Eta Alex. Biak.

Ezin ditut hitz zehatzak errepikatu burua biraka neukalako une hartan. Zentzumenak lodituta neuzkan. Ikusten eta entzuten nuena ez zirudien erreala. Amesgaizto baten barnean egon behar nuen, edozein unetan esnatzeko zain. Baina ez, ez zegoen esnatzerik. Nekez ez nuen konortea galdu.

Fardela itzultzen ez bagenien berriz bizirik ikusiko ez genituela mehatxu egin ziguten.

Adele –zorionez edo- ni baino lasaiago erantzuteko gauza izan zen. Tonu irmoz hitz egin zien –ahots bakarra entzun genuen baina, bat baino gehiago zirela errepikatzen zuenez, bat baino gehiago zirela suposatu behar, izan ere bakar batek nola bahituko zituen biak?-. Arduragabekeria lotsagarriaz jokatu zutela aurpegiratu zien. Polizia etxetik irten berria zela esan zien Adelek eta epaiketaren zain zegoela, horrenbestez bere telefonoa zulatuta egon behar zuela ziurrenik. Hortaz, orduantxe, poliziari berari bi bahiketa zuzenean aitortu zizkietela ikusarazi zien –egia esan, ni neu ere ez nintzen horretaz jabetu-. Zeudenean zeudela ere, une batetik bestera polizia atea behera botatzen izango zutela esan zien, hobe zeukatela bahitutako biak libre utzi eta ahalik lasterren handik ihes egitea. Adelerekin izugarri harro sentitu nintzen une batez.

Isilaldi txiki bat egon zen bestaldean. Euren egoeraz ohartzean tentel aurpegia jarri zitzaizela sinetsi nahi nuen eta Adeleri kasu egingo ziotela, baina laster moztu zen isiltasuna.

Horren mozolo ez zirela erantzun zuen ahotsak, haserrea pixka bat ere leundu gabe, aztarnarik ez uzten soberan bazekitela. Inmaren sakelakoaren txartela lehenbiziko kontakturako

soilik erabiliko zutela eta laster fardela emateko jarraibideak jasoko genituela ezkutuko beste zenbaki batetik.

Zoratuko nintzela uste nuen deia moztu zenean. Negarrez garrasika hasi nintzen. Nire erruagatik, nire arinkeriagatik Inma eta Alexi kalte egingo zieten. Jipoituko zituzten. Joni egin zizkieten parekoak egingo al zizkieten haiei ere? Eta nire erruagatik dena! Akabatu ere egiten ez bazituzten!

Besoetatik gogor heldu eta astindu ninduen Adelek.

-Horrelako egoeran dagoen norbaiti zaplazteko bat eman behar zaiola uste dut eta lasaitzen ez bazara emango dizut, ezertarako balio duen jakin gabe ere.

Nola edo hala lasaitu nintzen, ez balizko zaplaztekoaren beldurrez, Adeleren ageriko lasaitasunak nire buruaz lotsatu ninduelako baizik.

-Poliziarengana jo behar dugu, Adele, oraingoan bai. Legezko arazoak ekar diezazuke horrek, bai, baina zuen gurasoak arriskuan daude, benetako arrisku larrian. Poliziarengana jotzea kalte gutxienera aukera da, gauden ataka honetan.

-Poliziak ez du sekula ezer konpondu. Guk konponduko dugu. Ideia bat daukat. Zera proposatuko diet bahitzaileei: kokaina fardeleraino gidatuko ditut baldin eta Inma eta Alex aske uzten dituzten.

-Zorakeria bat da hori, Adele. Tipo hauek ez dira txantxetan aritzeko modukoak. Alex eta Inma ez dituzte askatuko eta, fardela ezkutatu zenuen tokira iritsita oraindik bertan aurkitzen baduzue ere, min egingo dizute edonola. Min handia. Badakigu zeren kapazak diren. Bide batez... poliziak ez duela sekula ezer konpondu? Nondik atera duzu inuzentekeria hori? Rap batean entzun duzu ala? Zure etxean inor ez da izan poliziaren lagun mina, badakit, nik neuk ere ez ditut begiko, baina zuk? Gaiztoa izatera jolasten ala? Ez daukagu jolasetan aritzeko denborarik. Erreal da hau, Adele, erreal. Eta oso serioa. Poliziarengana joan behar dugu.

Nire aurreko iskanbilak deituta-edo Cuca agertu zen egongelan.

-Zer ote ziren oihu horiek? Zoratuta gaude ala? Ez esan armiarma batek izutu zaituela, mesedez, horren alaba kakati bat daukadala ez dut jakin nahi eta.

-Hara, falta zena –berak erabiltzen zuen tonuan erantzuteko gai nintzela erakutsi nahi nion, egoera hartan zaila gertatzen zitzaidan arren-. Etxean zeunden? Gaur ez al dago jairik? Edo ez zaituzte gonbidatu? Nor ausartu daiteke zu ez gonbidatzera?

-Ez, gaur ez naiz irten. Telebista ikusten nengoen gelan. Masterchef Junior ematen dute astelehenetan eta gogoko dut saio hori. Egungo telebistan, zure aititaren pelikulen antz handien daukan telesaioa da. Hark ere oso gogokoa izango zuen, ziur. Baina ze arraio zen hemen ari zinetena? Zertara hainbeste iskanbila?

Gure arazoaren jakinaren gainean bazegoenez egia esan nion. Ez nuen gehiegi pentsatu, burua ez neukan lar argi.

-Adeleren gurasoak bahitu dituzte trafikatzailiek. Arrisku larrian daude. Poliziarengana joan behar dugu. Ez daukagu beste irtenbiderik.

Kopeta ilundu zitzaion Cucari. Ez zirudien harrituta edo beldurtuta, haserre baizik.

-Etxe honetan polizia sartu nahi duzula? –Halako irteerarik ez nuen espero.- Aterpea eta babesa eskaintzen dizugu eta zuk polizia ekarriz ordaindu behar diguzu? Ez, neskaxa, ez, etxe honetan ez da ongi etorria izango inolako poliziarik. Atsekabeak baino besterik ez dizkigute ekarri eta.

-Zertaz ari zara? –Ez nuen tutik ere ulertzen.- Ze atsekabe eta ze demontre eragin dizue poliziak zuei? Polizia zuen antzeko jendearen laguna da, ez etorri orain bestelako plantak egiten.

-Gure antzeko jendea? Nor da gure antzeko jende hori? Zeinen oker zauden. Zein gutxi ezagutzen dituzu zure gurasoak eta zure familia. Gugandik ihes egin ez bazenu, gure ondoan egon bazina, poliziak zuen aita atxilotu eta kartzelan sartu zuela jakingo zenuke, droga trafikoarekin loturak zeuzkala egotzita. Zuen aita maite genuen guztiok jasan genuen oinazea gogoratuko zenuen, ehunka kilometrotara egon ez bazina. Ez naiz antzeko egoeratik berriz igaroko.

Orduan gogoratu nuen. Egia zen, aldizkarietan ere atera zen: droga trafikoaren aurkako operazio handi baten barnean nire aita atxilotu eta kartzelan sartu zuten aste batzuez. Ez nion garrantzi handiegirik eman bere garaian. Nire gurasoen beste gezurretako bat azalera zela pentsatu nuen eta, haien gainerako gezurrak bezala, nire bizitzatik ahalik urrunen mantentzen saiatu nintzen. Ahaztu nuen.

-Barkatu, ahaztuta neukan. Baina poliziaren ikerketari esker ere aita aske utzi zuten aste gutxi batzuen epean. Poliziarengana jotzen badugu, korapilo hau ahalik hoberen askatzen lagunduko digute oraingoan ere.

-Poliziak ez zuen askatu. Buru belarri aritu zen polizia zuen aitaren aurkako frogak bilatzen, gaixoa kartzelan bitzta guztirako sartzeko asmoarekin, ez dakit noren aginduz edo zer nolako interesei erantzunez. Hori ere jakingo zenuke hemen egon bazina. Legezko bideak erabili zituzten eta legez kanpoko azpijokoak ere, aitaren aurkako salaketa faltsu bat eraikitzeke. Baina ez zuten ezer frogatzerik lortu eta askatu behar izan zuten. Ez dut horrelako jendilajearekin traturik nahi. Bitzta izorratu diezazukete.

Jendilaje hitza erabili berri zuen Cucak poliziaz hitz egiteko. Nork sinetsi.

-Ez nizun ezer kontatu behar. Barkatu. Polizia ez da etxe honetan sartuko, ez nik deituta behintzat. Adele eta biok maleta egingo dugu, etxetik alde egin eta poliziarengana joango gara salaketa jartzera, zuekin eta etxe honekin inolako harremanik daukagunik aipatu gabe.

-Ez izan harro. Ez da harro izateko unerik egokiena. Erabaki arduragabeak hartzera bultzatzen zaitu harrokeriak. Beti bezala. Isildu eta amak esan behar dizunari aditu. Fardela zuek al daukazue?

-Ez. Galdutzat eman dezakegu. Adelek ezkutatu egin zuen, lurperatu. Dagoeneko norbaitek aurkituko zuen.

-Non ezkutatu zuen inori ez badio esan, han jarraituko du. Nolanahi, zertan geratu zarete litxarreror horiekin?

-Beste telefono batetik berriz deituko digutela esan dute, fardela emateko jarraibideekin. Erne egoteko.

-Ongi da. Bada, zera egingo dugu: deitzen dizuetenean, ez diezue erantzungo. Telefonoa jotzen utz ezazue. Urduri jarri daitezela.

-Zoraturik zaude ala! –barrutik irten zitzaidan-. Ez gaude jolasean ibiltzeko egoeran. Haserrarazten baditugu Inma eta Alexekin ordaindu lezakete. Inma eta Alex salbu atera behar ditugu. Poliziarengana jo behar dugu.

-Aditzeko esan dizut! Ama ez gutxiesteko esan nizun eta ez didazu kasurik egiten. Eta zurekin neukan zorra ordainduko nuela esan nizun ere. Horretan ari naiz, baina jarraibideak aditu behar dizkidazu. Lehenengo deian ez erantzuteko esan dizut. Dizueta.

Adelek bitartean miresmen aurpegiak begiratzen zion mintzatzen ari zen atso ero hari.

-Lasai, Inma eta Alex horiei ez diete ilerik ere ukituko –jarraitu zuen Cucak-. Fida zaitezte nitaz. Bigarren aldiz deitzen dutenean (bigarren aldiz deituko baitute, nik ziurtatzen dizuet), deia hartuko duzue baina une hartan lanpetuta zaudetela eta ezin diezuela jaramonik egin esango diezue. Eta berehala eskegiko duzue telefonoa.

-Zoratuta zaude. Erabat. Jende horiek ez dira erdipurdiko litxarrerok batzuk zuk diozun eran, gaizkile arriskutsuak dira.

-Ixi! –isilarazi ninduen Adelek, sorbaldan txalo bat joz-. Cucak badaki zertaz ari den. Zu ta biok gara ideiarik ere ez daukagunak. Entzun diezaiozun. Inma eta Alexengatik egizu behintzat.

-Hara pareta, barraskilok eta bareta –ezin nuen sinetsi: liluratuta zeukan umemokoa atso eroak-. Tira, tira...

-Eskerrik asko, Adela...

-Adele.

-Mila esker, Adele. Zuk behintzat asmo onenarekin aholku ematen ari naizela jabetu zara. Zu ere, Lara, amaren aurka gor eta itsu eginda ez bazeunde, nire intentzio ona nabarituko zenuke. Bigarren deia berehala eskegitzeko esan dizuet. Larritzen hasiko dira horrela, egoeraren kontrola ez daukatela sumatzen hasiko dira. Badakit zuentzat erraza ez dela izango, beste aldean Alex eta Inmari zer egin ahal dieten ez dakizuelako, baina berriro diotsuet: ez diete ilerik ere ukituko. Ez daukate zer irabazterik eta bai galtzeko asko.

-Oso zuhurra deritzot, piztia basati bat aurrez aurre daukazunean hura larritu eta ikaratzeari –ahapeka esan nuen, indarrrik gabe bainengoan ordurako.

-Ez dira inolako piztia basatirik, horretara jolasten ari diren hasiberri batzuk baizik. Ikusiko duzue –tematuta zegoen Cuca, ezagutuko balitu bezala-. Eta hirugarren aldiz deitzen dutenean (deituko baitute, apustu egin dezakezue), niri eman telefonoa. Nik erantzungo diet.

XXI

Ezkutuko zenbaki batetik egindako dei batek jo zuen Adeleren sakelakoan. Yagüetarren Marbellako etxeko egongela nagusian zeuden Adele, Lara eta Cuca deiaren zain. Deia iritsi behar zela jakin arren, dei tonua entzun zuenean, Larak izudurazko jauzi bat egin zuen eserlekuan, armiarma bat ikusi balu bezala.

Bezperan Adele telefonoaren jabearekin eta Lara bere alabarekin adostu bezala, Cuca Rodríguez de Rivas y Peñarandak, Bosco Yagüeren andreak, Bassecourteko Markesaren alabak, telefonoa eskuan hartu eta deia erantzun zuen.

-Arratsalde on, zarena zarela ere. Agian ez da espero zenuten ahotsa entzuten ari zaretena, baina lasai, ez naiz poliziarekin edo legearekin harremanik daukan inor. Nire lagun baten gurasoak bahituta daukazuela jakin dut eta hari mehatxuka ari zatzaizkiola, fardel batekin izandako gaizki ulertu bat dela eta. Bada gaizki ulertu hori konpontzera natorkizue, aldarte hoberekin.

Telefonoren bestaldean Cucaren hizketaldia mozten saiatzen ari ziren haserrezko garrasiekin. "Adar jotzerik ez dugu onartuko", "akabatuko ditugu" edo antzekoak antzematen ziren tarteka, baina Cucak entzungo ez balitu bezala hitz egiten jarraitzen zuen, lasai, irmo eta bestaldeko garrasiak itzaltzeko moduko tonu ozenean.

-Gaizki ulertu hau zuentzat modu onenean konpontzea nahi baduzue, adi entzutea komeni zaizuela esan behar dizuet, nire pazientziak ere mugak baititu. Hortaz, hobe duzue isiltzea. Nik ez dakit zuek nortzuk zareten eta esango nuke ez zaituztedala ezagutzen, baina sinetsiezadazue bost minutuan jakin nezakeela. Bost minutuan, deitxo batekin soilik, zuen izenak eta non arraio zaudeten jakin nezake. Ez da harropuzkeriarik, eziezadazue frogatzera behartu, ez zaizue komeni. Nire burua aurkezten dudanean ulertuko duzue eta ea isiltzen zareten behingoz: Milena nauzue, Milena Giraldo berez, baina Milena izenarekin nahikoa dela ziur nago.

Telefonoaren bestaldeko ahots haserreak bat-batean isildu ziren.

-Hau bakea, azkenik! Hasierako harridura joan eta berriz oihuka hasi baino lehen, Milena naizenik ez baduzue sinesten, Milenari ziria sartu nahi izan dioten azkenak nortzuk izan ziren eta nola amaitu ziren erreparasatu dezakegu. Ziur badakizuela. Ziur ezagutzen zenituztela. Tenerifen, kostaldeko errepidetik gidatzen zihoazela, bidetik irten eta auto barruan

itsaslabarretan behera amildu zirenak, Milenarekin zorrak zeuzkatela entzungo zenuten segur aski. Madrilgo mendietan, etxebizitza eta negozioen egoitza zuten txaletan suertatutako sute batean hil zirenak ere, zorigaitzez, Milenari barre egin zioten hark zorrak eskatu zizkienean. Benidormeko hotel bateko hamabosgarren pisutik salto eginez buruaz beste egin zuen beste bat ere Milenarekin eta honen pazientziarekin jolasten saiatu zen. Pisu horietako geletako leihoak irekitzea ez liteke posible izan behar. Arriskutsuegiak dira. Eta gertukoena, orain de la aste pare bat albistegietan atera zena: Marbellako jai batean mozkor batek, bere pistolarekin jolasean, nahigabe tiro egin ziola bere buruari. Milenari zor zion diruaz pentsatzen egongo zen gizajoa.

Negozioan atzo hasi ez bazineten ezbehar guzti hauen berri izango duzue dagoeneko. Jakinaren gainean egongo zarete jada, Milena Giraldoen eskakizunak aintzat ez hartzeak ezbehar hilgarriak jasateko arriskua neurri ikaragarrian areagotzen duela. Hortaz, hitz egiten ari natzaizuen hau Milena naizela berretsi baduzue behingoz, badakizue hobe duzuela arretaz aditzea. Zeren, bi albiste dauzkat zuentzat, ona bata eta txarra, oso txarra, bestea.

Txarrarekin hasiko naiz. Zuen zoritxarrerako, bahitu duzuen bikotea nire lagunak dira, nire lagun min baten gurasoak hain zuzen. Bai, sentitzen dut, aukera txarra egin zenuten. Jolasten duenari gertatzen zaio: batzuetan irabazle irteten da, bestetan galtzaile. Oraingoan zuek ez duzue asmatu. Sasoiz iritsi naizela espero nahi dut eta minik ez diezuela egin. Ilerik ezta ere ez diezuela ukitu! Bestela, lurrikaren aurkako bunker ezezagun eta ezkutu batean babestu beharko zarete, ezbehar hilgarririk gerta ez dakizuen.

Erantzun baten zain isildu zen Cuca. Telefonoaren bestaldean ez zen ezer entzuten. Cucak isilaldia luzatu zuen, galderarik errepikatu gabe. Ozena zen haren isiltasuna. Atezua. Jasanezina. Azkenik ahots fin, herabe, dardarti bat entzun zen.

-Onik daude, bai. Ez diegu minik egin.

Ez zuen berehala erantzun Cucak. Isilune bat utzi zuen, erabaki bat hausnartzen ari balitz bezala.

-Ongi da. Hobe zuentzat. Eta hobeagoa oraindik zuentzat daukadan albiste ona: jakin dezazuela Milena Giraldo ez dela esamesek dioten bezain gupidagabea. Jende bekaizti asko dago nire izena zikindu nahi duena eta munstro beldurgarri bat bezala irudikatzen nauena. Gezur ustelak. Milena zein bihotz onekoa eta errukitsua den frogatzeko aukera izango duzue zuek.

Mihi pozoituek dioten bezain bihozgabea balitz Milena, Alex eta Inma onik askatzeaz gainera, bilatzen ari zareten fardel horren merkatu balioa haiei ematera behartuko zintuzkete, kalte ordain gisa. Bai, badakit fardela ez daukazuela eta non dagoen ere ez dakizuela, baina nirekin ados egongo zarete eragin duzuen buruhauste eta atsekabe honek guztiak ezin litekeela debalde izan. Fardela bilatu eta edukia saltzeko epe bat emango zizuen ustezko Milena ankerrak. Epe horretan fardela aurkitzen ez bazenuten edo kalte ordainerako dirua eskuratzen ez bazenuten, Milenak bere ezbeharrak erakartzeko boterea abian jarriko zuen.

Baina zorte ona izan duzue eta aldarte oneko Milenarekin egin duzue topo. Nire lagun mina gainera ni baino ulerkorrago eta eskuzabalagoa da, sinesgaitza bada ere, eta gurasoei eragin diezuen nekaldiagatik ordainik ez duela nahi esan dit. Nahikoa duzue gurasoak onik aske uztearekin. Ahalik lasterren. Eta onik. Kolperen bat eman edo zauriren bat egin diezuela aurkitzen badugu, aurreko guztiaz ahatz zaitzekete. Larrutik ordainduko diguzue, zer esanik ez. Mundu amaierako zulo galdu ezkutuenean gordetzen bazarete ere.

Plazera izan da zuekin mintzatzea, baina, zintzotasunez, ez nuke berriz egin nahiko. Zuei ez zaizue komeni. Betiko, hortaz.

Deia moztu zuen Cucak eta Adeleri itzuli zion sakelakoa. Irribarretsu.

Txalo egin zuen Adelek. Eta Cuca besarkatu.

Lara masailezurra lekutik kanpo zeukala ohartu zen.

Zerbait ikasiko genuela uste zenuten? Ezagutza bidaia baten istorioa zela hau? Kontaketa honen guztiaren amaieran helduagoak, jakitunagoak, hobeagoak izango ginela guztiak espero zenuten ala? Elkarrengandik zerbait ikasiko genuela guztiok, gazteek zaharrengandik, alabek gurasoengandik eta alderantziz ere? Bakoitzak bestearengan bere burua islatuta ikusiko genuela eta, azkenik, bestea ulertuko genuela? Sentitzen dut etsipena, baina ez dago horrelakorik, ez dago besterik. Sentitzen dut huts egin badizuet eta, ziria sartu dizuedala uste baduzue, barkatu.

Nolanahi ere, ez da guztiz egia ezer ikasi ez genuenik, ez guk ezta zuek ere, ikasi genuena onerako eta ereduagarria izan ez bazen ere. Esaterako, nik zera ikasi nuen, gurasoen neukan kontzeptu eskasa hankamotz gelditzen zela. Pertsona hotz, berekoi eta materialistak – zentzu txarrean- zirela banekien, baina, hori gutxi balitz, soziopata arriskutsuen bikote baten alaba nintzela aurkitu nuen Marbellara egindako ihesalditxoan. Abagunea izan nuenean haien aldamenetik alde egitea, uste nuena baino erabaki hobea izan zela berretsi nuen Marbellan. Arrazoa daukazula –beti eduki duzula- baieztatzea ez da bizitza aldaraziko dizun ikasketarik edo goi mailako sentimendurik, aitzitik, jende mizkinaren erdipurdiko poztasun bat baino ez da. Baina tira, txarragoa litzateke aurkakoa aurkitu banu, hots, guraso eskuzabal eta maitagarriak izan nituela beti eta, beraz, haiek nire bizitzatik kanpo uztea erabaki nuenean oker jokatu nuela. Gaitz erdi.

Adelek ikasi zuenaz ere –zerbait ikasi baldin bazuen- beldur naiz. Berak uste baino askoz inozoago eta ezgaiago zela ikasi beharko zukeen Adelek, bere kabuz bizitzeko prestatua ez zegoela, Inma eta Alexen babesa, laguntza eta gidaritza behar zituela oraindik –eta luzarorako ziurrenik-. Haren lekuan beste edonork horixe ikasiko zukeen, baina Adelek... batek daki! Beldur naiz Cucarengan ikusi duenarekin. “A ze emakumea zuen ama!” bota zidan Cucaren hitzalditxoan entzun genuen egunean, biok bakarrik gelditu ginenean. Une hartan ez neukan eztabaidan hasteko indarrik. Ordutik aurrera, Cucak hitz egiten zuen bakoitzean Adelek irribarre egiten zuen. Irribarre. Adelek! Marbellatik itzuli ginenean ere, agur egiteko unean, Adelek Cucari eman zion besarkada! Sekula ez nuen ikusi Adele inor horrela besarkatzen. Bere telefono zenbakia eman zion Cucak Adeleri, kontaktua mantentzeko, eta nahi zuenean itzultzeko esan zion –izan ere, bioi esan zigun, baina ni handik berriz hurbiltzeko gaizkile talde askoz beldurgarriago baten mehatxua beharko dut-. Ez dakit Adele eta Cuca oraindik elkarrekin hitz egiten duten edo elkarri mezuak bidaltzen dizkioten. Hala balitz, kezkatuko nintzateke. Cuca ez da eragin ona inorentzat, are gutxiago Adele bezalako norbaitentzat. Dakidan bakarra Adele gurasoen etxean dagoela da

eta ez daukala ausarkeria berririk saiatzeko asmorik, edo ez duela holakorik adierazten behintzat.

Eta Adeleren gurasoak zer? Inma eta Alex, haiek izan dira zentzugabeko istorio honetan kaltetuen atera direnak. Lesiorik, kolperik edo jipoirik ez zuten pairatu, ados, baina droga trafikatzailerik batzuen atzaparretan harrapatuta egon ziren, haien mehatxu eroak entzuten, eskuak bridaz lotuta eta ahoa zinta amerikarrez estalita... Ez dakit noizbait barkatuko nauten edo dagoeneko barkatu nauten. Agian, haien bihotz ona eta esku zabalak ezaguturik, ez naute euren sufrikarioen erruduntzat jotzen ere. Baina nik ez dut sekula haiek nozitu dutenagatik erru sentimentua alduko. Nire baitan badakit nire ihes egiteko erabakiagatik bahitu zizutela. Zorra kitatzeko moduren bat aurkitu beharko dut.

Bitartean, zoriontsu dirudite biek. Pozik daude Adele etxera itzuli delako eta terapiari berrekin diolako. Terapiak edo botikek, bakoitzak bere aldetik edo behar bezala konbinatuta, ez dituzte Adeleren arazoak erabat sendatuko. Badakite hori, aspaldi azaldu zieten adituek –batek eta bik baino gehiagok-. Baina terapia eta botiken laguntzarekin behintzat, bizitakoaren antzeko erokeriaren bat errepikatzeko arriskua asko moteltzen da. Edonola, Inmak eta Alexek ez dute nahi Adele botikek lelotutako eta irizpiderik gabeko txotxongilo bat bihurtzea nahi, jarraibideak onartu eta aginduak bete baino besterik egiten ez duena, aitzitik, bere burua zaintzeko gai den pertsona heldu bat izan dadila nahi dute. Nik ere gauza bera nahi dudala esan beharrik ez dago. Bere burua zaintzen ikasi behar du Adelek, nork zainduko du bestela Inma eta Alex ez dauden egunean? Nork zainduko du Adele ni ez nagoenean?

“Ez al da hori, azken finean, guraso guztiek nahi dutena?” esateko gutxi falta izan zait, baina Cuca eta Bosco etorri zaizkit burura. Ez dakit arau unibertsal baten salbuespena ote den haiena biena edo uste baino zabalduago dagoen jarrera baten adibide bat baino besterik ez. Ez naiz ikerketa soziologikoekin hasiko. Ez orain. Zeregin hobeagorik badaukat. Bejondeiela.

Kontaketa amaitu eta agur esan baino lehen, azkeneko pasadizo baten berri eman beharra daukadala uste dut. Ez da garrantzi handiko ezer. Adele eta biok Marbellan, eta Inma eta Alex bahituta, geunden bitartean gertatu zen. Laurok orduan bizi genuenarekin ez zuen zerikusirik eduki eta ez zuen korapiloaren askapenean eraginik izan, baina kontatuko ez banu zorioneko fardelaren istorioa hankamotz geldituko litzateke: Jon, skate dendako Jon bezala aipatu duguna, badakizue, Adelek aurkitu zuen fardela hartu beharko zukeena eta horren ondorioz kristoren jipoia eta kalteak jaso zituen, Jon hori ere zigorra berak ezartzen saiatu omen zen.

Fardela lapurtu ziona Adele izan zela aurkitu zuenean –fardelaren edukia saltzeko Adelek egin zituen saioak ez ziren oso sotilak izan, antza- haren bila hasi zen. Neska errusiarra zen Adele Jonentzat, karabanan bizi zen errusiar zoroa. Jon honek buruan zer zerabilen ezin dut ziur jakin, ez baitut harekin hitzik egin, baina egin zuenagatik, holako zerbait zerabilela susma dezaket: Adele estu hartuko zuen fardela edo haren balioa berreskuratzeko, baina ez zion horrekin bakarrik alde egiten utziko, berak pairatutakoaren antzeko zerbait sufriaraziko zion. Adelek karabana non aparkatzen zuen bazekien Jonek, baina gune hartan errautsak baino besterik ez zituen aurkitu –kiskalitako burdinen meta udaletxeko langileek eraman zuten-. Segidan gurasoen etxera jo zuen, bertan Adele aurkituko zuelakoan. Luzaro itxaron zuen ate aurrean Adele noiz irtengo zen zain, baina alferrik. Itxarroteaz aspertu zenean etxeko txirrina jotzeko saioa egin zuen ere, baina inork ez zion atea zabaldu. Inma eta Alex bahituta zeuzkaten Jon iritsi zenerako.

Haserrearen haserrez –eta tentel sentimendu pixka batekin ere, esango nuke-, pentsatua zeukan zigorra ezarri ezin zuela ikusirik, egoera hartan mendekua hartzeko Joni zera bururatu zitzaion: herri guztiaren aurrean salatu, lotsarazi eta mehatxu egingo zion Adeleri. Pintada bat egin zuen gurasoen etxearen horman. “Ordaindu zorrak, Adele” eta “Larrutik ordainduko duzu, Adele” idatzi zuen skate oholak margotzeko esprai batekin.

Lekuko batek baino gehiagok ikusi zuen Jon bandalismoaren erdian. Haietako baten batek leihotik oihu egin zion ere, gelditzeko aginduz. Hortaz, Inma eta Alexen bizilagunek ez zuten arazorik izan biharamunean salaketa jartzeko. Garbiketa ordaindu behar izan zuen eta isun bat ere jarri zioten. Adelerengandik urruntze agindu bat ere badauka orain.

Honekin nahikoa dela esango nuke. Soberan izan dugu. Ea apur bat lasaitzea lortzen dugun. Denok.